



Amaia Arranz
arkeologoari
elkarrizketa



Maider Unda,
brontzezko
emakumea



KIROL EGOKITUA ERE MARTXAN DA

Antxintxika Triatloi Taldeak sail berria
sortu du, triatloi egokituan aritzeko / 38

Ruben Viso, Aitor Rementeria, Igarki Paskual eta Joseba Azkarate, astelehenero aurkezpenean, Oñatin. IMANOL BELOKI

Gipuzkoako batzarkideek ezohiko bilkura egin dute Bergaran

Batzar Nagusietako bilkura ibiltaria kopuruz murriztagoa
izan da aurtan, COVID-19aren eraginez / 7



Arrasatear baten
Chufamix enpresak
Lidl salatatu du eta
epaileak arrazoi
eman dio / 6

Transfobiaz eta
ohikoak diren
jarrerez ari da Yuri
Paramos emakume
transgeneroa / 8

**Koronabirusaren
krisiaz, lehentasunez
eta erronkez hizketan
eskualdeko
hautagaiekin / 2**

SINADURAK

	ALAITZ JAUREGI / 31
	XABIER ARREGI MURGIENDO / 10
	XABIER GESALAGA / 35
	ITSASO ERRETOLATZA / 13
	IDOIA ETXEBERRIA / 48

2020KO
EGUZKITAKO NOBEDADEAK

%30-eko DESKONTUA

2020/07/31-era arte. Baita ere, 40 €-ko gutxienezko
enketak. Ezin da beste promozio batzuekin metatu.



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com

Debagoiendarrak ere hautagaitzan

Lore Martinez Axpe EH Bilduko zerrendan laugarrena da Gipuzkoan, Aitor Urrutia bederatzigarren EAJrean eta hirugarrena da Elkarrekin Podemos-IU koalizioan Eva Abuin Bideburu. Alberto Alonso Martin laugarrena da PSE-EEren Arabako zerrendan

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Uztailaren 12ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetara begira kanpainan murgilduta eman dute azken astea alderdiek. Hain zuzen, hauteskunde horietarako aurkeztutako zerrenden artean hogeitabagoiendar daude; zazpi EAJren Gipuzkoako zerrendan, bost EH Bilduren zerrendan, lau Elkarrekin Podemos-IUren zerrendan, bi Equo Berdeak alderdiaren zerrendan eta bat Vox-en hautagaien artean. Arabako PSE-EEren zerrendan ere debagoiendar bat dago.

EH Bilduren Gipuzkoako zerrendako laugarrena da Aretxabaletako Udalean zinegotzi izandako Lore Martinez Axpe aretxabaletarra. Era berean, Euzko Alderdi Jeltzalearen Gipuzkoako zerrendan bederatzigarren postuan dago Aitor Urrutia Oianguren eskoriatzarra, azken legegaldian legebiltzarkide izan dena. Arrasaten zinegotzi izandako Podemos Ahal Duguko Eva Abuin Bideburu ere hirugarrena da Gipuzkoako Elkarrekin Podemos-IU koalizioaren zerrendan. PSE-EEren Gipuzkoako zerrendan ez dago debagoiendarririk, baina bai Araban: Alberto Alonso Martin oñatiarra, Bergaran zinegotzia eta orain arte Osalaneko zuzendaria izan dena, laugarrena da.

Agintaldi berrira begira alderdien aurreikuspen eta asmoak azaldu dituzte lau debagoiendar horiek, Lore Martinezek, Aitor Urrutiak, Eva Abuinek eta Alberto Alonsok. Era berean, COVID-19 gaitzak eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei irtenbidea emateko alderdi bakoitzak zehaztutako neurriak jakinarazi dituzte, baita uztailaren 12tik aurrerako erronkak zehaztu.

LORE MARTINEZ AXPE

ARETXABALETA, 4. EH BILDUREN GIPUZKOAKO ZERRENDAN

"Erronka nagusiak herritarren ongizatea bermatu eta krisitik irtetea izango dira"

1. Ezohiko hauteskundeak izango diren arren, aurreikuspenak onak dira EH Bildurentzat. Sentsazio onekin mugitzen gabiltza. Bi aukera izango ditugu aurrean, eta herritarrek aukeratu beharko dute: Mendiak-Urkulluk ordezkatzeko eredu berdina, zaharkitua, edo Maddalenenk zuzenduko duena, erronka be-

1. Zer aurreikuspen dituzue? Zer babes jasoko duzue hauteskunde hauetan? Zer aliantza posible ikusten duzue gobernatzeko?

2. COVID-19ak eragindako krisi ekonomikoari aurre egiteko, zein izango da lehentasuna?

3. Zeintzuk izango dira agintaldiko erronkak? Zer arlotan jarri behar da fokua? Zergatik?

rriekin, bizitza erdigunean jarriko duen eredu berria. Eusko Legebiltzarrerara gobernatzeko asmoz eta gogoz joango gara, gobernatzeko erantzukizun eta konpromisoaz.

2. Pertsonak oinarri izango dituen ekonomia zirkularrean oinarritutako kudeaketa egingo dugu. Hau da, ingurumena, ekonomia eta arlo soziala uztartzen dituen ekonomia. Herrialde aurreratuek azpiegitura digitaletan, berrikuntzan, adimen artifizialean, ekonomien deskarbonizazioan, hezkuntzan eta ikerketan inbertitzen dute. Herrialde atzeratuek uste dute garapena azpiegitura handiak inauguratzean dagoela; AHTak ez gaitu herri aurrerakoi egingo, Espainiako AVEak dituen kilometro guztiak herri aurrerakoi egiten ez duten bezala. Erronka berriak datozkigu eta lehentasunak argi izan behar ditugu. Euskaltel-ekin pasatu dena, adibidez, ulertezina da. Iraultza digitalean barnertuta gaude, eta guztion artean ordaindutako azpiegitura digitala saldu dute, herri honentzat estrategikoa izan behar zena.

3. EH Bildutik agintaldirako erronka nagusiak izango direnak herritarren ongizatea bermatzea eta krisi ekonomikotik ateratzea izango dira, inor atzean utzi gabe. COVID-19 gaitza oraindik ere gure artean dugu eta ezin da inprobisatzen jarraitu. Politika publikoak egingo ditugu oinarritzeko arloek jasan dituzten murrizketak gelditu eta arlo horiek indartzeko: osasungintza, hezkuntza, zaintza, eta abar. Era berean, enplegua eta sektore ekonomikoak sustatuko ditugu. Bizi dugun egoerari aurre egiteko gaitasuna eta esperientzia badugu eta aurrera egiteko prest gaude.

AITOR URRUTIA OIANGUREN

ESKORIATZA, 9. EAJ-REN GIPUZKOAKO ZERRENDAN

"Pertsonak izan dira lehentasuna beti; bai orain, bai COVID-19aren aurretik ere"

1. Gure aurreikuspena kanpaina txukuna egitea da, egin duguna balioan ipini, gure proposamenak herritarrei helaraztea eta jendea bozkatzera animatzea. Babesari dagokionez, ikusiko dugu, nahiz babes ona nahiko genukeen izan, lan txukuna eta proiektua sendoa daukagulako.

Aliantzak egiteko ere, lehendabizi emaitzak ikusi behar dira. Gure asmoa denekin hitz egitea da, eta adostasunetara iristea, baina, horretarako, gurekin adosteko prest egon behar dute besteek ere. Gu irekita gaude.

2. Lehentasuna pertsonak izan dira, bai orain, bai koronabirusaren aurretik ere. Krisi honetatik irteteko ere, giza kapitalean inbertitu beharra dago inoiz baino gehiago. Horrek hainbat arlotan jarraitu beharreko inbertsioen aurrean jartzen gaitu: osasuna, arlo soziosanitarioa, hezkuntza, formakuntza eta gizarte zerbitzuak, nagusiki. Era berean, ekonomia berrindartu beharra dago, enplegua sustatuz. Lan horretan, enpleguaren inguruko formakuntza gakoetako bat izango da; pertsona eta enpresen premietara moldatuz, herritarrek lana eta enpresek lehiakortasuna izan dezaten.

3. Gizarte bezala lehendik ere oinarritzekoak ziren arloak eta bereziki gauden egoeratik irteteko ezinbestekoak diren arloak izango dira erronkak agintaldira begira: osasuna, arlo soziosanitarioa, hezkuntza, formakuntza eta gizarte zerbitzuak. Ekonomia berrindartu eta enplegua sortu beharra dago, langabezia jaitsiz. Bizi dugun krisi honetaz gain, badaude tinko heldu beharreko beste hainbat erronka ere; besteak beste, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, eta gure herriaren autogobernuak behar duen bultzada, herri bezala urrats berriak egin ditzagun. Agintaldirako aipatutako erronka eta foku guztiak koronabirusak eragindako azken krisi honetatik zutik irteteko eta nazioa osatzen duen herri bezala pauso berri eta kualitatiboak emateko balio behar dute, zein gizarte justuago eta kohesionatuago lortzeko.



Lore Martinez Axpe Aretxabaletarra. L.M.



Eva Abuin Bideburu arrasatearra. E.A.

EVA ABUIN BIDEBURU

ARRASATE, 3. ELKARREKIN PODEMOS-IU KOALIZIOAREN GIPUZKOAKO ZERRENDAN,

"Gizarte zerbitzuak eta zerbitzu publiko sarea indartu behar direla erakutsi digu krisi honek"

1. Hauteskunde hauek historiakoak izan daitezke, EAJren politika antisozialak alde batera utzi eta ezkerretik alternatiba eraldatzailea eraikitzeke aukera dagoelako. Ezkerreko alderdiak gobernatzeko prest gaude, alternatibak eraikitzeke garaia da. Elkarrekin Podemos-IU koalizioan argi izan dugu beti beste Euskadi bat posible dela. Ezkerreko alderdiok elkarrekin lan egin behar dugu, etorkizuneko proiektu baten alde, gizakiaren askatasuna, demokrazia eta berdintasuna



Aitor Urrutia Oianguren eskoriatzarra. EAJ



Alberto Alonso Martin oñatiarra. PSE-EE

lamentuan blindatu behar dugula argi daukagu.

3. Askatasuna, demokrazia, berdintasuna, feminismoa eta euskaldunon autogobernua lortzeko borrokarekin zentratuta gaude; herri-subiranotasuna, une bakoitzean guk nahi dugun etorkizuna erabaki ahal izateko. Euskadi feminista eta parekidea nahi dugu, inor atzean utziko ez duena eta giza bizitzaren eta lurraldearen jasangarritasuna politika publikoen ardatz izango dena. Zuzeneko demokraziarekin eta demokrazia parte-hartzailearekin lotutako formulak bul-tzatzen dituen bidea eraikitzea... Hau da, bizitza eta pertsonak daude gure proiektuaren erdigunean. Aldaketa politikoa ikuspegi feministatik begiratu izan behar da, kolektibo kaltetuenak aintzat hartuko dituen eta, batik bat, bizitzaren euskarri diren lan guztiei balioa emango diena.

ALBERTO ALONSO MARTIN

OÑATI, 4. PSE-EE-REN ARABAKO ZERRENDAN,

"Oinarri etiko gutxieneko batzuk onartzen dituztenekin soilik partekatu dezakegu Gobernua"

1. Euskadin inkestek PSE-EE-arentzat planteatzen dituzten joerak positiboak eta goranzkoak dira. Gure ustez, sozialistak Espainian eta Eusko Jaurlaritzan erantzukizunez jokatzeko ari garela ulertu dute herritarrek, eta euskal sozialistak beti egon garela akordioaren alde; betorik eta bazterketarik gabe. Hala ere, oinarri etiko gutxieneko batzuk onartzen dituztenekin soilik partekatu dezakegu Gobernua: inoiz ez da arrazoirik egon gizaki bat suntsitzeko, ez iraganean, ezta orain jazartzeko ere. Zailagoa ikusten dugu gobernagarritasuna lortzea Euskadiko Alderdi Sozialista Eusko Legebiltzarraren egon denean lau urtez oposizioa egin duten alderdi horiekin. Nazionalisten arteko aliantza ere posible da. Guk emaitzak ikusiko ditugu, eta, beti bezala; herritarrek gure irtenbide-proposamenak eta hauteskunde-programa nola

jaso dituzten aztertuko dugu. Orduan ikusiko dugu nola osatu gobernua eta herritarrek konfiantza ematen badigute, norekin.

2. Gure lehentasuna, esparru orokorrean, osasun sistema publikoa indartzea da, baita laneratze azkarra krisiak kalte-tu dituen langileentzat, betiere eskubide guztiak bermatuz langile horientzat. Berehalako plan bat proposatzen dugu 2020 honetarako, larrialdiei aurre egiteko, baita begirada

luzeko plan bat legealdirako, behar ditugun erreformak aurrera atera eta krisi honetatik ondorio kaltegarri gabe atera gaitezen, beti eragile sozialen arteko adostasun handienarekin.

3. Sozialistok aspaldi ulertu genuen hauteskunde autonomikoetako proposamenak ez direla soilik lau urte kudeatzeko, baizik eta hurrengo hamarkadak diseinatzea. Krisiaren ostean, berdinen arteko Euskadi bat lortzeko –jasangarria,

berritzailea, anitza eta kohe-sionatua–, lehentasunak eta foku politikoa osasunean eta euskal eremu soziosanitario baten eraikuntzan jarri behar ditugu, euskal hezkuntzan, hezkuntza hori behar berrietara egokitzean eta gizarte-zerbitzuetan. Azken batean, krisi honen osteko Euskadi sendo bat eraikitzeke parte izan behar duten arlo horiez guztiez ari gara. Inor gizartetik kanpo gera ez dadin lan egin behar dugu.

EUSKADI ZUTIK
aterako gara!!

URKULLU LEHENDAKARI

eman botoa

EAJ PNV

lortzeko borrokaren aldarrikapenak gure herrian errotzeko.

2. Elkarrekin Podemos-IU hautagaitzatik proposamen zehatzak dauzkagu, koronabirusaren osteko talka plan bat proposatzen dugu hiru ardatz nagusi eta hamabost neurri konkreturekin. Ardatz morea, zaintzalanak birbanatzeko; ardatz gorria, oinarriko eskubideak –etxebizitzak, hezkuntza eta diru-sarreraren minimoa– bermatzeko politikak eraikitzeke; eta ardatz berdea, trantsizio ekologikoaren bidean aurrera egin ahal izateko beharrezkoak diren erreforma eta plan integral bat gauzatu ahal izateko. *Normaltasun berriaren* ondorioak langile klaseak berrituz ez ordaintzeko politika eraginkorrek artikulatu behar ditugu. Gizarte zerbitzuen eta zerbitzu publikoen sareak indartu behar direla gogorarazi digu krisi sanitario honek, eta hau Par-



Pello Atxukarro. GOIENA



Rafa Bernal. GOIENA



Jose Mari Sasieta. J.M.S.

Eneko Azurmendi ARRASATE

Equo bakarrik aurkeztuko da hauteskunde hauetan, eta ez Elkarrekin Podemos-IUekin. "Podemos Euskadiko aurreko zuzendaritzak gu haiekin izatea gura zuen, oso kide onak izan garelako eta asko kolaboratu izan dugulako haiekin. Guk ere koalizioan aurkeztea onartuta geneukan gehiengo osoz. Hala ere, Pablo Iglesiasen erabakia izan da hau, harena bakarrik", nabarmendu du Bernalek.

Eusko Legebiltzarrean sartzea aurreikusten dute, ordea. "Frantziako Lyon, Bordele eta Estrasburgo hirietan berdeek eskuratu dituzte alkatetzak, eta horrek esan nahi du olatu berdea gerturaten ari dela hona ere. Zerbait lortzea espero dugu".

Gizartearen aldeko proiektua

Libres Por Euskadiren asmoa "gizarteak behar duenaren alde" lan egitea da. "Ez du zertan eskumako edo ezkerreko proiektu bat izan, baizik eta herritarren onura bilatuko duen proiektu bat. Gure zerrenda askotarikoa da. Podemosetik etorritakoak gaude, baina baita Ciudadano-

setik edo PPTik etorritakoak ere", dio Sasietak. Gipuzkoatik, "gehienez", legebiltzarkide bat lortzea aurreikusten dute. "Helburu nagusia, halere, proiektua ezagutaraztea da, apur bat egonkortu eta epe luzearako proiektua garatzea".

Konstituzionalisten koalizioa

"Bi alderdi ezberdin gara, posizio ezberdinak ditugu, eta horretaz kontziente izan behar dugu. Hala ere, adostasun dezente ditugu Espainiari dagozkion gauza askotan. Gainera, iruditzen zaigu zatiketarik ez duela gobernatzeko aukera handirik ematen. Herritarrei zerbitzua ematea da gure zeregina eta herritarrek eskatzen dutena da elkarrekin indarrak bateratzea, eraginkorragoak izango garelako modu horretan", adierazi du Atxukarro, eta gaineratu agintari guztiei "leialtasuna" exijitu behar zaiela, "edozein alderdietakoa izanda ere".

Oñatiar bat Voxen zerrendan

Josu Laino oñatiarra Vox alderdiaren Gipuzkoako zerrendan aurkeztuko da, hamaseigarren.

Beste maila batean bada ere, lehiatzeko prest dira

Rafa Bernal aretxabaletarra Equoko zerrendan seigarrena da Gipuzkoan; Jose Mari Sasieta bergararra, bigarrena Libres Por Euskadirenean; eta Pello Atxukarro, PP+C's koalizioan hamaseigarrena. Hasiara batean, ez dute besteek adina boto eskuratuko

GIPUZKOA PASSPORT

Uda Gipuzkoan gozatzeko pasaporte

Jaso zurea Turismo Bulegoetan

www.gipuzkoaturismoa.eus #VisitGipuzkoa

GIPUZKOA TURISMOA



Maddalen Iriarte hitz egiten, astelehenean, Arrasateko ekitaldian. TXOMIN MADINA



EAJk Bergaran egin zuen ekitaldian ateratako argazkia. GOIENA



Rafa Mayoral, ekitaldi batean. PODEMOS

EH Bilduk autogobernuaren aldeko konpromisoa berretsi du

"Urkullu erabakitze eskubidea gauzatzeko oztopo bat da", azaldu du Maddalen Iriarte lehendakariak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Koalizio abertzaleak Arrasaten egin du asteon Debagoieneko ekitaldi nagusia, astelehenean. Maddalen Iriarte lehendakariak eta Gipuzkoako zerrendako hirugarren eta Sorturen idazkari nagusi Arkaitz Rodríguez hartu dute hitza agerraldian, bailarako beste hainbat ordezkariarekin batera.

Biek azpimarratu dute uzta-laren 12ra begira "partida" ez dagoela erabakita, eta lehendakariak azaldu du EH Bildu-erentzat bozka guztiak beharrezkoak direla. Adierazi du Gobernuan egonez gero zerbitzu publikoak indartuko dituztela: "Batzuk murrizketek ari dira hitz egiten. Badakigu pandemiak sortutako krisi ekonomikoak diru gutxiago ekarriko duela eta zailtasun handiagoak. Baina gu ez gara errazean eroriko, zerbitzuak finantzatzeko diru

aterako dugu, eta erabaki zer den hobe jendearentzat: milaka milioi euro xahutzen dituen eta inondik inora ez doan tren bat egitea edo jendea zaintzea".

Arlo ezberdinetan hartutako konpromisoak beteko dituztela gaineratu du Iriartek, ez direla promesetan geratuko. Horiek gauzatu ahal izateko, burujabetzaren beharra azpimarratu du: "Burujabetza ez da gutizia bat, gure eskubide guztiak bermatu ahal izateko instrumentu politikoa baizik; horregatik da beharrezkoa", gaineratu du.

Beste hainbat ekitaldi bailaran

Martitzenean Aretxabaletan izan ziren Lore Martínez eta Juan Karlos Izagirre eta eguztenean, Antzuolan, berriz, Marian Beitarrangoitia eta Ainhoa Beola. Gaur, egubakoitza, Arkaitz Rodríguez eta Izaro Elorza Oñatik plazan izango dira, 19:00etan.

Autogobernua, talde lana eta zaintza, EAJren bermeak

EAJk eskubideak eta erantzukizunak "inork baino hobeto barneratuta" dituela nabarmendu dute jeltzaleek

Uxue Igarza BERGARA

EAJk agerraldia egin zuen Bergaran eguztenean. Hizlari aritu ziren Gipuzkoako zerrenda osatzen duten bost hautagai; tartean, Elena Lete eta Irune Galarraga bergararrak. Autogobernua, zaintza eta kooperazioa izan ziren azpimarratu zituzten ideiak. Ekitaldian izan ziren, era berean, Bakartxo Telleria zerrendaburua, Maria Eugenia Arrizabalaga zerrendan bigarrena eta Aitor Urrutia bederatzigarrena, besteak beste.

Zerrendako hirugarrena den Joseba Egibar GBBko presidentek nabarmendu zuen zerrenda osatzen dutenen "esperientzia eta gaztetasuna", eta taldean aritzeko gaitasun handia dutela. Egoera zailaren aurrean EAJk legebiltzar talde indartsua eratztea garrantzitsua dela esan zuen. Elena Lete Bergarako alkate ohiak esan zuen alderdiak

"eskubideak eta erantzukizunak inork baino hobeto barneratuta" dituela, eta EAJk ardurak eta esandakoak betetzen dituela: "Ez dugu egingarria ez den ezer agintzen. Badakigu lan egiten eta horretarako erakunde sendoak ditugu".

"Indarrez eta elkarrekin"

Arratsaldean Arrasaten izan ziren EAJren hautagaiak, alkaterekin –zerrendan hamazazpigarren– eta hainbat zinegotzirekin batera. Bastida akademiara egin zuten bisita eta argazkia atera zuten Araba etorbideko biribilgune berrian. Aitor Urrutia hautagai eskoriatzarrak adierazi zuen hauteskundeak "bereziki inportanteak" direla, "egoera kontuan hartuta", eta gehitu zuen "indarrez" irten behar dela, "herri perspektiba batekin, herri moduan, elkarrekin eta kohesioan oinarrituta".

Rafa Mayoral diputatua Arrasatera dator bihar

E.A. ARRASATE

Elkarrekin Podemos-IUK bihar, zapatua, kanpainako ekitaldia egingo du Arrasaten. 11:00etan izango da; hasiera batean, Seber Altuben. Izan ere, euria egiten badu, Biteri plazako aterpean egingo dutela aurreratu dute koalizioako kideek.

Miren Gorrotxategi lehendakariak eta Jon Hernandez legebiltzarkide eta Gipuzkoako zerrendan bigarrena denak hartuko dute hitza. Hala ere, alderdiko Elkarrekin Podemos-IUKo kideek adierazi dutenez, Rafa Mayoral izango da biharko ekitaldiko *plater* nagusia. Madrildarra Unidas Podemoseko diputatua da gaur egun Espainiako Diputatuen Kongresuan. Azkenik, Podemoseko idazkari nagusi Pilar Garrido ere egongo da, eta Isabel Salud ere bai, Euskadiko Ezker Anitzako koordinatzailea.

elkarrekin PODEMOS.

GOBERNATZEKO PREST

MIREN GORROTXATEGI
Lehendakari hautagaia
<http://mirengorrotxategi.eus>

Lidl-en aurkako epaiketa irabazi du Chufamix-ek

Itziar Bartolome arrasatearrak eta Andoni Monfortek sortu eta patentatutako *Vegan Milker* landare-edariak egiteko etxetresna kopia zuten Lidl-ek, 2017an. Enpresaren aurkako demanda jarri zuten; eta Alemaniako epaitegi batek arrazoia eman berri die

Maialen Santos ARRASATE

Jendearen eskariz sortu zuten txufa-hortxata egiteko Chufamix etxetresna eta enpresa Itziar Bartolome arrasatearrak eta haren lagun Andoni Monfortek. Artisau hortxata egilea da azken hau, eta Valentzian aritzen da azokaz azoka edaria saltzen. Bartolomek azaldu duenez, "behar" baten eraginez jaio zen gerora Vegan Milker izena hartu duen tresna: "Jendeak hortxata dastatu bezain pronto galdetzen zigun ea non eskuratu zitekeen. Baina produktu freskoa denez, erraz hondatzen da". Arrazoi horregatik, "argi" ikusi zuten jendeak etxean hor



Itziar Bartolome, Vegan Milker etxetresnaren sortzailea. I.B.

txata egin zezan tresna bat asmatu beharra zutela. Eta etxean edonork izan dezakeen irabigailuari tiraka sortu zuten tresna. Gerora konturatu ziren, gainera, hortxata ez ezik edozein landare-esne egiteko ere "baliagarria" izan zitekeela.

Lidl multinazionalak, kopia

2012an sortutako etxetresna patentatu egin zuten gerora, Monforteren izenean. Eta, "pixkanaka", mundu osora hedatuz joan ginen munduko hogeita bost herrialde ezberdinetan, eta salmentak oso ondo zihoazen".

2017ko abuztuan, hornitzaile baten deia jaso zuten sortzaileek. "Adierazi zigun Lidl multinazionalaren katalogoan agertzen zela Vegan Milker. Segituan jakin genuen ideia plagiatu zigitela", aitortu du arrasatearrak. Eta ez hori bakarrik: "Europa osorako tirada ateratu zuten, eta gure fabrikazio kostuaren azpitik ezarri zuten euren salmenta-prezioa. Hiru aldiz merkeago, zehazki". Gaineratu duenez, "izugarriko kaltea" eragin zuten Lidl-ek, eta harreman komertzial asko "gal-

du" zituzten, "ezinezkoa" zitzaielako multinazional baten aurka lehiatzea: "Une oso zailak bizitzera eraman gintuen horrek".

Gauzak horrela, multinazionalaren aurkako demanda presatzen hasi ziren –herrialde herrialde egin beharrekoa–. "Patentea genuen froga modura; beraz, ez genuen ezer galtzekorik", dio Bartolomek. Espainiako Lidl demandatu zuten lehenengo, eta epaile batek trami-tera onartu zuen: "Lidl-ek produktua ateratu eta bi hilabetera debekatu zioten salmenta". Halere, oraindik "instrukzio fasean" dago demanda hori, Espainiako justizia "nahiko motel" doa eta. Alemaniako Lidl ere demandatu zuten gero; bertako justizia azkarragoa delako: "Pentsatu genuen apustua egitea, bagenekielako epaia azkarrago aterako zela". Duela urtebete hasi ziren horretan, eta irten berri den epaiketa arrazoia eman die Bartolomei eta lankideei. Horrenbestez, Lidl enpresak indemnitzatu egin beharko ditu. Diru hori Ameriketako Estatu Batuetako Lidl demandatzeko erabiltzea "aurreikusten" dute.

Haurrak pantailarik gabe hazi nahi dituztenen bila

Debagoieneko bi familia "kezkatuta" daude smartphoneen eta pantailen inguruan orokortzen ari den ereduarekin. Umeak pantailarik gabe hazi gura dituzte, eta dinamika horrekin bat datozen familien bila ari dira; harremanak sortu guran

M.S. ARRASATE

Bailarako bi familia "kezkatuta" azaldu dira gaur egun smartphoneen eta, orokorrean, pantailen bueltan "orokortzen" ari den ereduarekin. Familia horietako guraso batek, Patxi Monterok, azaldu du ez dutela gura haurrak horiei begira "hazi" daitezen, uste dutelako aparailu teknologikoen baldintzatu egiten duela harremantzeko modua. "Eredu horren ordez, bestelako harreman eta haziera-eredua jarraitzen dugu", aitortu du. Zehazki, adierazi du gurasoak haurrekin daudenean elkarrekin daudela; ez, ordea, pantailara begira. Bestalde, ez dituzte telefono edo-

ta tabletak erabiltzen haurrak entretenitzeko, "edota isilik eta geldirik egon daitezten". Oro har, aitortu du "zentsuz" erabiltzen dituztela telefono eta pantailak. Horretaz gain, gozokirik ere ez dute kontsumitzen: "Ahalik eta gutxien nahi genituzke gure artean; hobe bat ere ez".

Aurrez aurreko harremanen bila

Monterok azaldu duenez, 6 eta 10 urteko bi alaba dituzte, eta Debagoiengan edo inguruan pantailarik gabeko aukera hautatu dutenenekin "harremanak bilatzen" ari dira: "Gure artean eta gure haurren artean harreman ona sortzen bada, elkarre-

kin bidea errazteko". Hala, uste dute lehen urratsa litzatekeela ikustea bailaran antzeko dinamika jarraitzen duen familiarik ba ote dagoen; kasu horretan, elkar ezagutzeko aukera egongo litzatekeelako.

Haurren arteko harremanetan zera bilatzen dutela adierazi du: aurrez aurreko harremanak bizitza errealean, jolasa, jolas librea, natura, elkar-errespetua, lasaitasuna...

"Sentsibilitate" honekin bat datorrena eta halako harreman dinamikien bila dabilena telefono hauen bidez jar daiteke bi familiekin harremanetan: 943 78 90 70 edo 675 94 46 09.

COPRECI COPRECI, KOOP. E

2020ko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Elkartearen Ohiko Batzar Orokorra deitzen da. Batzarra Coprecin egingo da 2020ko uztailaren 24an, 09:15ean lehen deialdia eta, kasua balitz, bigarrena 09:30ean, hurrengo gai zerrendaren arabera:

GAI ZERRENDA

1. Akta(k) onartzeari buruzko txostena eta akordioa.
2. Memoria irakurtzea eta onartzea.
 - 2.1. 2019ko Gestioari buruzko akordioa.
 - 2.2. 2020ko Gestio Plana onartzea
3. 2019ko Memoria ez finantzarioa.
4. 2019ko Urteko Kontuen azterketa.
5. 2019ko Emaitzen banaketa.
6. Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak
7. COPRECI, S.COOP. eta ALTSASUKO, S.COOP. kooperatiben arteko bat-egite proiektua, lehenengoak bigarrena xurgatuz gauzatuko litzatekeena, aztertu eta hala badagokio onartzea.
8. Fagor S.Coop.eko Estatutu Sozialetako 29. eta 54. artikuluko aldatzea.
9. Estatutu Sozialetako 29. eta 35. artikuluko aldatzea.
10. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak.
11. Galderak eta eskaerak.

Kontseilu Errektoreko Lehendakaria
Arebabaleta, 2020ko ekainaren 29a

Gipuzkoaren batasunaren alde egin dute Bergaran

Gipuzkoako Batzar Nagusien bilkura ibiltaria egin zuten atzo, Bergaran. Udaleko ohorezko liburua sinatu zuten ekitaldiaren hasieran, eta, pandemiaren eraginez bizia galdu duten pertsonak oroitzeaz gain, herriko historia ere izan zuten gogoan

Maialen Santos BERGARA

Gipuzkoako Batzar Nagusien bilkura ibiltariak Bergaran egin zuen, atzo, urtero oporraldiaren aurretik egin ohi duen osoko bilkura. Osasun neurri zorrotzekin, 17 batzarkide bildu ziren, eta herriko plazan egin zieten harrera, aureskua dantzatuta. Ondoren, osoko bilkurako sarrean, Udaleko ohorezko liburua sinatu zuten Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak, Gorka Artola Bergarako alkateak eta Xabier Ezeizabarrena Batzar Nagusietako lehendakariak.

Osoko bilkura COVID-19a presente izan zuen ekitaldi solemnea izan zen, eta gaitzak jota hil



Batzar Nagusietako ordezkariak eta Bergarako alkate Gorka Artola. MAIDER ARREGI

direnen omenezko minutu bateko isilunearekin eman zioten hasiera. "Jasan dugun kolpe hau gure gizartea oinarri sendoekin berreraikitzeak aukera da", azaldu zuen Gorka Artolak. Horretaz gain, adierazi zuen lurralde historikoak, Gipuzkoak, ongizatearen eta gizarte orekaren "aldarria" egin duela luzaroan, eta, gauza asko lortu diren arren, oraindik badagoela "zer defendatu, eta zer hobetu". Xabier Ezeizabarrenak boluntarioen lana nabarmendu gura izan zuen: "Bergaran 75 bat gizon-emakume izan ditugu 50 etxetara joanez; beharrean aurkitu diren pertsonak eta familiak babesten".

Artolak zein Ezeizabarrenak Bergarako historia izan zuten gogoan; eta Ilustrazioak zein industrializaziorako bideak herrian izan duten nagusitasuna aintzat eduki zuten. Hain justu, Ilustrazio sasoiari Bergara Europako leku "erreferente" izan zela azaldu zuen Artolak; ezagutzaren eta berrikuntzaren "sorleku". Horrez gain, Gipuzkoako lurralde historikoaren batasuna aldarrikatzeko sasoiak dela esan zuen: "Batzuetan, urru-

ti samar ikusi eta sumatu izan dugu Gipuzkoa, eta oraindik ere periferian geratzen gara batzuetan. Horregatik da garrantzitsua Batzar Nagusien bisita".

Markel Olano diputatuak, berriz, gipuzkoarren lurralde oreka azpimarratu gura izan zuen: "Bailarek indar handia dute; bai ekonomikoki, baita sozialki ere. Keinu honekin, uztailean zira urtero ekartzen dugu gogora gipuzkoar guztiok bat garelara".

Bisitaren harira, *Zerbitzu publiko guztiak, publiko eta indardatsu* lelopean LABek elkarretaratzea egin zuen herriko plazan, udal eta foru administrazioko langileen "aldarrikapenen berri" emateko. Adierazi zuten, pandemiarekin "sekula baino argiago" gelditu da datorrenari aurre egiteko "ezinbestekoa" dela zerbitzu publiko sendoak edukitzea. Osoko bilkuraren aurretik, Juan Karlos Izaguirre batzarkidea LABeko ordezkariari gerturatu zitzaion, gainera.

Azkenik, datorren urteko, 2021eko, osoko bilkura ibiltaria Mutrikun egingo dutela iragarri zuten batzarkideek.

- Teilatupekoak solariumarekin
- Beheko solairuak txokoarekin
- Terrazak

lorentxoko

P23 · bizigune berria

Gimnasioa
esklusiboak
egoiliarrentzat

2 eta 3
logela

2
logela
146.000 €-tik
aurrera

BERGARA · www.lorentxoko.com

Bizitzaren mamia

Merkatuaren joerei jarraituz, **GRUPO EIBAR** entzun egin du, eta azken edizio honetan:

Lorentxoko P23k kalitate bikainari, pertsonalizatzeko aukerei eta terrazek eusten jarraitzen du, baina aurreko edizioetan baino etxebizitza estuagoak ditu metroetan eta prezioetan. Horrez gain, zure ongizaterako espazio komunak ere barne hartu ditu, hala nola egoiliarrentzako gimnasio eskusiboa, plazak eta haur-parkeak. Zatoz Bergarako gure bulegora! Eta ezagutu itzazu.

GE

grupo eibar

inmobiliario

www.grupoeibar.com

E: comercial@grupoeibar.com

GRUPO EIBAR-EN BULEGOA: 943 31 66 11

Enai ,1 · 20570 BERGARA. **650 44 21 59**

Lotesleak ez diren inudi bertutatuak

"Aurrean jarritz gero, ez dugu paso egin behar"

YURI PARAMOS EMAKUME TRANSGENEROA

176.000 ikustaldi izan ditu dagoeneko Yuri Paramos oñatiarrak sarera igo duen bideoak. Bertan, transfobiaz aritzen da eta ohikoak diren jarrerak salatzen ditu

Uxue Igarza Loiola OÑATI

Yuri Paramosek argi dauka bere helburua atzetik datozenei "bidea erraztea" dela. Hala, orain gutxi ireki duen bideari jarraiki, transfobiaren aurka jarduteko erabakia hartu du, eta, sare sozialean bidez nahiz bestelako erremintan bidez, bere ahotsa lau haizeetara zabaltzen nahi du.

Ohikoa da transfobia?

Bai, eta gaia lantzeak are gehiago azaleratu du gizartearen dagoen transfobia. Ikusi besterik ez dago lehen ezer esatera ausartzen ez ziren hainbat sektore egiten ari direna; eskuinekoak, ezkerrekoak, eta euren burua *feministatzat* dutenak ere sekulakoak esaten dituzte trantsen inguruan.

Jabetzen gara egoeraz?

Gehienetan ez, baina garrantzitsua da gauza bat argitzea: norbaiten transfobia salatzen dugunean, ez gara pertsona hori epaitzen ari. Jendeak pertsonalera eramaten du, eta konturatu behar dugu denok ditugula jarrera transfoboak –jarrera marxista edo arrazistak ditugun bezala–. Horrenbestez, ez dugu haserretu edo oldartu behar, gure akatsa onartu eta hausnarketa egin beharko dugu; hor dago kokxa.

Nola, ordea?

Paso ez egiten. Informazioa muturren parean jartzen digutenean –sare sozialetan edo hedabideetan, adibidez–, egin dezagun irakurtzeko ahalegina. Informazioa bilatzea ere ez dut eskatzen, bakarrik begi-bistan dagoenean kasu ematea.

Eta zuk baduzu erreferenterik borroka honetan?

Ez dut izan. Sare sozialetan dauden eztabaidetatik ikasi dut, gehienbat; ikuspuntu guztiak aztertu, eta ondoren, nire ideiak eratzen ditut. Gainera, zentzu batean, arriskutsua iruditzen zait erreferente argiak izatea; norbait idealizatzen dugunean,



Yuri Paramos, Goiena telebistarako elkarrizketa egiten. MAIDER ARREGI

dena sinesteko joera dugu; baita astakeriak esaten dituen ere. **Hortaz, nork defendatzen ditu zure interesak?**

Nik neuk. Horregatik da beharrezkoa hau guztia; gure ahotsa entzunaraztea. Gainera, jendeak eskertu ere egin du orain arte egin dudana, eta, beraz, indartsu nago nire mezua zabaltzeko.

Instagramen jarri zenuen bideoak sekulako zabalkundea izan du...

Bai, eta ez nuen espero. Mezu asko iritsi zaizkit eskerrak emateko, eta benetan poztu nau. Ez naiz mila alorretan aditua, baina, nire esperientzia partekatzeak lagundu badezake, hor egongo naiz. Ahaldunduta nagoela sentitzen dut, eta nire indarrak gainerakoei konfiantza eman nahi diet.

Militantzia modu bat ere bada?

Ez dut taldean militatzen, baina bai, esan daiteke norbanako gisa militatzen dudala. Halere, buruan

"ALFERRIK EGINO DUGU GUK BORROKA, JENDARTEAREN GAINERAKO ZATIAK EZ BADU EZER EGITEN"

dudan zerbait da taldean aritzea. Kolektiboak beti ematen du indarra eta babesa. Ezagutzen ditudan trans gehienak kolektiboetan daude, oso zaila delako bidea bakarrik egitea.

Eta zein da zure helburu nagusia?

Zalantzarik gabe, atzetik datozenei bidea erraztea. Askok lotsa, beldurra, ezjakintasuna eta babes falta dute, eta norbait hor badago, dena errazagoa da. Bozgorailu lana egiteak bidea samurtzen du gainerakoendako. **Dena den, gainerakook "etxeko lanak" egin beharko ditugu, ezta?** Bai, eta asko dago egiteko. Alferririk ariko gara gu borrokan, jendartearen gainerako zatiak ez badu ezer egiten. Paretaren kontra egingo dugu topo behin eta berriz.

Nondik hasi behar dugu?

Hezkuntzatik, adibidez. Ikastetxeetan badago zer egin... Sexualitatea bere osotasunean landu behar da; beti irakasten digute sexu-harremantetan prebentzio neurriak hartu behar ditugula, baina sekula ez digute irakasten trantsen errealitatearen inguruko ezer, eta egingo balitz, etorkizuneko hainbat arazo ekidingo lirake; jazarpena eta

indarkeria, besteak beste. Eta ez ikasleei zuzenduta soilik; irakasleek ere formakuntza jaso beharko lukete.

Eta nork gehiago?

Bada, adibidez, medikuek. Askotan, ez dakite ezer pertsona trantsen inguruan eta norberak eman behar izaten dizkie azalpenak. Nik azaldu behar diot medikuari zer behar duan? Hori lotsagarria da, onartezina. **Naizen elkartearen ere bazaude.**

Bai, eta etorkizunean bertan jarraitzeko asmoa dut, boluntario. Oso eginkizun garrantzitsua egiten du; haurrei eta nerabeei laguntzeaz gain, gurasoei eskaintako arreta ere ematen dute. Bertan jabetzen zara ez zarela *izaki arraro* bat. Zure bizipenak partekatzeak ahaldundu egiten zaitu. Denoi gertatu zaigu hori.

Eta gurasoei dagokienez?

Hitzaldiak, tailerrak eta bestelako jarduerak egiten dira, familiei –baina, batez ere, haurrei– bidea errazteko. Gurasoei, askotan, zaila egiten zaie gure azalean jartzea. Adibidez, nire amak askotan esaten zidan: "Mutikoa zinenen...". Trantsizioa egin aurreko egoeraz aritzen zen, baina nik beti emakumea izan naizela erantzuten nion: orain, emakumea; eta lehen, neskatoa. **Askotan tokatu zaizu azalpenak eman behar izatea?**

Bai, baina ez zait inporta zalan-tzak modu onean –eta errespetuz– argitzen saiatzen direnei gauzak azaltzea. Halere, esan bezala, nekagarria da. Dena den, aliatuak behar ditugu; guk eman behar dugu lehenengo pausoa, baina laguntza behar dugu.

Bukatzeke, zein iritzi duzu igaro berri den E28aren inguruan?

Ekainaren 28a, Martxoaren 8a... Beharrezkoak dira gure aldarriak eta borrokek ikusarazteko, baina gainerako egunetan ere ezin gara horietaz ahaztu. Hedabideetan joera handia egoten da hori egiteko, eta *pinkwashing* delakoa ere ohikoa da enpreetan: publizitatea egiten dute ideia jakinen gainean, baina ondoren, ez dute fundamentuzko ezer egiten egoerari buelta ematen laguntzeko.

"IKUSPUNTU GUZTIAK AZTERTU OSTEAN, NIRE IDEIAK ERATZEN DITUT; EZ DUT ERREFERENTERIK"



E28a dela-eta ekintza ugari bailaran

Ostadarraren koloreek eta LGTBQ+ komunitatearen aldarriek Debagoieneko herriak hartu zituzten Sexu Askapenaren Nazioarteko Egunean.

Arrasaten elkarretaratze jendetsua egin zuten, plazan, *Identitate (des)konfinatuak* lelopean, eta ondoren, E28ko lantaldeak antolatuta, gorputzak astindu zituzten Yogurinha Borova eta Lady Gaga artisten erriemora.

Aretxabaletan gazte mugimendua izan zen performancea egin zuena, eta arratsaldean, marrazki kolektiboa, elkarretaratzea eta desfile koloretsua ere egin zituzten.

Bergaran, Harrotasuna taldeak eta Udalak hainbat ekintza egin zituzten; besteak beste, herritarren testigantza batzea.

Bestetik, Oñatin ere sare feministako kideek Antixena parkeko postean ortzadarraren koloreekin margotu zituzten.

Udaletan, babesa

Bergarako, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek adierazpen instituzionalak onartu dituzte.

LGTBQ+ kolektiboko pertsonen "eskubideak aldarrikatzea" eta "errespetua eta bizikidetzat anitza sustatzea" barnebiltzen dute adierazpen horiek.

Oñati gestio heziketa

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

2020-2021

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Matrikulazioa

Uztailaren 13tik 17ra



Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

MGEP

- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmhz
onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683



ZABALIK

XABIER ARREGI MURGIENDO

Izan bidea

Ez da makala Sare herri mugimenduak abian jarri duen *Izan Bidea*, *ibiltarien sarea* dinamika aktibatzaile berriaren erronka: gure herriko biztanle bakoitza ibiltari izatea Euskal Herriko biztanle-kopuruaren adina kilometro elkarrekin egiteko. Hiru milioi kilometro egiten hasiko den hiru milioi biztanleko herria xede bati begira: bidea egitea, euskal presoan, iheslarien eta deportatuaren etxerako bidea egitea, elkarbizitzarako eta bakerako bidea egitea.

Arrazoi ugari daude dinamika berria ulertzen eta bultzatzen laguntzen gaituztenak.

Hogeita hamar urte pasa dira, dagoeneko, euskal presoak sakabanatu eta etxetik urruntzeko ezarritako estrategia krudela hasi zenetik.

Badira zortzi urte ETak bere jardura armatua amaitu zuela, eta hiru urte talde bezala desegin zela.

Geroztik, hainbat ekimen burutu dira elkarbizitzaren eta bakearen aldeko eremu ezberdinetan.

Adostasunari eta aniztasunari begiratuz gero, azken urteetan egindako urratsak emankorrak izan direla esan daiteke.

Bi bide nagusi hauetan egin dira: salbuespeneko espetxe

IDEIA EDER BATI JARRAITUZ, TALDEKA EDO BANAN-BANAN, BAINA GUZTIOK NORABIDE BEREAN

politika amaitzea eta espetxe politika arruntari bidea ematea.

Testuinguru horretan jarri da martxan dinamika parte-hartzailea. Presoen eta iheslarien auziari irtenbidea aurkitzeko urrats sendoak egiteko, jendartearen ezinbesteko aktibazioan sakontzeko eta herri honen aniztasunaren eta zabaltasunaren indarrak batzeko ere. Bide honetan sakontzea du helburu dinamika. Euskal gizartearentzako onuragarria delako, herri oso batentzako onuragarria delako, animatu nahi zaituztegu bidea egitera. Ideia eder bati jarraituz, taldeka edo banan-banan, baina guztiok norabide berean bidea egitera, behin betiko eta erabateko bakea lortzeko.

Horregatik guztiagatik, izan zaitez zu zeu ere bidea eta, sentsibilitate ezberdinetako herritarrak batuz, elikatu ibiltarien sarea!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

ERTEn, ezinean

JOSEBA BARANDIARAN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Hegoaldean, Nafarroa nahiz EAetik, irten edo urten ezinda; azkoiti/azpeitiarrak EAetik erten ezinda. Eta horietan guztietan, asko... ERTEn, ezinean. 170.000 lagun, maiatz amaieran, aldi baterako lan erregulazio dosierretan; Hegoaldeko landunen ia %14. Langabeak aparte. Hori da panorama. .

Asko gaude Lapurdirako sarbideak uztailaren leian zabalduko diren esperantzian. Landetan erlaxatzeko edota errepublikatik datozenei pintxoak saltzeko kasu. Edo, beste barik, normaltasunetik

gertuago kokatzeko. Euskal-erdian, berriz, hauteskunde giroa: sanferminik gabeko uztailaren 12 batean. Ikuskizun, bizi izan dugun su honek bozken eltzeari nola eragin dion.

Kinielan 1, X edo 2: komunikabide gehien haizea alde duela, etxean jokatuz, egungo Jaurlaritza osatzen duen bikotea da 1: gol bat sartzea aski du, eserleku bakarrera duen gehiengo absolutuaren puntuak erdietsi eta bertan goxo egiteko; favoritoak. X: emaitzak errepikatzea. Ezkerreko omen diren hiru hautagaitzek 38 eserleku dituzte Gasteizen; jeltzaileen eta popularren baturak baino bat gehiago.

Emaitzak errepikatzea, gobernua errepikatzea litzateke, ordea. Eta Iturgaitzen arrakasta itzela ere bai. 2: ezustekoa. Bozetan aldaketa handia edo txikia izan, gobernu osaketan emaitza ezberdina leharkeena. Apustuzaleen ere sos askorik ez lukete horretan jarriko.

Askok ez du bozka emateko ohiturarik.

Txankleta eta krema usainean, are gutxiago. Jende bertsua, gauza bertsuak eginez... emaitza bertsua izan behar. Baina eguzkia ere ez omen da lehengo bera: krematan igurtzi, erre -edo ERTE- baino lehen. Gero ezinean ez ibiltzeko.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza,
Maite Igartua.

Publikitate

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIKITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

EH Bildu Abertzalea edo Aberatsa

JOSE MARI AGIRRE URZELAI

OÑATI

COVID-19 pandemiak ekarri digun ziurgabetasun ekonomikoaren aurrean eta, dagoeneko, geure artean daukagun krisiaren aurrean, asko dira Euskal Herri langilearen aldeko aldarria egiten dutenak. Horien artean, leku nabarmena du Oskar Matutek. 2012tik, EH Bilduko legebiltzarkidea da. Ez omen du jardun inongo enpresatan, ez bere kontura, ez besteren kontura. Ez du kooperatibista edo autonomo gisa lan egin. Ez da aritu Osasungintzan edo Hezkuntzan. Antzera Arkaitz Rodriguez ere, Sortuko idazkari nagusia bera eta laugarrena Gipuzkoako zerrendetan. Horieta inork ez daki zer den enplegu-erregulazioko espedientearekin bizi izatea, ordu batzuk zorretan izatea lantokian, kooperatibaz aldatu behar izatea, soldata %15 edo gehiago murriztu behar izatea. Ez, beraiek hitz egiten dute; sarriegitan, bizi izan ez dituzten egoerez hitz egiten dute. Baina, noski, Ezker Aberats berria dira. Herri langilearen abangoardia dira, baina inoiz ez dute benetan lanik egin.

Antzera gertatzen da Otegirekin ere. Ia ez dakigu ezer haren inguruan. Ez dakigu EH Bilduren koordinatzaile-lanetan zenbat irabazten duen ere. Badakigu kartzelan egon zela euskal herrikide baten bahiketan parte hartzeagatik. Ez dirudi oso abertzalea. Eta Maddalen Iriarte, zer? Ia 30 urte EITBn, euskal herritar guztien zergekin ordaindutako enpresa publikoan. Ezker Aberats berria. Bere mezuetan, hizpide ditu gardentasuna, konpromisoa, irtenbide eraikitzaileak. Hitz politikak dira, baina etxeokoez izan beharko lukete eredu lehenengo. Galdetu dezala non egon zen Otegi Euskal Herriak, aurrera egiteko, gogor lan egin zuenean eta

Osakidetza, EITB eta beste hainbat ekimen eta egitasmo gauzatu zirenean. Non egon ziren Euskal Herriko industria eta kooperatibak eraldatu zirenean.

Zer etorkizun dago Matuteren eta Rodriguezen adibideetan? Eta Maddalen Iriarte, zer? Prest? Zertarako? Besteei eskatuz bere ingurukoei eskatzeko gai ez dena. Adibide ederria, gero! Hori bai dela eraikitzailea izatea. Ezker Aberatsa.

Aintzane Oiarbideri: proiektu sostengarrien alde

XABI MONDRAGON ETXANIZ

UDALAITZ BIZIRIK TALDEAREN IZENEAN
ARRASATE

Merkatuak inposatu diguten *buffet librea*-k natura suntsitzera, balio-krisira eta zementuaren diktadura honetara ekarri gaitu, Oiarbide anderea.

Enpresa publiko-pribatu batzuek dirulaguntzak eta irabaziak izango dituzte, guztiona den ondare naturala suntsituz, baina honek gure inguruko ekosistema eta osasuna kolpatuko du, indefentsioan, sumisioan eta desinformaturik gauden herritarrek kontuan hartu eta hauek babesteko neurri, protokolo edo kompetentziarik hartzen ez dituzuela.

Iraunkortasunean oinarritzen den norabide bat hartu behar da, eta ez hitz hutsak, ezta betetzen ez diren promesak.

Zaldibarko zaborteziarena arazo larria da; seguru gaude *euskal y*-ak zeharkatzen dituen herri gehienetan errepikatu daitekeela.

Debagoienean, bederen Antzuolan, urteak dabiltza errepide mozketekin, eta orain, autobidean ordainsaria jarriko dute... Bergaran, Angiozarren hasi dituzte *euskal y*-a osatzeko tunelak eta zaborteziak egiten, kamioien garraioa... Gatzagako eta Arlabango errepideak oso egoera txarrean daude... Arrasaten, Kanpazar harrobia barne

meategi bihurtzeko bi kilometroko zulaketak egiten ari dira, errekan eta lurtean dituen eragin negatiboak oso nabariak direla. Elorrioren, Bostiturrieta eta Abola errekek sikatu dituzte... Aramaion, *euskal y*-aren makroestruturan 10 kilometroko bitubo tunelak egin dituzte biotopo babestuan, Elgeta inguruko pinuen azidifikazio-arazoa...

Ongizatearen eta tolerantziaren defendatzaile bazara, Baskongaden gobernuko parte, ez infantilizatu herritarrek zure artikuluekin.

Proiektu asko arriskutsuak dira osasunarendako: Zubietako erraustegiaren CO2 eta metano emisioak, *fracking*-a, 5G antenak... Herriaren zati bat seduzituko duzue -Nafarroa barne-, baina besteak ez du Aberria baztertuko.

Hurrengo belaunaldiei utziko diegun herentziari buruz hausnartze lan sakona egin behar dugu. Arazo handiei irteera orekatuak eta naturarekiko errespetagarriak emateko, balioak eta printzipioak behar dira, zuk ez dituzunak.

Segurtasun eta ardurarik gabe egiten dituzue lan ugari, eta honen aurrean herritarrok defendatuko gaituen plan integral bat behar da, naturak ez baitu hipokrisiaz ulertzen.

Pantailarik gabeko haurrak

PATXI MONTERO

ELGETA

Debagoieneko bi familia gara -momentuz-. 6 eta 10 urteko bi alaba ditugu. Ez dugu nahi gure haurrak hazi daitezen smartphone eta pantailei begira, are gutxiago hauei lotuta. Ez dugu gustuko gaur egun gure inguruan orokortzen ari den eredu, smartphoneen eta pantailen bueltan. Eredu horretatik ihesi goaz. Bestelako harreman eta haziera-eredua jarraitzen dugu.

Bilatzen ari gara harremanak Debagoieneko

edo inguruko beste familia batzuekin, aukera hori hautatu dutenak. Gure artean eta gure haurren artean harreman ona sortzen bada, elkarrekin bidea errazteko.

Hauek dira gure jokabideak:

-Gurasook gure haurrekin, elkarrekin gaudenean, elkarrekin gaude.

-Gure haurrekin gaudenean, telefonoak ez ditugu eskuan, ez ditugu sarri begiratzen hots bakoitzari jaramon eginez...

-Ez ditugu telefono edo tabletak -pantailak- erabiltzen haurrak entretentzeko, edo isilik eta geldi egon daitezten.

-Oro har, zentzuz erabiltzen ditugu telefonoak eta pantailak. Ez gaude *lotuta*.

-Haurren arteko harremanetan bilatzen dugu: aurrez aurreko harremanak bizitza errealean, jolasa, jolas librea, natura, elkar-errespetua, lasaitasuna.

-Beste hau ere inportantea da guretzat: ez dugu erabiltzen *txutxe*-rik - azukredun goxoki eta edariak...-. Ahalik eta gutxien nahi genituzke gure artean, hobe bat ere ez.

Ba al dago inor hortik?

Sentsibilitate honekin baldin bazatoz eta halako harreman dinamiken bila baldin bazaude, deitu: 943 78 90 70 edo 675 94 46 09.

Arrasateko haurrek ez dute ohiko euskarazko udaleku eskaintzarik izango; zergatik?

IAKES MADINABEITIA MARKULETA,
ION BELTZA IGOA, IZARO URIARTE
AZPIAZU, MAIDER ARREGI SAMPEDRO,
NAHIARA ODRIUZOLA LOPEZ ETA LUR
SANPEDRO RUIZ DE ALEGRIA

BESTE HAINBAT GURASOREN IZENEAN
ARRASATE

Aurten Arrasaten ez da ohiko udalekurik egongo. 2020ko uztailean, azken 32 urteetan Txatxilipurdik modu hezitzaile eta profesionalean antolatuta dituen udalekuek ez dituzte orain arte bezala gure kaleak euskara, jolas, kantu, eta alaitasunez beteko.

Agerikoa da COVID-19aren krisi honek gauza asko aldatu dituela. Ondorio eta kalte nabarmenak sortu dituenik ezin dugu ukatu. Alabaina, badira aste batzuk egoera berri batera egokitzeke.

Txatxilipurdik Arrasateko Udalari proposamena luzatu zion. Ardura osoa elkarrekin hartu beharrean, egoeraren ezaugarriak kontuan hartuta, aisialdi eskaintza publiko bat osatzeko planteamendua. Arrasateko Udalak, ordea, ez du 3-12 urte bitarteko haurrentzako eskaintza osatzeko proposamenik egin.

Badakigu herri ezberdinetan, ardura publikotik, alternatibak bilatu direla; ez da hori Arrasateko kasua.

Arrasateko Udalak haurrak ahaztu ditu, haurtzaroaren aldeko politika publikoek inoiz baino garrantzitsuagoak izan beharko luketen honetan. Badirudi familiak, eta batez ere haurrak, hirugarren mailakoak direla. Izan daitezela haurrak ur-parke berriaren zinta moztuko dutenak, baina hiru hamarkadatan zehar Arrasaten uztailean egon den egitasmo garrantzitsuenak, krisi momentu batean, ez dauka babesik, ez dauka elkarlanerako aukerarik. Gure ezinegona plazaratu nahi dugu Udalak haurren aisialdiarekiko erakutsi duen interes faltagatik eta herriarentzat hain garrantzitsua den gai honekiko erakutsitako utzikeriagatik.

Txatxilipurdik, enegarrenez, oztopoen gainetik bere burua berrasmatu eta uztaileko haur eta familientzako aisialdi eskaintza plazaratu du, haurtzaroaren beharrei bertatik bertara erantzunez.

Idatzi honen atzean gauden guraso eta senideok, eta ziur gaude beste herritar askok ere, Txatxilipurdira gure eskerrik onena adierazi nahi diogu hartutako arduragatik, egindako ahaleginagatik eta beharrei errealitatetik erantzuteagatik.

Igerilekua irekita, 500 laguneko bi txandarekin

Eguaztenean ireki zuten Musakolako kiroldegiko kanpoko igerilekua. Alarma egoera indarrean ez dagoela baliatuz, egunean bi txanda nagusi ezarri dituzte –11:00-15:00 eta 16:00-20:30– eta txanda bakoitzean 250 lagun ordez 500 lagun egongo dira

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasateko Udalak ekaina hasieran eman zuen Musakolako kiroldegia erabilerari buruzko xehetasunak, baina, alarma egoera amaituta, baldintzak aldatu egin dira.

Txanda gutxiago, jende gehiago

Duela aste batzuk, egunean hiru txanda egongo zirela iragarri zuten, non asko jota 250 lagun egon ahal ziren. Horrez ordez, goiz osoko eta arratsalde osoko txandetan antolatu dute igerilekuen erabilera. Goizeko txanda 11:00etatik 15:00etara bitartean izango da, 15:00etatik 16:00etara desinfekzio lanak egingo dituzte, eta ostean, arratsaldeko txanda hasiko da, 16:00etatik 20:30era. Bi txanda horiez gain, goizeko lehen ordua igerilarientzako mantenduko dute, 09:30etik 10:30era. 32 pertsona aritu ahalko dira, asko jota, hamasei kaletan banatuta.

Bi egunean behin

Igerilekua erabiltzeko egun kopurua ere aldatu egin da: edukiera areagotzearekin batera, herritarrek astean lau egunetan –egun bat bai, hurrengoa ez– erabili ahal izango dute igerilekua. Beraz, ezin izango da bi egunez jarraian igerilekura joan.



Eguaztenean ez zuen giro onik egin eta jende gutxi aritu zen igerilekuan. X. GOROSTIDI

Txanda hartzea, beharrezko

Aldez aurretik txanda eskatzeak ezinbesteko izaten jarraituko du, eta soilik bazkideak eta abonatuak joan ahalko dira. Hala, eguneko sarrera solterik ez dute salduko.

Muskulazio gimnasioa

Eguaztenean zabaldu zuten muskulazio gimnasioa, nahiz eta mankuernak eta pisuak ezingo diren erabili. Kasu honetan, orduko hiru pertsonak izango dute gela erabiltzeko aukera eta txanda hartzea ezinbestekoa

izango da. Goizeko txanda 09:00etatik 15:00etara bitartean izango da, 16:00etatik 20:30era bitartean arratsaldekoa, eta 15:00etatik 16:00etara desinfekzio lanak egingo dituzte.

Esker mezua eta konpromisoa

"Ekainaren 15ean ireki genuenetik, jendearen jarrera txalotzekoa izan da. Higiene eta segurtasun neurriak bermatzeko lanean dihardugu Udaletik, eta herritarrei bide horretan beren alea jartzeko jarraitzeko eskatzen diegu", azaldu dute Udaletik.



Gune bakoitzak sarrera bat

Igerilekuko berdegunea lau gunetan dago banatuta: berdea, arrosa, horia eta laranja. Txanda aukeratzekoan, berdeguneko gunea ere aukeratu beharko da. Hala, igerilekura sartzeko gune bakoitzak sarbide propioa izango du.

Abonamenduak eta gomendioak

Igerilekua eta kiroldegia abonatuak bakarrik erabili dezakete. Abonurik ez dutenentzat, hauek dira eskura dauden aukerak.

Hilabeteko abonamendua

- 18 urtetik beherakoak 12,10 euro.
- 18 urtetik gorakoak 20,20 euro.
- Familia abonamendua 32,20 euro.

Udako abonamendua: uztailetik irailaren 15era

- 18 urtetik beherakoak 41,70 euro.
- 18 urtetik gorakoak 70,10 euro.
- Familia abonamendua 112 euro.

Igerilekuan kontuan edukitzekoak

- Gune berdean ezin izango da korrikarik egin, ezta jolastu ere.
- Aldagelak, takilak eta kioskoa ez dira erabilgarri egongo.

Gomendio orokorrak

- Bi metroko distantziak mantendu erabiltzaileen artean.
- Ez da gomendagarria igogailua erabiltzea.
- Harrerako iturria eta janari-makinak ez dira erabilgarri egongo.

Azken eguna, gaur, Udaixe programan parte hartzeko

Gazte txokoen bitartez, 12 eta 17 urte arteko gazteentzako egitaraua prestatu dute Txatxilipurdik eta Udalak

X.G. ARRASATE

Aurtengo Udaixe berezia izango da: gaztetxokoetako lantalde guztia martxan egongo da eta auzoetatik abiatuta denetariko ekintzak gauzatuko dira. 12 eta 17 urte bitartekoei zuzenduta

egongo da, LH-6 barne. Izena emateko formulario bat bete behar da eta ez da ezer ordaindu beharko. Izena emateko azken eguna gaur izan arren, plazarik geldituz gero uztailean zehar apuntatu ahalko da.

Hala, askotariko ekintzak eta abenturak izango dituzte zain herriko nerabeek. Horien artean daude, besteak beste, *txilling* afariak, herriko kobazuloetara bisitak, gazte gaubeilak, urban dance ikastaroa, sexu kontsultategia, Usakora irteera bizikletaz, Urkulun egingo den Konkis-akanpada eta pelikula emanaldiak.

Gogoratu behar da partaide bakoitzaren ardura izango dela musukoa eroatea eta tenperatura aurrez hartzea.

Uztaileko arratsaldeak euskaraz gozatzeko, Freskura programa

Txatxilipurdik prest du euskarazko aisialdia bultzatzeko programa, beste urte batez. Azken urteetan, Musakolako igerilekuan jarri dituzte euskarazko egunkariak, aldizkariak, mahai-jolasak eta liburuak, baina COVID-19ak eragindako testuingurua dela-eta Monterronen egingo dute aurten. Uztailearen 1etik 29ra, 17:00etatik 20:00etara eman-

go dute zerbitzua, adin guztietako herritarrentzako materiala eskainita.

"Txatxilipurdi Elkartetik, COVID-19a dela-eta indarrean dauden osasun neurri guztiak bermatzen saiatuko gara. Hala ere, parte hartzaile ororen konpromisoa beharrezkoa izango da neurri hauek guztiak osotasunean bermatu ahal izateko. Guk jarritako neurriak bete ezean, guraso edo tutore legalen erantzukizuna izango da", azaldu dute antolatzaileek.



Arano Garcia senideak. INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA

Gerra garaiko iheslarien zerrenda osatuz doaz

Intxorta 1937 Kultur Elkarteak 500 iheslari arrasatear identifikatzea lortu du jada, baina deialdia zabaldu gura du, "zerrenda osatzen joateko"; bestalde, urriaren 4an, gerrako haurrak omenduko dituzte Elgetan, osasun egoerak ahalbidetzen badu

Eneko Azurmendi ARRASATE

Duela urte eta erdi aurkeztu zuen kultura elkarteak *Memoria partekatu baterantz. Arrasate 1936-1956. Gerra, Erresistentzia eta Frankismoa* liburua. "Horren harira, irakurle batek galdegin zigun ea bagenekien zer gertatu zen, Nicolas Uriarte alkateak emandako datuen arabera, frankismoarengandik ihesi euren etxeak utzi behar izan zituzten 2.000 herritar haiekin", azaldu du Juan Ramon Garai elkarteak. Eta hariari tiraka hasi ziren. "Jakín bagenekien 500dik gora batailoietara joan zirela borrokara eta hauetatik 107 gerra ekintzetan hil zirela. Beste 300 atxilotu egin zituzten eta urte luzeak eman zituzten espetxean edo esklabo lanak egiten. Azkenik, 55, Frantziara ihes egitea lortu ondoren, Kataluniarantz itzuli ziren borrokatzera, eta han atxilotu eta Gurs edo Olorongo kontzentrazio-eremuetara eramán zituzten", nabarmendu du elkarteak kideak.

Pertsona zibilen zerrenda

Orain arte, miliziano eta gudarri ibili zirenak bakarrik zituzten identifikatuta, Garaik azaldu duenez, baina orain, erbestera ihes egin zuten pertsona zibilen zerrenda osatzen hasi dira. "Dagoeneko 500 ditugu identifikatuta. Herritarrek deika ari zaizkigu, senide edo ingurukoak zerrendan ez daudela esanez, eta informazioa osatzen goaz. Garai hartako argazki batzuk ere jasotzen ari gara".

Herritarrei laguntza eske

Identifikatuta dituzten 500 herritarrek, halaber, erbestera egin behar izan zuten ihes: Frantziara, Kataluniarantz, Belgikara, Ingalaterrara, Argentina-

IHESLARIEN GAINKO INFORMAZIOA EDUKIZ GERO EURENGANA JOTZEKO ESKATU DUTE ELKARTETIK

ra, Txilera eta Errusiara, esaterako. "Haur batzuek euren familiarekin batera egin zuten ihes. Beste batzuek, ordea, bakarrik joan behar izan zuten erbestera eta horrek euren senideei buruz denbora luze ezer ez jakitea ekarri zien". Hala, 0 eta 17 urte bitarteko 280 adin txikiko zenbatu dituzte eta horietatik 38 erbestean jaiotak dira. Hala ere, batzuk identifikatu gabe dituzte oraindik. "Daukagun informazioa da, esaterako, ama bat lau seme-alabekin zegoela, eta adina. Baina ez dugu inon aurkitzen izenik". Beraz, herritarrei laguntza eskatu diete zerrenda osatzen joateko.

Omenaldia, urriaren 4an

Gerrako haurrei omenaldia egiteko asmoa daukate urriaren 4an Elgetan, baina egoerak baldintzatuko du hori ere. "Izan ere, omendu behar ditugun guztiak adinez nagusiak dira, arrisku taldekoak. Ea urriaren zein den osasun egoera", dio Garaik.

GORA ETA BEHERA



ARRASATEAR BAT

Elbarriendako aparkalekuen arazoa



Herritar bat kexu da Arimazubin elbarriendako aparkalekuak "gaizki gestionatuta" daudelako. "Aparkaleku gutxiegi daude hor, eta lekua partekatu egin behar izaten dute erabiltzaileek".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

Adinaren poderioz

20rekin sentitzen nintzen libreen eta 40rekin optimoen. 30etik aurrera pentsatzen duzu: ez daukat galtzeko denborarik, hitz-aspertu edo ezer gutxi aportatzen didatenak saihestuko ditut. Nik beta aprobetxatu gura dut, darabilzu buruan burrunbaka. Paraleloan, 20ak berriro bizitzeko grina sortzen zaizu, berriz biziko ez dituzula konturatzearekin batera edo, eta ahaleginak ere egingo dituzu...

50ak atean, ez dagokizun tokira ez joatea erabakitzea dagokizu. Eta konturatzen zara aprobetxatzeko modu goxoen ezer ez egitea dela. Hau da, hain preziatua zenuena, orain, zertan pasa planifikatzen ez duzu tenorerik galdu nahi.

Eta astia da lasaigarria, begirada lausoarekin bizitzea ingurunea. Heldutasunetik eta arritmiatik. Eta zorientasuna baloratzen duzu. Zure osasuna eta inguruko maitasuna. Eta gaurko belaunaldien borroka geurea ere bada. Haiei bidea eman eta bultza egingo dugu, adinak ematen duen boterea egoki erabiliz gero. Denbora laburtu ahala ez duzu presarik ezertarako... Etxeko-lanak eginak dituenaren antzera.

ion ELEKTRIZITATEA

Mantentze lan integralak
Konponketa txikiak eta handiak
24 orduko zerbitzua

658 99 59 12

Deitu!!!

Zerutik gertuen dagoen Arrasateko baseliza

Erdi Aroan ohikoa zen mendien tontorrean baselizak egotea, eta Udalatzeko tontorpean dagoena da horren erakusle; Garibairen testuetan azaltzen den legez, 'Gure Jaunaren Igotxak' izena du 1.000 metrotik gora eraikitako baseliza abandonatuak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Erdi Aroko katedralak ahalik eta altuen egiten zituzten zeruetako Jainkoarengana heltzeko, baina ez ziren zerutik gertu zeuden gurtza-gune bakarrak. Sasoi hartan, ugariak ziren mendi tontorretako baselizak, eta gaur egun horietako askoren arrastorik ez izan arren, Arrasaten badago adibide garbi bat: Udalatzeko tontorraren babespean dagoen baseliza.

Garibairen testuetan

Jose Mari Velez de Mendizabal historialariak baselizari buruzko erreferentziak aurkitu zituen Esteban Garibaik XVI. mendean idatzitako testuetan. "Baseliza noizkoa den zehatz jakitzea ia ezinezkoa da, baina XVI. mendean horri buruzko erreferentziak egin zituen Garibaik. Haren arabera, eremitak bizi ziren bertan; elizgizonak izan zitezkeen, edo ez, eta, horiez gain, letretan adituak ziren pertsonak ere aritzen ziren han".

Baselizak 1771. urtean itxi zituen ateak, Arrasateko Udalak hala erabakita, baina erabilpen baxuarekin zeraman ia bi mende. "Garibaik horri buruz idatzi zuenean, jada ez zen askorik erabiltzen. Calahorrako Elizbarrutiko bisitatzailleak gurtza-



Harriz egindako baselizaren arrastoak, atzean Anbotoko parajeak dituela. X. GOROSTIDI

lekutik gurtza-lekura aritzen ziren garai hartan: erritoak ongi mantentzen ziren aztertzen, gurtza-guneen egoera eta erabilpen maila ikuskatzen... Bada, horietako batek Udalatzeko baseliza bisitatu zuen, eta argi utzi zuen egoera kaxkarrean zegoela. Udalaren ekarpenekin eta limosnekin hura konpondu behar zela ere esan zuen, baina ez zen hala izan. XVIII. mendeko erdialdera arte egin zituzten elizkizunak bertan, eta 1771. urtean itxi zituen ateak; hortik hona, degradazioa etengabea izan da".

Kanpanzar izenaren kondaira

Kondaira batek dio baselizaren kanpaiak ematen diotela izena Kanpanzarri. "Baselizako kanpaiak Kanpanzar aldera jausi ei ziren, bertan dagoen amildegitik. Hala, *kanpai zahar* hitz jokotik ei dator Kanpanzarren toponimia". Kondairekin jarraituz, Anton Telleria ikerlariak adierazi zuen Udalatzeko tontorrean gaztelu bat zegoela, eta hura jaustean, haren harriak erabili zituztela baseliza egiteko. "Ez dut halakorik sekula entzun", dio Velez de Mendizabalek.

Serge bakarlaría Gaztelupeko ikasleen galderen jo-puntuan

'Galdegazte' saioan arituko da gonbidatu, eta uztailaren 7an emitituko da, 21:30ean, Goiena telebistan


X.G. ARRASATE

Asier Altuna *Kixi* zinegilea elkarrizketatu ostean, aurrera bidean jarraitzen du *Galdegazte* saioaren bosgarren edizioak. Pandemiaren eraginek ez dute saioa gelditzerik lortu, eta, teknologiak eskaintzen dituen abantailak baliatuz, ikasleen galdera telematikoa erantzunez grabatu dituzte azken saioak.

Zinetik musikara

Hurrengo saioan, musika kontuak hartuko dituzte hizpide. Hala, Arizmendi ikastolako Gaztelupe Guneko ikasleek Serge musikaria elkarrizketatu dute, alarma egoeran grabatutako saio berezian.

Serge eta saioko aurkezle Jokin Bereziartua Goiena telebistako platoon, eta Araitx Girado, Mikel Aranburuzabala eta Alex Altuna ikasleek telematikoki



Serge, Goiena telebistan platoon. GOIENA

egin zuten elkarrizketa. Saioaren amaieran, gainera, abesti bat jo zuen Sergek.

Emisioa, uztailaren 7an

Aipatutako saioa martitzenean, uztailaren 7an, emitituko da, 21:30ean, Goiena telebistan.

Uztaileko ekintza dinamizatuak hasiko ditugu astelehenean

Goiena komunitatea

Txatxilipurdi / ARRASATE

Asteleheneetik asteazkenea gune hauetan arituko gara, 11:00etatik 13:00etara. Lehen gunea Astoaren parkean ezarriko dugu –euriarekin, Aldain–; bigarrena, Txetaan –euriarekin, Aprendices kale inguruan–; hirugarrena, Monterronen –euriarekin, Gazteluondoko beheko frontoian–,

laugarrena, Santa Barbaran –euriarekin, Gazteluondoko goiko frontoian–; eta bosgarrena, Usaetxe plazan –euriarekin ere bertan–. Uztailearen 9an talde guztiak Monterronen arituko dira, baina bakoitza bere aldetik –eguraldi txarrarekin, Gazteluondoko goiko frontoian–.

Gogoratu ekintzak doakoak direla, eta ez dela alde aurretik izenik eman behar. Taldeko 15 lagun arituko dira, gehienez, eta segurtasun neurriak betetzeko ardura guztiona izango da.

Aterpetxe bat egiteko proiektua

1928an, baseliza berritzeko proiektu bat egin zuten. "Juan Carlos Guerraren semea arkitektoa zen; besteak beste, Donostiako Aquariuma diseinatzeko egin zuen lan. Gipuzkoako Mendizale Federazioarekin elkarlanean, baseliza zegoen tokian aterpetxe bat egiteko proiektua idatzi zuen, kanpoko egituraren jatorrizko itxura mantenduz".



1930ean, lagun talde bat, baselizan. JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL

OHARRAK

Arrasate Pilota Taldea

Zabalik dute izen ematea ikasturte berrira begira. 2014an edo aurretik jaiotakoek har dezakete parte. Izena emateko, www.orduguztietan.eu webgunera jo, eta, informazio gehigarriarako, deitu 677 66 85 93 telefonora.

'Arrasate Monumentala' ibilbide gidatua

Historiaurretik aro garaikidera arteko Arrasateko bitxitasunak eta gertakariak jakiteko ibilbide gidatua antolatu du Udalak zaturako. Hitzordua, Herriko Plazan, 11:00etan.

Garaia Parke Teknologikoan, saio praktikoa

Lidergoari buruz jardungo du Jorge Alconerok, hilaren 7an.

Paco Armengou, futbol munduan *Mondragon* ezizenez ezaguna zena, gaztetan. HOTS BEGI DANBOLINAK

Negozioetarako gaitasun berezia zuen futbolaria

1906ko otsailaren 2an jaio zen Paco Armengou, Arrasaten, eta herriko futbol taldean lehen urratsak egin ostean, gerora Espainiako hainbat taldetan ere aritu izan zen, 'Mondragon' ezizenarekin; era berean, negozio gizona ere izan zen, enbaxadore

Eneko Azurmendi ARRASATE

Arrasateko taldean hasi zuen bere futbol jokalaria ibilbidea, baina, soldadutzagatik, Galiziarra joan behar izan zuen, eta Ferrolgo Racing taldeak fitxatu zuen. Ondoren, Mediterraneo-rantz joan zen eta hainbat taldetan jokatu izan zuen: Murtzian, Mulan, Cartagenan, eta abar. Frantzian ere jokatu izan zuen,

Bordelen, eta, azkenik, Arrasatera itzuli zen", azaldu du Oscar Armengouk, bilobak.

Real Madrilekin jokatzeko aukera ere izan zuen. "Amerikan bira bat egin zuen Real Madrileko elastikoa jantzita. Titular moduan ondo geratzen da hori, baina, egiari zor, ez zuen lehen taldearekin jokatu. Bira horiek jokalariai aukeratzeko bakarrik

egiten zituen Madrilgo taldeak", nabarmendu du bilobak.

Haren esanetan, jokalaria indartsua zen, eta oso malgua. "Gomazko gizona zela ere esaten zioten. Pentsa, salto batean oinarekin langa ukitzen zuen. Atleta zen, eta teknikoki ere ondo moldatzen zen. Zelai erdian jokatzeko zuten". Halere, ez zuen arrakasta handirik lortzerik

izan Lehen Mailan. "Oso gizon konprometitua zen, eta jokatzeko zuten taldeekin lotura handia hartzen zuen, maila pertsonalean. Adibide bat jartzearen, Mula taldean, jokalaria izateaz gain, taldea ere entrenatu izan zuen".

Ibilbidea bukatzean, Sevillara

"Oso gizon dotorea" zen, "dibertigarria, sinpatikoa eta irekia". Era berean, langilea ere bazen, ekintzailea, eta Arrasateren esentzia berarekin eramaten zuen alde guztietara, *Mondragon* ezizenez baitzen ezaguna.

Futbol ibilbidea bukatu ostean, Sevillara joan zen bizitzera. "Burdindegia bat zeukan han, eta euskal enprekin lan egiten zuen, besteak beste, Arrasateko sarrailagileen ordezkari edo enbaxadore. Espainia mailan zituen negozioak, eta Marokora ere esportatu izan zuen materiala", dio bilobak.

Gazte hil zen, minbiziarekin

1955. urtean, 49 urte zituela, Sevillan hil zen, minbiziak jota. "Nire aitak 18 zituen orduan. Ikasketak utzi behar izan zituen, eta nire aitonaren hainbat bezerorengana jo, laguntza eske. Bezero horiek oso harreman ona zuten aitonarekin, eta, beraz, asko lagundu zioten nire aitari ere. Horien artean, Arrasateko Union Cerrajerara zegoen".

Familiak, Sevillan bizi arren, Arrasateretik harremana mantentzen du. "Aitak jarraipena eman zion aitona hasitako bideari, eta nik ere bai. Orain, Oñatiko Chinchurreta enpresako ordezkariarekin egiten dut lan eta urtean bi aldiz joaten naiz Debagoienara. Harro nago nire jatorriaz; Euskal Herriarekiko harremana mantentzen saiatzen naiz, lurralde ederra da eta".



Astelenean hasi zuten campusa. M.R.

Ointxe!-ren 'Stop&Go' campusa abian da, uztail bukaerara arte

Saskibaloi klubak astelenean hasi zuen *Stop&Go* campusa, segurtasun neurri guztiak hartuta, betiere, eta uztail bukaerara bitartean ariko dira, lau astez –aste bakarrenean ere eman daiteke izena–. Bi adin tarterti dago zuzenduta dago campusa: 2008 eta 2012. urte bitartean jaiotakoei eta 2007an edo aurretik jaiotakoei. Musakolan, Antxon eta Iturripen ariko dira.

Ane Agirrek utzi egingo du ARTko presidente kargua

Asteon egin du Ohiko Batzar Orokorra Arrasate Rugby Taldeak, online, eta Agirrek jakinarazi du ez duela jarraituko presidente. Oraingoan, Ramon Barrutia da haren lekukoa hartzeko hautagai bakarra. Klubaren diru-sarrerak 45.000 eurokoak izan dira 2019-2020 ekitaldian, eta gastuak ere beste horrenbestekoak.

Lehen urteak, etxeko taldean

Mondragon-ek Arrasaten hasi zuen futbol ibilbidea –argazkia Maalan da, lehen urteetan–. Bilobak dio azken urteak ere Arrasateko taldean egin zituela.

Informazio osatua, Interneten Jose Mari Velez de Mendizabal historialariaren *Hots Begi Danbolinak* blogean zabal jasota dago Paco Armengou *Mondragon*-en bizitza.



Armengou, Mondragonekin. Ezkerretik hasita, laugarrena. HOTS BEGI DANBOLINAK

eya
ALTZARIAK

SUKALDERAKO ETA ETXERAKO ALTZARIAK
DEKORAZIOA ETA OSAGARRIAK

DESKONTU HANDIAK
ERAKUSKETA ALDAKETAGATIK!

Ignacio Zuloaga 4 – Arrasate
Te.: 943 79 05 07
www.eyaaltzariak.com

Kultur ekintzen lehortea freskatzeko, Udazabal

Hamaika ikuskizunez osatutako egitaraua prest dago, non, besteak beste, Xabi Solano eta Gari musikariak arituko diren. Derrigorrezkoa izango da alde zurrerak hartzea –doakoak dira–, eta ekitaldi guztietan, gehienez, 250 lagun batuko dira

Xabi Gorostidi ARRASATE

Zuzeneko kultur ekitaldien lehortearen ondoren, egarri hori freskatzeko ahalegina egin du Udalak, martitzenean aurkeztutako Udazabal programari esker. "Maiatzean erabaki genuen, nola edo hala, herritarrentzako kultur programa bat osatzea. Baldintza oso zorrotzekin hasi ginen lanean, eta ostean, egoera leunduz joan da, baina lortu dugu kultur programa osatu bat aurkeztea", azaldu du Udaleko Kultura Saileko arduradun Jon Garaik.

Berritasun ugari

Aurtengo berritasun nagusia funtzionamendua bera da. Ekitaldi guztietan 250 aulki jarriko dituzte, eta ikusleek eskuak garbitu beharko dituzte gunera sartu aurretik. Ikuskizuna ikusertu joateko, ordea, beharrezkoa izango da alde zurrerak eskuratzea Amaia antzokian. Hauek doakoak izango dira, eta ordutegi honen barruan eskuratu ahalko dira: uztailaren 1etik 9ra, astelehenetik ostegunera, 18:00etatik 20:00etara. Aipatzea herritar bakoitzak ezingo dituela nahi beste sarrera eskuratu. Asko jota lau ikuskizunetara joateko sarrera eskuratu ahalko dira pertsonako.



Gari, Maldanbera taldearekin Ofiatin egindako kontzertuan. GOIENA

Hamaika ikuskizun

Hamaika ikuskizuneko egitaraua lotu dute Kultura Sailetik, non ia erdia musika ikuskizunak diren. Aurten, berritasun gisa, euskal eszenako puntako musikariak ekartzeaz gain, bertako musikari gazteei eurekin jotzeko aukera emango diete. Musika ikuskizun interesgarriak ere daude egitarauan. Musika ikuskizun ia gehienak aste bitartean egingo dira –eguztenetan, nagusiki– eta dantza eta antzerki ikuskizunak, asteburuetan.

Kokapen berriak

Azken urteetako joerarekin jarraituz, kultur emankizunak herriko auzo eta gunerietara zabalduko dituzte aurten ere. Guztira, zortzi gunerak ezarri dituzte eta hauek dira aurtengo berritasunak: Usaetxe plaza, Jokin Zaitegi plaza, Santa Teresa –eliza atzeko plaza– eta Cordoba y Oro plaza. "Aurten ere ahalegina egin dugu kultur ikuskizunak auzoetara zabaltzeko, eta emanaldi bana egingo dugu Musakolan, Erguinen eta San Andresen" azaldu du Garaik.

2020ko egitaraua

- **Uztailak 3, barikua**
Tio Teronen semeak taldearen *Festamendua* dantza ikuskizuna. Hitzordua: Jokin Zaitegi plaza, 20:00etan.
- **Uztailak 8, eguztena**
Xabi Solano Maiza & Dantzariak taldearen kontzertua. Aurretik, Idoia Asurmendi aramaioarrak joko du. Hitzordua: Usaetxe plaza, 19:30etan.
- **Uztailak 10, barikua**
Hutsun eta Orzi taldeen *Urbasa* ikuskizuna, musika eta zirkua uztartzen dituen. Hitzordua: Jokin Zaitegi plaza, 20:00etan.
- **Uztailak 15, eguztena**
Keu Agirretxea & Pablo Novoa bikotearen kontzertua. Aurretik, Leire Etxezarreta arrasatearrak joko du. Hitzordua: Jokin Zaitegi plaza, 20:00etan.
- **Uztailak 17, barikua**
Osa eta Mujika taldeen *Expektations will not kill you* eta Lasala taldearen *Fight* dantza ikuskizunak. Hitzordua: Zaldibar frontoian, 20:00etan.
- **Uztailak 22, eguztena**
La Furia rap kantariaren kontzertua. Aurretik, La Dupla taldea arituko da. Hitzordua: Cordoba y Oro plaza, 19:30ean.
- **Uztailak 24, barikua**
Trapu Zaharra taldearen *Turistrendo* antzerkia. Hitzordua: Seber Altube plaza, 20:00etan.
- **Uztailak 25, zapatua**
Kamerata Euskadivarius taldeak Beethovenen Seigarren Sinfoniako *Pastorala* joko du. Hitzordua: 19:30ean, Monterronen.
- **Uztailak 28, martitzena**
Swingtronics taldearen kontzertua. Aurretik, Nhil talde debagoiendarrak joko du. Hitzordua: Santa Teresan, elizaren atzealdeko plaza, 19:30ean.
- **Uztailak 29, eguztena**
Gari & Maldanbera taldearen kontzertua. Aurretik, Arrasaten bizi den Serge bakarlariak joko du. Hitzordua: 19:30ean, Monterronen.
- **Uztailak 30, eguztena**
Markeliñe konpainia zornotzarraren *Psike* gaueko antzerkia. Hitzordua: 22:30ean, Zaldibarren.

Oharrak:

- Sarrerak alde zurrerak eskuratzea beharrezkoa izango da.
- Doako sarrerak Amaia antzokiko leihatilan hartu beharko dira: uztailaren 1etik 9ra, astelehenetik ostegunera, 18:00-20:00.
- Ikuskizun bakoitzean, asko jota, 250 ikusle egongo dira.
- Herritar bakoitzak, asko jota, X ikuskizun ikusteko sarrerak hartuko ditu.
- Eguraldi txarrekin ikuskizunak Amaia Antzokira lekualdatuko dituzte, posible den kasuetan.

Bertako musikariek talentua erakusteko aukera

Azken urteetako kontzertuetan ez dute talde gonbidatuaren figura erabili, eta hori da, hain zuzen ere, 2020ko Udazabalen berrikuntzetako bat. "Orain arte, talde bakarra ekarri izan dugu, nahikoa zela pentsatuz. Baina bailaran badaude talentu handidun musikariak, eta horiek egitarauan sartu nahi izan ditugu, Euskal Herriko eszenako puntako musikariek batera. Aukera polita izango da euren lanak erakusteko", azaldu du Udaleko Kultur teknikari Karmelo Alberdik.

Lau izango dira, beraz, Udazabal programan joko duten bertako musikariak. Lehena, Idoia Asurmendi aramaioarra; Musikenen ikasten dabil, pianoa eta gitarra jotzen ditu eta ahots pribilegiatua dauka. Bigarrena Leire Etxezarreta arrasatearra da. Trikitixa Eskolan hazitako musikariak bikain jarduten du gitarra akustikoarekin eta kantatzen. Hirugarrena Nhil taldea da, Aretxabaletako eta Eskoriatzako musikariz osatuta dago. Eta laugarrena Arrasaten bizi den Serge bakarlaria izango da.



Asurmendi, Etxezarreta, Nhil eta Serge. FACEBOOK

Eguneroko errutinara itzuli dira erabiltzaileak

Eguneko zentroan %100ean hasi ziren lanean astelehenean; zortzi erabiltzaileak eta hiru langileak egunero elkartzen dira euren errutinak berreskuratzeko. Segurtasun neurri zorrotzak hartu beharko dituzte, eta, oraingoz, ezin izango dute bisitarik jaso

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Itxialdiaren ondoren, ekainaren 15ean zabaldu zituen berriro ere atea eguneko zentroak. Bi astez txandaka ibili dira lanean, %50ean; zortzi erabiltzailetatik lau txanda batean eta beste lau bestean. Baina, astelehenaz gozotik, berriro ere osotasunean daude lanean. Zortzi egoiliarrek eta hiru langileek dihardute orain dela hiru hilabete utzitako errutinak berreskuratzen.

Erabiltzaileen beharra

Erabiltzaileek pozik hartu dute talde guztia berriro ere elkartzea. "Errutinak berreskuratu eta eguna okupatuta izatea garrantzitsua da eurentzat", azaldu du zentroko langile Karmele Barrutiak.

Itxialdia gogorra egin zaiela dio: "Errutina apurte horrek zenbaiti desorientazioa eragin die, eta emozio mailan ere gogorra izan da". Hala, maila kognitiboan baxu zegoenari itxialdiak eragin dio gehiago jaistea. Horregatik, berriro ere elkartu, loturak berreskuratu, elkarrizketak... onuragarria dela eurentzako gaineratu du Barrutiak. Hilabete horietan, etxean, telebistan, ikusi duten albiste negatibo horiek guztiak onartzeko gaitasuna izan behar dela dio,



Eguneko zentroko erabiltzaileak psikomotrizitateko ekintzak egiten. K.L. KOOP.

eta, horregatik, eurak saiatu direla "alde positiboa erakusten eta itxaropena ematen".

Higienea zaintzea, ezinbestekoa
Egunerokoan hainbat aldaketa izango dituzte; segurtasuna bermatze aldera, batez ere, higie neurriak izango dira kontuan hartu beharko dituztenak. "Lehen, mahai bakarraren bueltan esertzen ginen; eta orain, lau mahai izango ditugu eta sakabanatuta egongo dira", dio Barrutiak. "Egoitzan egoteko, orain, beharrezkoa izango dute

etxean ibiltzeko oinetakoak izatea; paperezko mukizapiak erabili beharko ditugu; bakoitzak bere materiala izango du; eta, zerbait erabiltzen dutenean, puzzlea, esaterako, desinfektatu egin beharko da", gehitu du.

Bisitarik ez dute izango

Egungo egoera kontuan hartuta, ez dute bisitarik jasoko zentroko erabiltzaileek. Gainera, protokoloa zehaztuta dute norbait gaixotzen denerako. Eguneroko hartuko zaie tenperatura: bai langileei eta baita erabiltzaileei.



ASIER CASTELLANO

Asier Castellanoren lana, saritua

Orixok Mendizale Elkartek antolatutako *Mendizaletasuna eta natura* argazki lehiaketako irabazlea Asier Castellano da. Ganborralden gaua pasatuz egindako argazkia da. Herriko produktuekin osatutako otzara eta kirol ekipamenduan gastatzeko 50 euro irabazi ditu Castellanoak. Bigarren saria Eider Ballinak eskuratu du, Murun egindako argazkia batekin.

Iraileko 'Bertso abentura'-rako asteon eman beharko da izena

Gorbeialdeko Kuadrillak *Bertso abentura* antolatu du: irailaren 2an, 3an eta 4an egingo dute ekimena. Pazko astean egin ohi izan den bertso barnetegiaren ordezkioa izango da irailakoa. Udaleku irekietan moduan, ekin-tza ezberdinak egitea aurreikus-tzen dute: hiru herritan eta hiru egunetan. 10 eta 13 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekimena izango da. Aramaion, Legution eta Murgian egingo dute, 10:00etatik 13:00etara.

Ekintza doako izango da, baina aurrez eman beharko da izena, *Bertsozale.eus* atarian: uztailaren 10a izango da horretarako azken eguna. Autobus zerbitzua egongo da.

Oletako tabernaren ustiaketa esleitzeko prozedura hasi dute

Oletako kontzejuarena den Herriko Tabernaren ustiaketa eta errentamendua esleitzeko prozedura ireki dute. Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean ekainaren 29an argitaratu zen iragarkia; hala, eskaintzak aurkezteko epea 22 egun naturalekoa izango da. Eskaintzak Aramaio Udalean aurkeztu beharko dira.

Tabernaren oinarriko errentaren lizitazio oinarria 500 euro izango da eta horri erantsiko zaio kasuan kasuko BEZa. Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da eta beste bost urte luzatzeko aukera egongo da –urteka-. Euskara jakitea eta esperientzia baloratuko dira.

SAN MARTINAK ARAMAION

GOIENA TELEBISTA, HEMEN DEBAGOIENA SAIO BEREZIA
UZTAILAREN 6AN, ASTELEHENEAN, 18:00/20:00/22:00

goiena
20 URTE ZUEKIN.



Anbotoko Marik bisita birtuala egingo du gaur

Marik bideo bat bidali du jairik ez direla ospatuko azalduaz, eta hori herritarren artean zabalduko da gaur. Uztaileko kultur agendan, baina, zenbait ekitaldi iragarri dituzte astelehenerako: 20:30ean, Tio Teronen Semeak taldearen saioa, esaterako

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Azkeneko urteetan, Anbotoko Marik izaten du jaiei hasiera emateko ardura. Anbototik jaitsi eta Aramaio herriarrak jaiez gozatzera animatzen ditu. Ondo pasatzeko "baina pasatu gabe" gomendio eman eta bertsoa bota ondoren, festak eztanda egin izan du.

Aurten, ordea, ez da San Martin jairik egingo, eta, ondorioz, ez jaitsierarik, ezta txupinazorik ere. Hala ere, Marik emango du sorpresatxo: bideo bat bidali du, jairik ez dela ospatuko eta arduraz jokatzeko esanez. Osasun egoerak hala behartuta Udalak hartutako erabakia da: zaintzea tokatzen den garaian, jaiak datorren urtean ospatuko diren gogoarekin.

Eragile ezberdinen elkarlana

Gaur hasi eta astelehenera bitartean behar zuten San Martin jaiak; baina ekaineko lehenengo hamabostaldian hartu zuten Udalak jairik ez ospatzeko erabakia. Herritarren artean zabalduko inkestetako erantzunen, Udalak kultur taldeekin egindako bilerak emandakoaren eta egoera aztertu eta egindako gogoetaren ondorio izan da Udalak hartu duen erabakia. "Herriko gainerako eragileekin berba egin



2019ko jaietan, Anbotoko Mari udaletxeko balkoian. AITOR AGIRIANO

ondoren hartutako erabakia izan da", dio Ana Martiarena Kultur zinegotziak.

Izan ere, Aramaio Udalak inkesta bat prestatu zuen herritarrek euren usteak eta prestutasuna adieraz zitzaten eta jaiak egin edo ez, eta nola, erabakitzeko lagungarri izateko. Horrez gain, bi bilera egin zituzten, elkarrekin bat eta auzo alkaterekin bestea.

Sentsazio "arraroa"

Jaiak ez egitearen pena azaldu du Martiarena zinegotziak: "Gai-

nera, eguna gerturatzen doan heinean, pena handiagoa da". Azaldu du sekula gertatu ez den egoera dela, eta "sentsazio arraroa" duela gainean. "Hala ere, bazegoen kezka eta beldurra osasun egoeraren inguruan, eta erabakia lasaigarria eta ulergarria da", dio.

Jaiak egin edo ez erabakitzeko orduan herritarren artean banatutako inkesta 58 lagunek erantzun zuten. Udalak adierazi duenez, "gehiengo handi batek" uste du jaiak ez lirakeela ospatu beharko, nahiz eta horie-

tako askok uste duen ekintzaren bat, neurri guztiak hartuta, egin daitekeela. Jaietara bideratu behar zen dirua konfinamendu garaian itxita egon diren herriko negozioei laguntzeko erabilteza proposatu dute hainbatek.

Uztaileko kultur agenda

Jairik ez ospatzeko erabakiarekin batera, kultura agenda bat prestatzeko ardura hartu zuten Udalak eta taldeek. Helburua zenbait ekintza egitea da, denboran eta espazioan sakabanututa; auzoetan, bestek beste.

Uztail osorako prestatutako kultur agendaren barruan zenbait ekintza egingo dituzte astelehenean, uztailearen 6an.

Azkeneko urteetan ohiko bilakatu den jaioberrien ongietorria egingo dute, batetik. Hori izango da 20:00etan, plazan: "Azkeneko urtean jaiotakoak 10 ume dira. Ongietorria egingo zaie", dio Martiarena zinegotziak.

Ekitaldi horren ondoren, Tio Teronen Semeak dantza taldearen ikuskizuna hasiko da, 20:30ean. Jesarrita ikusteko emanaldia izango da: "Ikusleen arteko distantzia bermatuko da, arauak dioten bezala. Hori horrela, ez da derrigorra izango musukoa jantzita eramatea une oro; nahiz eta musukoa beti gainean eraman behar den".

Tio Teronen Semeak dantza taldeak euskal dantzak eta umorea nahasten ditu; izan ere, bi gauza horiek partekatzen dituzte: dantzatzeko pasioa eta umorea. Ikuskizun originala eta berritzailea da eskaintzen dutena. Euskal dantza tradizionalaren mundutik edan duten dantzariak dira taldeko kideak; guztira, 16 dantzari. Euren ekitaldiarekin, aramaioarrak dantzarako gogoz utziko dituzte.

Dantza ikuskizuna ez da izango asteleheneko ikuskizun bakarra. Kultur agendaren barruan, astelehenean, 12:30ean, etxeko txikienei zuzendutako antzerki saioa egingo dute.

Goienak zer egingo duen

Jairik ospatuko ez den arren, Goiena telebistak aramaioarrak egon gura du egun berezi hauetan. Hala, astelehenean, saio berezia eskainiko du Goienak Aramaioetik bertatik. *Hemen Debagoiena* berezia izango da, Miren Arregi kazetariak gidatutako duena.

Etxeetan jaietz beste modu baten gozatzeko modua izango da. Aramaioko sanmartinetan erreferentziatzeko diren ekitaldien nondik norakoak azalduko dituzte, eta jaietako saltsa guztietan sartuta egon ohi diren herritarrekin egoteko aukera izango du Arregik. Horrez gain, musikaz eta dantzaz gozatzeko aukera paregabea egingo da asteleheneko saio berezian.

Datorren urtean pentsatzen

Aurten pertsonen osasuna lehenetsita, datorren urtekoak emango duenaren esperoan geratu dira Aramaion: "Datorren urtean ere jaiak hor egongo dira. Gainera, gogo handiagoarekin hartuko ditugu", azaldu du Martiarena zinegotziak.

San Martin barik izan arren, aramaioarrak gaur Anboto aldera begira egongo dira, Marik ekarriko duen mezuaren zain.

ASTELEHENEKO DANTZA SAIOAN IKUSLEEN ARTEKO DISTANTZIA BERMATUKO DA



ITURRIETA
SAGARDOTEGIA
ARAMAIO

Arraga Auzoa 2, ARAMAIO
info@iturrieta.eus
www.iturrieta.eus
Tfnoa 685 72 15 93





Badaiotzeko neskek trontza erakustaldian. AITOR AGIRIANO



Badaiotz taldekoak sokatiran. AITOR AGIRIANO

Munduko onenak aurrez aurre ikusteko gogoz

Arabako Badaiotz taldeak herri kirol erakustaldia egin izan du San Martin jaietan; aurtan, gainera, Irlandan jokaturako Munduko Sokatira Txapelketatik bi dominarekin itzuli da taldea. Kirolariek "pena" dute ezin etortzeagatik; izan ere, "plaza ona" dela diote

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Orain dela hiru bat urte hasi ziren Badaiotz elkarteko kirolariak Aramaioko jaietako erakustaldia egiten. "Denboraldia bukatzen dugunean, erakustaldiak egiten ditugu. Ohikoena izaten da herritarren batek taldeko norbait ezagutzea eta haren bidez egitea eskaera", azaldu du Badaiotz taldeko kirolari Ruth Cayerok.

Badaiotz taldea sokatira taldea da; eta, gainera, horretan dira munduko onenak. Hala ere, sokatira denboraldia bukatu ostean, herri kirolak entrenatzen hasten dira. "Eskaintzen ditugu herri kirol mota asko; normalean, emakumeak ikustera ohituta ez

gauden jokamoldeak, gainera. Fardoak altxatzen ditugu, ingudea, trontza, lokotx-biltzea, sokatira...", dio Cayerok. Antolatzailuek ematen dieten denboraren arabera eta plazak berak dituen mugen arabera erabakitzen dute ze kirol mota eskaini.

Aramaio, plaza ona

Aramaioko jaietako domekan egiten dute erakustaldia, eta plaza jendez betetzen dela dio Cayerok: "Plaza jendez lepo betetzen da eta giro atsegina egotean da. Gainera, oso ondo tratatzen gaituzte Aramaion". Giro beroa eta atsegina egoten den plaza dela kontuan hartuta, Badaiotz taldeko kirolariak "penaz"

geratu dira aurtan erakustaldia egiteko aukerarik ez izateagatik. Nabarmendu du: "Aramaioarrek badakite guk zer egiten dugun eta horren zain egoten dira". Bizente Goikoetxea plazara irtetzen direnak, gainera, ez dira Badaiotz taldeko kirolariak bakarrik izaten. Herritarrek ere animatzen dira munduko onenen aurka egitera.

Herritarrekin "pikea"

Cayerok dio saiatzen direla kaleko jendeak erakustaldian parte har dezan: "Sokatira tiraldi bat egitera animatzen dugu jendea. Lehen urtean taldetxo bat batu genuen eta badakigu orain itxaroten egoten direla

gure aurka berriro ere egiteko. Giro atseginean egiten dugu tiraldia". Nabarmendu du kaleko oinetakoekin sokatira egitea "arriskutsua" ere izan daitekeela; eta "pikea" egoten dela talde bakoitzean zenbat pertsona jarri erabakitzerakoan. Normalean Badaiotz taldeko neskek izaten dira lehia horretan nagusi.

Irlandatik, dominekin

Aramaiora ez dira etorriko, eta beste herri batzuetako erakustaldiak ere bertan behera utzi dituztela dio, jairik ez delako egingo. Pena dute, aurtengo urtea oso ondo hasi zutelako: "Irlandako Letterkenny herrian jokaturako Munduko Sokatira Txapelketan oso emaitza onak lortu genituen. Pozik gaude, dena ondo atera zelako; izan ere, gerta daiteke oso ondo prestatuta joatea eta ezer ez irabaztea".

540 kiloko mailan, Beti Gazte talde nafarrari irabazi zion finala Badaiotzek; eta 500 kiloko mailan, Taiwango Jingmeiri: "Nabarmendu behar da Taiwango taldeari irabazi dion elkarte bakarra garena. Profesionalak dira, sokatiran kontzentratuta bizi dira".

Etxeko sukaldean egin beharko dituzte tortillak

lazko txapeldun Aimar Arriolabengoak tortilla goxoak prestatzeko sekretua azaldu du

A.E.G. ARAMAIO

Jaietako ohiko hitzordu horietako bat da patata-tortilla lehiaketa. Zapatu goizean egiten dute, udaletxeko arkupeetan. Udalak emandako osagaiekin bakoitzak bere abilezia erakutsi eta ea patata-tortilla goxoena nork egiten duen, hori izaten da gakoa.

Hala, iazko txapeldun Aimar Arriolabengoak penarekin dago aurtan ez delako ekitaldia egingo, ezta jairik ere: "Urtero egiten da, eta arraroa izango da".

Dagoeneko hiru aldiz igo da podiumera Arriolabengoak: bitan gorenera –patata-tortilla lehiaketako saria irabazita– eta beste behin bigarren postua eskuratu du.

Sekreturik ez dagoela dio: mi-morekin gertatu behar da, patata-tortilla goxoak irten dadin: "Nik kipularekin egiten dut, eta patata-tortilla egiten etxean ikasi dut, amari ikusita. Goxoak irteten zaizkit!".

Kuadrilla giroan elkartzen direla dio, lagunekin batera joaten dela plazara patata-tortilla lehiaketan parte hartzera. Bihar, horrelakorik ez dute izango, baina, beharbada, Arriolabengoak animatuko da etxeko sukaldean aurreko amantala jantzi eta tortilla egitera.



BEHI-ALDE
ERKOP

BEHI-ALDE, KOOP. E.
Oleta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
44 pk
20500 Arrasate

Gu ere aramaioarrekin!



Tel.: 945 45 01 00
bulegoa@behialde.com

Kultura sortzaileei lekua egingo diete uztailean

Gaur, egubakoitza, emango diete hasiera Nhil taldeak komentuan egingo duen kontzertuarekin, eta bihar, bertso saio musikatua izango da Ojala Zelain, Lekaixoka bertso eskolako eskutik; zinema ere eskainiko dute eguen guztietan

Mirari Altube ARETXABALETAK

Gu be hemen gaz leloarekin herriko elkarteek babes eskaini zioten *Hemengaz* ekimenari apirilean, eta elkarlanerako borondatea agertu zuten. Hori abiapuntu hartuta, eta kulturak eta kultur sortzaileek ere garai zailak bizi dituztela jakinik, egitarau zabala gertatu dute uztailerako.

Elkarrekin elkarlanean

Loramendi elkarteak hartu du antolakuntzaren gidaritza, hainbat elkarteren babesarekin. "Kultur arloak zaplazteko handia jaso duela argi dago, eta guk, kultur elkarte garen aldetik, zerbait egin beharra sentitu dugu", adierazi du Loramendi elkarteko teknikari Eñaut Zubizarretak, eta gaineratu: "Oñatiko Udala ekainean hasi zen ekitaldiak antolatzen eta hori pizgarria izan zen guretzako. Han galdetu genuen hartutako segurtasun neurrien gainean lanean hasteko".

Behin ideia buruan, herriko beste elkarte batzuegana jo zuten elkarlan bila: "Baliabideak eta antolakuntza lanak partekatze eta ekonomikoki laguntzeko. Begi onez ikusi zuten". Taldeen artean daude UDA, Lekaixoka eta Basotxo, besteak beste. Eta Udalaren babes ere jaso dute. Hortik abiatuta ahalik eta eskaintza "zabalena" gertatzen ahalegindu dira, herriko txokoei asko ohikoak ez direnak balio emanda.

Nhil eta Lekaixoka asteburuan

"Kontzertuak izango dira nagusi, baina beste era bateko ekitaldiak ere badaude: bertso musikatua, dantza, zinema... Aurrekontu murrizta izan arren programa polita geratu dela uste dugu", dio Zubizarretak.

Lehenengo ekitaldia Nhil taldearen kontzertua izango da; gaur, 22:00etan, mojen komen-



Nhil taldea, Eskoriatzan egindako aurkezpen emanaldian. IMANOL SORIANO

tuan. Leintz aldeko musikari gazteek osatutako taldeak kanta goxoak eskainiko ditu.

Zapatuan, oster, bertso saio musikatua izango da, Ojala Zelain, 19:00etan. Lekaixoka bertso eskolak bideratu du hori eta

parte hartuko dutenen artean daude Arana ahizpak, Ramon Iturricastillo, Mikel Mendiarratx, Ibai Alberdi eta Martin Berrizbeitia. Ibon Leibar bergararrak jarriko dizkie gaiak eta Aitor Ziardegik eta Andoni Aranek musikarekin egingo diete lagun.

Lekaixokako kideek gomendatu dute denboraz joatea lekua hartzera, eta eskatu dute 1,5 metroko distantzia mantentzea entzuleen artean –hala bada, musuko barik egon daiteke– eta aulkiak lekutik ez mugitzea.

Herrikoak eta entzutea dutenak

Egitaraua osatu dute herriko sortzaileekin eta entzute handikoekin. Hala, Jon Ander Galdos aretxabalek emanaldia eskainiko du hurrengo egubakoitzean, baita Petti nafarrak ere. Etorriko diren beste bi talde dira Rodeo eta Fears Away, eta oraindik lotzeko dituzten beste hainbat ere izango dira. Doke txapelketa ere egingo dute hilabete bukaeran.

Zinemari ere egin diete lekua, eguenetan, eta ikus-entzunezko "interesgarriak" –euskarazko azpitoluekin– eskainiko dituzte herriko txoko ezberdinetan.

Uztaileko zinema

Uztailak 9

- **'Beltza naiz'** Frontoi gorrian.

Uztailak 16

- **'Animadeba'** Portasol auzoan.

Uztailak 23

- **'Janis'** Kuartel zaharrean.

Uztailak 30

- **'Tomboy'** Felix Iñurategi parkean.

Emanaldi guztiak 22:00etan dira.



PAUSOKA

Zabaldu ditu ateak Pausokak

Hiru hilabete eta erdi ostean, uztailean 1ean ireki zituen ateak Pausoka haur eskolak; 24 ume elkartu dira lehen egunetan. Segurtasun neurri zorrotzak ezarri dituzte eta gurasoei ahal den gutxien sartzeko gomendatu diete. Adinaren arabera talde txikiak osatu dituzte eta burbuila eran dabilta funtzionatzen; hau da, gainerakoekin kontakturik izan barik.

Rojo Telon taldeak zirkuaren bueltako ikuskizuna dakar

Uztailerako antolatutako kultur ekitaldiei astean ekin diete, eta datorren eguaztenean, hilaren 8an, Rojo Telon konpainiaren txanda izango da. Zirkuaren bueltako hainbat diziplina lantzen dituzte taldea osatzen duten hiru emakumeek, eta, oraingoan, kabaret ikuskizuna eskainiko dute, Kurtzabarri eskolako kantxan (19:00).

Uztailean 17an, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Bizi dantza* ikuskizuna eskainiko dute, kiroldegian. Martxorako iragarrita zegoen, eta bertan behera utzi behar izan zuten osasun larrialdiagatik. Orduan sarrerak erosi zituztenek gorde egin ditzakete oraingo emanaldirako, edo itzuli eta dirua berreskuratu; Arkupeko sarreratik pasatu beharko dute horretarako, uztailean 7a baino lehen. Itzultakoak berriro jarriko dituzte salgai hilaren 8tik 16ra.

GORA ETA BEHERA



M.A.

Hiru edukiontzi kiskalita

Santa Kurtz kaleko hiru edukiontzi erre zituzten –laugarrenak kalteak izan zituen– domeka goizaldean. Inguruan aparkatutako auto bat kendu egin zuten hainbat lagunek, kalterik ez izateko.

Aisialdirako eskaintza zabala astelehenetik

Neska-mutikoek ez dute izango ohiko udalekurik aurten, baina aspertzeko tarterik ere ez; Lehen Hezkuntzako umeendako egitaraua gertatu du Loratu egitasmoak, DBHkoendako Atxagazte gaztelekuak eta futbolaren bueltako jolasak UDAk

Mirari Altube ARETXABALETA

Osasun larrialdiak hankaz gora jarri ditu egitasmo asko eta asko, baina Aretxabaletan jakin dute horri buelta eman eta gaztetxoek aisialdirako eskaintza egiten. Hiru proposamen bideratu dizkiete eta hirurak uztaillaren 6an jarriko dituzte abian.

Auzoetara txangoak

Udalak eta Loramendi elkarteak Loratu programa eskaini dute: "Ohiko udalekurik ez dela izango jakinik sortu dugu, herriaren beharrei erantzuteko", adierazi du taldeko kide Maialen Mendietak. 6 eta 12 urte arteko 125 umek eman dute izena eta zazpi eta hamahiru lagun arteko taldeak osatuko dituzte; horiekin 21 begiralek jardungo dute.

Eusko Jaurlaritzak aisialdi jardueretarako emandako dekretuan oinarritutako protokoloa diseinatu du Udalak. Pila-ketak saihesteko, taldeak gune ezberdinetan banatuko dituzte: "Bakoitzak erreferentzia toki bat izango du, kokagune bat. Han elkartuko dira eguna hasteko eta bukatzeko". Topaguneak honako hauek dira: Iralabarri plaza, Iturrizar plaza, Murubide, Errekabarren eta Belorrieta – euria eginez gero: Zainduz loka, ludoteka, pilotalekua,

udaletxe zaharra eta Kurtzebarri eskola-.

Udaletik jakinarazi dute prebentzio neurriak betetzea lehenetsiko duten jarduerak antolatuko direla: "Kontaktua fisikoak eskatzen dutenak saihestuko dira eta ingurune naturala aprobetxatuko da". Udalak 42.500 euro bideratu ditu horretara.

Gaztekonkisi nerabeendako

Nerabeei eskainitako Gaztekonkisi programan 23 gaztetxok eman dute izena eta lau talde sortu dituzte. "Lehiaketa moldatu egin

behar izan dugu egoerara; izan ere, elkarren aurka ezingo dira lehiatu. Ginkanak eta orientazio probak izango dituzte, besteak beste", azaldu du Jon Cano koordinatzaileak.

UDAkoen futbol jolasak

UDAk, ostera, futbolaren bueltako jolasak eskaini dizkie 2008 eta 2011 artean jaiotakoei, eta 47 gaztetxok eman dute izena; bost begiraleren gidaritzapean egingo dute lan eguneroko ordu eta erdiz, hamar bat laguneko taldeetan banatuta.



Loratu egitasmoa koordinatzaileak. LORATU

Euskaraldiari ekiteko gertu daude herriko hainbat entitate

Euskaraz jarduteko ariguneak sortzea da erronka eta hamabost elkartek dagoeneko eman dute izena

M.A. ARETXABALETA

Euskaraldiaren bigarren uholdea badator eta Aretxabaletan ere hasita dago taldetxo bat horren gaineko kontuak gertatzen. Entitateetan jarriko dute fokua aurten, eta berritasuna ariguneak dira, euskaraz jarduteko guneak; horren helburua da entitate horietan euskararen erabilera handitzea. Ariguneak sortzeko gertu dauden lehenengo elkarteetan izenak jaso dituzte herrian.

Ariguneak sortzeko gertu

Azaroaren 20tik abenduaren 4rabitarte egingo da dinamika, hamabost egunez oraingoan. Eta, hain zuzen, herriko hamabost entitateen babes eskatu da, lanari ekiteko; hona hemen horiek: Hanka Beltz urdaitegia, GSR Debagoiena adinekoen egoitza, Pausoka haur eskola, Pika-

rraituz talde feminista, Gemes estetika, Ogiberri okindegia, Aretxabaletako Lanbide Eskola, Copreci, Andra Mari aholkularitza, Basotxo erretiratuen elkarte, Leizarra jatetxea, Kalebarren denda, Arizmendi Ikastola eta Kurtzebarri Eskola.

Horiek guztiek ariguneak sortzea adostu dute; barne ariguneak –entitate barruko taldeak– edota kanpo ariguneak –entitateak hortik kanpokoekin duen hartu-emanetan sortutako guneak–. "Lehenengoak hamabost horiek izan arren, herriko beste guztiengana joko dugu, eta Euskaraldiarekin bat egitera gonbidatuko ditugu", adierazi dute lantaldeko kideek.

Entitateetako kide zein gainerrako norbanako guztiak belarriprest edo ahobizi rola hartu ahal izango dituzte aurrerago.

Kiroldegira joan beharko da botoa ematera hilaren 12an

Kurtzebarri eskolan beharrezkoak izango da hauteslekua Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan, protokoloa betetzeko. Zortzi hauteskunde-mahai izango dira, aurrekoetan legez, eta elkarrengandik urrunduta kokatuko dituzte kantxan. Edukiera mugatu egingo dute eta kantxara zuzenean sartuko dira herritarrek.

Uztaillaren 12an 5.455 aretxabaletar daude deituta botoa ematera. Kiroldegira autoan joanez gero Ederlaneko aparkalekuan utzi ahal izango da. Mas-kararekin joan beharko da, eta sarreraren, derrigorrez garbitu beharko dira eskuak gel hidroalkoholikoarekin. Botoa etxetik eroatea gomendatu dute, eta hautetsontzian norberak sartuko du. Ilarak sortuz gero lehen-tasuna emango diete 65 urtetik gorakoei, haurdunei eta desgaitasuna duten pertsonei.

Odontologia estetikoa	Ortodontzia
Endodontzia	PADI zerbitzua
Inplantologia	Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55

Ezohiko jaiak izan arren, egon da disfrutatzeko aukerarik Eskoriatzan

Musikak izan du protagonismo handiena ezohiko San Pedro jaien barruan egin diren ekintza sinbolikoetan. Horren adierazle dira egunotan txistulariek, musika bandak, trikitilariak eta Andoni Moto eskoriatzarrak egin dituzten saioak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Ohiko moduan ez egin arren, egon da ekitaldiren bat edo beste Eskoriatzako San Pedro jaie-tan. Ikurrinak eta Eskoriatzako banderak leihoetan eta balkoietan jarrita, koloreztatuta egon da herria, eta, horrekin batera, musikak ere izan du protagonismoa. Hori bai, segurtasun neurriak ondo hartutako ekitaldiak izan dira guztiak.

Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak adierazi duenez, ez da jende askorik egon egunotan Eskoriatzan. Hala ere, egin diren ekintza sinbolikoek erantzun ona izan dutela adierazi du: "Zenbait ekintza izan ditugu ezohiko jai hauetan, eta ekintza horietan parte hartu duten taldeak gustura direla esango nuke. Zapatuan, sanpedroak hasi barik zeudela, jende gehiago sumatu nuen San Pedro jaiegunetan baino. Gainera, hainbat herritar kanpoan ere egon dela esango nuke; ez dakit hainbat egunetarako edo egun-pasetarako, baina aparkatzera-koan nabaritu da hori".

Ikurrin berria Gernika plazan

Ekainaren 27an, sanpedroak hasi aurretik, ikurrin berria jarri zuten Gernika plazan: "Aro berri honetan herritar guztien batasunaren ikur gisa". Olazar erretiratuen elkarteko bi lagunek eta herriko bi haurrek jarri zuten mastan, eta udal ordezkariak, txistulariak eta dantzariak batu ziren bertan. Joserra Zubizarreta alkateak esan duenez: "Zorixarreko pandemia honek eragin dituen kalteengatik eta eraman dituen pertsona guztiengatik omenalditxo bat nahi izan genuen egin, eta, ikurrina altxatzeaz batera, idatzitxo bat prestatu genuen udal taldeko kide guztien

artean, egun berezi hauetan beraiek ere gogorarazteko".

Musikak protagonismoa

Txistularien, trikitilarien, Eskoriatzako bandaren eta Andoni Motoren saioek girotu dituzte, batez ere, San Pedro egunak. Zenbait ekitalditan, pilaketak ekiditeko ordutegi finkoa ezarri barik; eta segurtasun neurriak hartuz gauzatu dira ekitaldi guztiak. Hori horrela, txistularien dianarekin batera, trikiti doinuak entzun ahal izan dira ezohiko San Pedro jai hauetan. Horretaz gain, San Pedro egunean ere kontzertua egin izan du musika bandak Fernando Eskoriatza plazan. Aurten, baina, kalejira egin dute bezperan, iluntzean, eta San Pedro egunean ere, ordu berean hasita, kalerik kale girotu zituzten Eskoriatzako bazterrak.

Andoni Moto eskoriatzarrak ere protagonismo handia izan du ezohiko jai hauetan. Izan ere, bezperan, brigadako kamioi gainean kalez kale joan zen danborradan jotzen diren piezak bozgorailuetatik jartzen, eta herritarrek animatzen. San Pedro egunean ere jai giroko kantua jarri zituen herri guztian zehar. Herritarren partetik bi saioen erantzun ona jaso duela azaldu du berak: "San Pedro jai ezberdinak izan dira aurtengoak, baina urteroko gogo berekin hartu dugu, edo saiatu gara, behintzat, hala izaten. Kamioiaren gainean musika jartzen

**EKINTZA SINBOLIKOAK
IZAN DIRA EZOHICO
SAN PEDRO JAIETAN,
MUSIKAK INDAR
HANDIEN HARTUTA**

aritzearen ideia konfinamenduan etorri zitzaigun Adrian Garnateo lagunari eta niri, eta, egitea posible izan denez, ilusioz aritu naiz. Uste dut herritarrek eskertu dutela ekimena; batez ere, danborradako piezak jarri ginituenean. Izan ere, ilusio eta poztasun aurpegiak ikusi nituen danborradako piezak jartzean, batez ere, jende helduaren aurpegietan. Jairik ez da izan, baina sortu dugu jai giro pixka bat eta disfrutatu ditugu. Datorren urtean hobeak izango dira, hori segururu...", adierazi du Andoni Motok.

Goiena telebistaren saioa

Ohiko sanpedrorik ez da izan aurten, baina jaiari keinu egin diete herriko hainbat eragilek. Hala, Goienak horiek jaso gura izan ditu eta Goiena telebistan eta *Goiena.eus*-en eskaini. Saio horretan bildu ditu erreportaje bidez Karmelo Oñate marrazkilaria jaietarako kartela sortzen eta bizikleta motelaren lasterketa, Joserra Zubizarreta alkatearekin solasaldia eta irudi zaharrak, sasoi bateko jaiak gogora ekartzeko, besteak beste.

Modu umoretsuan herritarrei zenbait galdera egin dizkie Aitor Agiriano kazetariak jaien inguruan. Argi utzi dute eskoriatzarrak herriko jaiak gozatzeaz gain barrutik ezagutzen dituztela. Horrekin batera, orain urte asko galdu zen arren, duela zazpi urte berreskuratutako Eskoriatzako buruhandien txirindulari lasterketaren gainean, Goia Uribe epaimahaikidearekin eta Lander Villar parte-hartzailearekin ezagutzeko aukera izan da lehiaketa bereziak duen xarma. Berezia da, gainera, helmugara iristen azkenak irabazten du-eta lasterketa zoro hori.



Gernika plazan ikurrin berria jarri zuten unea. IMANOL BELOKI



Eskoriatzako musika bandak kalejira eginaz girotu ditu herriko kaleak. IMANOL SORIANO



Andoni Moto kamioian aritu da herriko kaleak musikaz girotzen. ANDONI MOTO



Goiena telebistak eskainitako saioaren grabaketaren une bat. I.B.

Komertzioei laguntzeko bonuak aterako dituzte

Uztailaren 6an jarriko dira martxan herriko merkataritza sustatzeko Eskoriatza Bizirik bonuak. Ibarraundi museoan erosi beharko dira, eta hiru frakziotan banatuta egongo da bonua. Herritarrak 15 euro ordaintzen ditu eta Udalak, beste 15 euro

Imanol Beloki ESKORIATZA

COVID-19ak herriko negozioei eragindako krisiari buelta ematen laguntzeko, salerosketak pizteko eta egoerak kaltetutako familiei laguntzeko, Eskoriatza Bizirik bonuen kanpaina jarri du abian Udalak.

Egitasmoarekin bat egiteko eta bonuak erabiltzeko, bi erabilera gida ateratu ditu Udalak. Batetik, establezimenduei zuzendutakoa; eta, bestetik, herritarrei zuzenduta dagoena. Bonu bakoitzak 30 euroko balioa du: 5 euro, 10 euro eta 15 euroko zatitan banatuta. Hala, 15 euroren truke, 30 euroko balioa duen bonua jasoko du herritarrak Udalaren partetik.



Akeitako terrazan zenbait herritar zerbait hartzen. IMANOL BELOKI

Hiru frakziotan banatuta

Eskoriatzan erroldatutako familia unitateko-erxebizitzako-bonu bat erosi ahal izango da, eta txartelaz erosi beharko dira, datafonoaren bitartez. Bonua erabiltzeko, berriz, honako hau da funtzionamendua: bonu bakoitza osatuta dago 5 euro, 10 euro eta 15 euroko balioko hiru frakzioz, frakzio bakoitza zatiezina da; erosketa bakoitzean, gutxienez horietako frakzio oso bat erabili beharko da, eta, bonua erabiltzeko, Nortasun Agiria aurkeztea ezinbestekoa izango da.

Bonuak soilik Eskoriatzako establezimenduetan gastatu ahal dira, izan denda, edo izan zerbitzu bat, eta kanpainatik kanpo geratuko dira loteria eta bestelako joko establezimenduetan, farmaziak, estankokoak eta janari dendak; beraz, horietan ezingo da erabili bonurik.

Bonua gastatzeko epemuga 2020ko abuztuaren 31 izango da, eta epe barruan gastatzen ez den bonua balio barik geratuko da. Hau da, bonuak ezingo zaizkio itzuli Udalari, eta dirua ez da bueltatuko.

Bonuak erosteko

Bonuak Ibarraundi museoan erosi ahal izango dira, honako egun eta ordutegi honetan: astelehene eta egubakoitzetan, goizez, 11:00etatik 13:30era bitartean; eta eguaztenetan, berriz, soilik arratsaldean, 17:00etatik 19:30era bitartean.

Zalantzak argitzeko, 943 71 54 53 telefono zenbakira deitu daiteke, Whatsappez 674 11 19 71 telefono zenbakira idatzi edo garapen@eskoriatza.eus edo ibarraundi@eskoriatza.eus helbideetara idatzi.

Lau asteko campusa antolatu du Aresko Saskibaloi Eskolak

2005 eta 2012. urte bitartean jaiotako neska-mutilei zuzendutako campusa izango da

I.B. ESKORIATZA

Aresko Saskibaloi Eskolak antolatuta, Aresko campusa izango da uztailean Manuel Muñoz kiroldegian. 2005 eta 2012. urte bitartean jaiotako haurrei zuzenduta dago, eta ordutegia

09:00etatik 13:00etara bitartekoa izango da.

Aurten, lau asteko iraupena izango du, eta aste bakarra, bi, hiru edo lau egin ahal dira izena ematen duenak. Inskripzioak mugatuak izango dira, eta,

horretarako, aresko.saskibaloi@gmail.com helbidera idatzi beharko da.

Lau astetan banatu dute campusa, eta honako hauek izango dira txandak: uztailaren 6tik 10era, uztailaren 13tik 17ra, uztailaren 20tik 24ra eta uztailaren 27tik 31ra. Aste bakarra egin nahi duenak 75 euro ordaindu beharko ditu; bi astekoa egin nahi duenak, 115 euro; hiru astekoa egin gura duenak, 150 euro; eta lau astekoa egin nahi duenak, aldiz, 180 euro.



Eguaztenean zenbait lagun izan ziren bisita gidatuan. GATZ MUSEOA

Bisitarien gorakada handia izan dute ekainean Gatz Museoan

lazkoarekin alderatuz, hilabete honetan bailarako jende gehiago joan zaie bisitan Gatzagako Gatz Museora

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Gatz Museoak ekaineko bisitari kopurua aztertu du, eta, iazko datuekin alderatuz, "datu esanguratsuak" eta "oso positiboak" direla adierazi dute bertako arduradunek. Hala adierazi du Libe Ramila Gatz Museoko langileak: "Gatz Museoko harreragunetik 220 lagun pasa dira. Gehienak bisitetara, eta beste zenbait informazio bila. Horietatik guztietatik, 143 pertsona gipuzkoarrak izan dira, eta ez da hain ohikoa izaten hori. Iaz, esaterako, 231 pertsona etorri ziren ekainean, eta aurtengo datuekin alderatuz oso ondo dago. Izan ere, aurten ez ditugu ikastetxeetako haurrak, talde handiak eta aste barruko bisitak izan. Gainera, azpimarratzekoa da bailaratik jende asko etorri dela, normalean baino gehiago, eta, beraz, oso pozik gaude".

Uztailean ordutegi aldaketa

Uztailean sartuta, museoko bisiten ordutegia aldatu egin dute. Izan ere, orain arte, asteburuetan soilik eskaini dute zerbitzua, eta uztailean, berriz, eguenetik domekara arte eskainiko dute. Hala ere, bisitak egiteko erreserba egitea derrigorrezkoa dela gogorarazi gura izan dute.

Zapatuan, tailerra

Horrekin batera, Ezkutuko Altxorrek egitasmoaren barruan, *Gatz egile egun batez* tailerra antolatu dute zapatarako. 10:30ean hasita, gatz egiteko prozesua ezagutuko dute bertaratzen direnek. Egurra bildu, sua eta gatz egin... Familian egiteko ikastaroa izango da. Izen-ematea derrigorrezkoa izango da; horretarako, 943 79 64 63 edo 943 71 89 telefono zenbakietara deitu edo infoturismo@debagoiena.eus helbidera idatzi beharko da.

2020ko bigarren seihileko zenbait tasaren ordainketa

2020ko ekainaren 26an, alkatezaren dekretuz, 2020ko bigarren seihileko zabor bilketa, garraio eta tratamendu tasaren errolda onartu da, eta Kontu-hartzailetzan erakusgai egongo da 30 eguneko epean.

Epe horretan, errolda horren aurka errekursoak eta alegazioak jarri ahal izango dira. Halaber, ordaintzeko borondatezko epeal-

dia uztailaren leian hasi zen, eta abuztuaren 31n bukatu. Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza erakundetan eta zergapekoak agindutako kontu korrontean zordunduko dira. Helbideratu gabeko ordainagiriak, ostera, zergapekoak adierazitako zerga-helbideetara bidaliko dira, eta finantza erakunde kolaboratzaileetako bulegoetan, kutxazainetan, banku elektronikoetan edota ordainketa pasabidearen bitartez ordaindu ahal izango dira.



Udalbatzako 17 zinegotziak beste modu batean eseri ziren, distantziak gordetzeko; irudian, bozketa une bat. JOKIN BEREZIARTUA

Alarma egoeraren osteko agertokirako, "benetako lankidetzarako" gertu

COVID-19aren ondorioz sortu den krisi ekonomikoari aurre egiteko elkarlanean aritzeko prest daude Udal Gobernuaren eta oposizioaren arteko lankidetzaren eredu hobetu beharra dutela aitortzen duten arren; ordenantza fiskalen aldaketa aho batez onartu zuten

Jokin Bereziartua BERGARA

Azken hiru osoko bilkura telematikoen ostean, alarma egoeraren osteko lehen bilkura presentziala egin zuen udalbatzako astelehenean, normaltasun berriak eskatzen dituen neurriak betetz. Hartu ziren erabakien artean dago COVID-19aren ondorioz 2020ko ordenantza fiskalen aldaketa aho batez onartu zela. Alarma egoera ezarri eta gutxira hartu zuen Udalak, besteak beste, ura, zaborra, Agorrosingo kirodegiko eta terrazetako tasak ez kobratzeko edo murrizteko erabakia. Gobernuaren proposamena begi onez ikusi zuen oposizioak hasieratik, eta aldeko botoa eman zuten. Aho batez hartu zen beste erabaki bat izan zen astelehenean bertan abiatu zen Uda Aktiboa programako prezio publikoen aldaketa onartu zela (Ikus 26. orria).

AHT: ikuspegi ezberdinak dituzte Bestalde, agerian geratu zen Udal Gobernuaren eta oposizioaren artean ikuspegi ezberdinak daudela Abiadura Handiko Trenaren bueltan. *Orain ardura* izenarekin herritar talde batek aurkeztutako mozioan eskatzen zen, besteak beste, AHTra bideratutako aurrekontu partidak gizarte zerbitzuetara eta COVID-19aren krisia gehien pairatuko duten sektoreetara bideratzea. Aurrera egin zuen mozioak, EH Bilduk alde bozkatu eta EAJk zein alderdi sozialistak kontra bozkatu ostean.

AHT-RAKO PARTIDAK KRISIRA BIDERATZEA ESKATZEKO 'ORAIN ARDURA' MOZIOAK AURRERA EGIN ZUEN

"Benetako lankidetzarako" deia EAJk bilkuran zehar eta galdera zein eskaeren tartean, Udal Gobernuari behin eta berriz eskatu zion oposizioarekin "benetako lankidetzara" sustatzeko; EAJk dio Gobernuak jakinarazteko bai, baina lanketa zehatzak egiteko borondaterik ez duela: "Oposizioarekin kontatzeko eskatu nahi diogu EH Bilduri, benetako lankidetzara hasteko unea da eta. Datorren krisi ekonomiko hau elkarrekin gainditu beharko dugu; eta bada garaia elkarrekin lan egiteko".

EH Bilduk ez du horrela ikusten: "Ate batzuk ireki ditugu, baina ez dugu jakin ate horiek aprobetxatzen. Uste dut denon helburua izan beharko litzatekeela aukera horiek aprobetxatzea; denok dugu lanketa egin beharra zentzu horretan; presuntasun osoa dugu horretarako".

Ordenantza fiskal berriak, aho batez



GORKA ARTOLA
EH BILDU

"Alarma egoera hasieran hartutako tasak kentzeko eta murrizteko erabakiaz gain, dirulaguntza lerro ezberdinak ireki ditugu. Eta azterketa ekonomikoa bukatzean, plan integralean sartzeko proposamenak bideratuko ditugu".



ELENA LETE
EAJ

"Larrialdi mahaia eskatu genuenean esan genuen malgutasunez jokatu genuela, eta orduko neurriak babestu egin ditugu orain. Koherenteak gara; hala ere, Gobernuak ez du gurekin kontatu benetako lankidetzara bat garatu ahal izateko".



ALBERTO ALONSO
PSE-EE

"PSE-EE erakundeetan dago eta badakigu COVID-19ak eragindako krisia oso zaila dela kudeatzeko. Ildo horretan eman dugu aldeko botoa; krisi honekin ez dugu politika egingo. Ez genuen martxoan egin eta ez dugu hauteskunde atarian egingo".



LGBTI bandera, asteon. B.U.

"Gizarte aske eta justuago" bati begira

Ekainaren 28ko Sexu Askapenerako Egunaren bueltan adierazpen instituzionala osatu du aurten ere udalbatzako: "Erakundeetatik pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzeko erantzukizuna dugu, eta bereziki zaindu behar dugu LGBTI bezalako kolektibo zaurgarrienek eskubide horiek izan ditzaten. COVID-19aren garaian ere egin behar dugu: krisia ezin da aitzakia izan inor atzean uzteko. Garaiz gaude normaltasun berri hori garai berri bat izan dadin, euskal gizarte errespetuzkoago, justuago, duinago eta askeago baterantz aurrera egiteko aukera bat [...]. Aitortu nahi dugu LGBTI kolektibo eta pertsona ugariaren borroka luze eta ordainezina Euskal Herrian: garai zail hauetan, pertsonen eta gure herriaren emantzipaziorako erreferente direla erakusten jarraitzen dute".

Konpromiso zehatzak Adierazpenean hartzen diren konpromisoen artean dago, besteak beste, Udalaren III. Berdintasun Planean LGBTI pertsonen egoeraren diagnostiko bat txertatzea, eta diagnostiko horri erantzun dion "talka-plan bat" bultzatzea, arlo guztietan.

Mezarik eta erromeriarik gabe, sanmartzialik ez

Ekainaren 30ean, 23 fededun igo ziren San Martzialera eta han ere, ermitara ez sartzeko, ez zuten ohiko mezarik egin; domekan ez da erromeria ofizialik egingo, Udalak ez duelako orain arteko jai eredu hori gaur egungo egoerarekin bateragarri ikusten

Jokin Bereziartua BERGARA

Domekan ez da San Martzial eguneko erromeriarik egongo, eta, urteko egun berezietakoa izanik, penaz hartuko dute bergarar gehienek. Normaltasun berriak ekainaren 30eko ospakizunean ere zuzenean eragin zuen; ekainaren 30ean, San Martzial egunez, normalean 80 bat lagun igotzen badira ermitara letaniak errezatzen, aurten 23 lagun izan dira. "Oso ondo joan zen, oso giro onean igo ginen. Santuen letaniak errezatzen joan ginen, uztak hondatzen dituzten udako ekaitzen aurkako garai baten sortutako otoitzak", adierazi du Jon Molina parrokoak.

Santa Marina parrokiatik 07:30ean abiatuta, aldapan gora joan ziren tipi-tapa; hori bai, San Martzialera heltzean, segurtasun distantziak mantentzeko, ez ziren ermitara sartu. Ohiko mezarik ez zuten egin, eta ermita kanpoan egin zuten otoi, Molinak azaldu duenez.

Ermite bueltako ospakizunak

COVID-19ak eragin zuzena izan du eta izango du Elizaren hurrengo ospakizunetan. "Udaberriak eta udan oso ohikoak izaten dira auzoetan eta etxaldeetan egoten diren ermiten bueltan jaiak ospatzea. Udabe-



Martitzenean, San Martzial egunean, ermitara igo ziren bergararrak. PEDRO GARITANO

80 BAT LAGUN IGO OHI DIRA SAN MARTZIAL EGUNEZ; AURTEN, EGOERA DELA ETA, 23 FEDEDUN BATU DIRA

rrikoak bertan behera geratu dira eta esango nuke udakoekin ere berbera gertatuko dala. Hori bai, ospakizun horiek egin edo ez auzotarrek erabakitzen dute, normalean", gaineratu du Molinak. Ekainaren 13an, esatera-

ko, San Antonioko jaien barruan meza egitea erabaki zuten auzotarrek; betiere, kanpoan eta beharrezko segurtasun neurri guztiak errespetatuz.

Horrekin batera, Molinak aurreratu du abuztuaren 8an, San Lorentzo egunez, meza gutxienez egingo dutela: "San Lorentzon antolatu egingo dutela esan didate, neurria guztiak hartuta. Izan ere, auzotarrek erabakitzen dute; baina orain arte udan ohikoak izan ziren ekitaldi gehienak bertan behera geratuko dira, seguruenik".



JOKIN BEREZIARTUA

Atzerapenarekin, baina zabalik

Herrigunea eta Miguel Altuna Lanbide Heziketa ahalik eta gehien gerturatzea helburu duen oinezko pasabidea astelehenean ireki zuten. Martxo amaieran ireki behar zuten, hasiera baten, baina COVID-19k eraginda lanak nabarmen atzeratu dira. Obra atzeratu egin bada ere, eta eremu horretako zailtasunak aintzat hartuta, Udaleko Hirigintza Saila pozik dago azken emaitzarekin.

OHARRAK

BAZ: udako ordutegi berria irailaren 17ra arte

Bergararren Arreta Zerbitzua 07:30etik 14:30era egongo da zabalik. Bulego elektronikoa betiko ordutegira itzuliko da; egunero, 06:00etatik 22:00etara, Udaltzaingoa zabalik dagoen bitartean.

Udal eraikinetarako garbitzaileen lan-poltsa

Udal eraikinen garbitzaileen lan-poltsa osatzera doa Udala lehiaketa bidez eta larrialdiko prozedura erabiliz, udako premiei erantzuteko. Oinarriak: BAZen eta udal webgunean.

Kultura ekintzetako tailerretarako izen-ematea

Udalak eta Kultura Mahaiak antolatutako tailerretan izena emateko aukera zabalik dago; kopurua mugatua da eta izena ematen den ordenaren arabera beteko dira plazak. Segurtasun neurri guztiak errespetatuko dira ekintzotan. Uztailaren 14an, zumba; uztailaren 16an, eskulan tailerra; eta uztailaren 28an, saltsa tailerra. Argibide gehiago: www.bergara.eus.

Axier Lopezen hitzaldia kartzela zaharrean

Argia-ko kazetariak *Ez naiz kolonialista, baina... Elkano eta Mundu Biraren V. mendeurrena* izeneko hitzaldia eskainiko du gaur, 19:00etan. Euskaraz izango da, itzulpen zerbitzuarekin.

Hurrengo jaiak noiz ospatuko zain

Alarma egoeratik kanpo ere, Udalak ez du etziko ospakizuna bideragarri ikusten: "Ez da bideragarri ikusten halako jende pilaketa eta jai mota uztartuko lituzkeen egitaraua formulatu ahal izatea. Gero, egoera aldatzen joango balitz, Udalak erabakiko luke gainontzeko ospakizunen aurrean zer irizpide berri hartu". San Martin jaietarako itxaron beharko da, gutxienez.



Erromeria San Martzialen, iaz. GOIENA

Merkealdiari hasiera emateko, produktuak kalera ateratu dituzte

Merkealdiari hasiera emateko, Bedelkar elkarteko 30 negoziok euren produktuak eta zerbitzuak kalera ateratu dituzte gaur eta bihar. Gainera, 12 manikura zozketatuko dituzte: uztailaren 1etik 4ra bitartean egindako erosketa-txartelekin, bezero baikoitzak bere izena eta telefono zenbakia jarri beharko ditu, eta zozketarako dendan utzi.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

'Uda aktiboa': jolaserako gune berriak ezagutzen

Elkarlanean antolatutako udako aisialdi eskaintzarekin hasi dira gozaten haurrak. Izan ere, asteleheneetik dago martxan Bergarako Udalak, herriko ikastetxeek, guraso elkarteak eta Jardunek elkarlanean antolatutako 'Uda aktiboa' aisialdi programa

Imanol Beloki BERGARA

COVID-19ak erabat baldintzatu du aurtengo udako aisialdi eskaintza, eta Bergarako Udalak ezintasunak izan ditu antolatze-ko, Jaurlaritzatik gehienezko kopuruak zehazten zirelako. Egoera horren aurrean, Udalak herri mailako eskaintza adostea proposatu zien herriko ikastetxe guztiei, guraso elkartei eta Jardun elkarteari. Udala garatzen ari den Plan Integralaren barruan lehenetsunak izan dira, baita ere umeen udako aisialdia, umeen zaintza eta familien kontziliazioa bermatzea. Hala, Udalak, ikastetxeek, guraso elkarteak eta Jardunek *Uda aktiboa* programa antolatu dute.



Bergarako haurrak jolasean. BERGARAKO UDALA

Aisialdi dinamizatu eta aktiboa

Hiru asteko *Uda aktiboa* ekainaren 29tik uztailearen 17ra izango da; eta lau astekoa ekainaren 29tik uztailearen 24ra. Hala, 10:00etatik 13:00etara bitarteko ordutegia duen zerbitzua da, eta, astelehenean hasita, haurrek uztailearen 24ra arte izango dute herriko txoko ezberdinetan dibertitzeko aukera.

Udala 6-11 urteko haurrentzako eskaintza gauzatzen ari da eta ikastetxeak, 2-6 urte artekoena. Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleak, berriaz, gaztelekura bideratu dituzte. Hori horrela, guztira, 252 haur ari dira parte hartzen aisialdiko programa ezberdinetan: Udalarekin 132 ume ari dira parte hartzen; baita Angiozar eta Osintxun ere, eta eskolek, guztira, 120 ume hartu dituzte. Taldeak, gainera, inoiz baino banatuago daude, eta, neurriak jarraituz, lehenengo asteko balorazio "positiboa" egin dute Udaletik.

Lehenengo asteko balorazioa

Udaleku irekien eta kirol campusaren planteamenduek ez zieten gaur egungo beharrei

BERGARAKO LEKU EZBERDINAK EZAGUTZEKO BIDEA EMAN DIE HAURREI 'UDA AKTIBOA'-K

erantzuten ikusita, formatu berri bat planteatu du Bergarako Udalak. Aurretik, eragile bakarrekin lantzen zen proiektu bat momentu honetan eragile ezberdinekin landu behar izan dute, eta Udaletik adierazi dute merezi izan duela esfortzuak, eta eragile guztiek errealitate berri honetara egokitzeko erakutsi duten jarrera eskertzeko izan dela gaineratu dute. Horrekin batera, guraso askok, edukiera mugen jakitun, beste alternatiba batzuk bilatu dituzte, behar gehiago dituztenei lekua uzteko. Horiei ere eskerrak eman nahi dizkie Udalak.

"Ez da erraza izan *Uda aktiboa* udaleku irekien eta kirol campusaren alternatiba antolatzea. Hala ere, oso eskertuta gaude Jarduni, herriko ikastetxei eta guraso elkarteari. Guztien elkarlanagatik ez balitz, ezingo

genuke egitasmoa aurrera eramane. Horrekin batera, neurriak ere hartu ditugu, lan handia egin da antolaketa, baina esan beharra dago adinaren arabera zaila dela. Haurrek kontaktua behar dute jolasean, eta, zenbaitetan, zaila da hori ondo eroatea. Hala ere, hori ere kontuan izanda, eta, egiten ari diren ekintza motengatik, ondo ari gara *Uda aktiboa* aisialdi programa gauzatzen, eta neurri guztiak betetzen ari dira. Horrekin batera, azpimarratu beharra dago haur nagusienak barneratuta dituztela neurriak hartzearen garrantzia, eta hori nabarmentzekoa da".

Txoko berriak ezagutzen

Egitasmoa antolatzeko zailtasunak izan dituzten arren, haurrei Bergarako txoko ezberdinak ezagutzeko bidea emango diela *Uda aktiboa*-k gaineratu gura izan du Aranbarrik: "Taldeen banatuta daude haurrak, baina beraien artean ez dira nahasten. Hori horrela, normalean ez bezala, Bergarako aire libreko leku ezberdinak erabiltzen ari dira egunotan, eta hori positiboa dela esango nuke".



Frontoian frontenisean. BERGARAKO BIKOTEKAKO FRONTENIS TXAPELKETA

Bikotekako frontenis txapelketan 61 bikotek eman dute izena

Uztailearen 8an amaituko da txapelketako lehenengo fasea, eta gero, kanporaketak hasiko dituzte

I.B. BERGARA

Astelehenean jokatu zituzten lehen partidak Bergarako bikotekako frontenis txapelketan izena eman duten bikoteetako batzuek. Guztira, 61 bikotek eman dute izena uztailean zehar egingo duten txapelketan, "esperotakoa baino askoz gehiago".

Antolakuntzatik azaldu dute, uste baino bikote gehiagok eman dute izena aurtengoan: "Hogeita eta hogeita hamar bikote inguru espero genituen, eta, guztira, 61 bikotek eman dute izena; hasieran espero genuena baino dezente gehiago dira". Herritarren artean txapelketak harrera "ona" izan duela adierazi dute, eta jendea jokatzeko "gogotsu" dagoela.

Bikote mistoak

Neskei dagokienez, 11 bikote animatu dira txapelketan parte hartzera, eta 48, mutilen kasuan.

Bikote mistoen kasuan, bi bikotek eman dute izena. Astelehenean hasi ziren lehen partidak jokatzeko, bost, guztira, eta, antolakuntzatik zehaztu dutenez, egunero bost eta hamar partidua inguru jokatzeko asmoa dute. Hala, uztailearen 8an amaituko da lehenengo fasea, eta gero, kanporaketekin hasiko dira. Horrekin batera, antolatzaileek adierazi dute partidua guztien emaitzak Arrano tabernan eta Twitterreko *Bergarako kaleko pilota txapelketa* kontuan ikus daitezkeela.

Lau pilotalekutan

Begarako pilota sailaren eta Udalaren laguntzarekin antolatu dute bikotekako frontenis txapelketa. Segurtasun neurriekin, herriko lau frontoitan jokatu dituzte partidak: Boluko pilotalekuan, Udal Pilotalekuan, Angiozarren eta Osintxun.

Alderdiei beraien aldarrikapeneko konpromisoa eskatuz

Begarako pentsiodunek, astelehenero moduan, elkarretaratzea egingo dute uztailearen 6an, San Martin plazan, 12:00etan. Oraingoan, gainera, uztailearen 12an amaituko den hauteskunde-kampaina aprobetxatuz, pentsiodunek hauteskunde hauetara aurkezten diren alderdiei beraien aldarrikapeneko konpromisoa eskatuko diete. 1.080 euroko

gutxieneko pentsioa, pentsio guztiei gutxienez KPIaren igotzea bermatua eta %100eko alar-guntza-pentsioak, besteak beste.

Hauteskunde hauetatik aterako da Euskal Autonomia Erkidegoko hurrengo Gobernua aukeratzeko duen Gasteizko Legebiltzar berria. Euskal Autonomia Erkidegoko Pentsiodunen Mugimendutik adierazi dutenez: "Gobernu horrek, hein handi batean, gure bizitzak zuzenduko eta baldintzatuko ditu datozen lau urteetan".



Zazpikote formatuan arituko dira Espoioian: bi abeslari eta bost musikari igoko dira taula gainera. BERUMUGA EKIMENA

Tito Ramirez Comboren doinuak entzungai gaur

Berumuga ekimenaren baitan, Tito Ramirezek eta bere sei laguneko lantaldeak kontzertua emango dute gaur Espoioian. Latindar rock-and-roll, boogaloo eta shake-and-soul doinu dantzagarrienekin gozatzeko aukera eskainiko dute

Jone Olabarria BERGARA

Udako kultura eskaintzaren barruan eta Berumuga ekimenaren baitan, Tito Ramirez Combok kontzertua eskainiko du gaur Espoioian, 22:00etan. Hain zuzen, jatorri eta musika estilo ezberdinetako artistak gonbidatu nahi izan dituzte Berumuga programara Udalak eta Gaztelupeko Hotsak ekoiztetxeak, eta horietako bat da Tito Ramirez Combo. Hala, egitarau "interesgarria eta eklektikoa" osatu dute; boogaloo, musika latindarra, funka, soula, rock-and-rolla... entzuteko aukera egongo da. Azaldu dutenez, Euskal Herrian lehenengoz izango diren hainbat taldek egingo dute bat ekimenean ere.

Dantzatzeko musika

Gaur taula gainera igoko den artistari dagokionez, musika independentearen sarien bueltan ezagutu zuten Gaztelupeko Hotsak-ekoek Tito Ramirez. Zazpikote formatuan arituko dira

Bergaran, bost musikari eta bi abeslari ikusi ahalko dira taula gainean.

Identitate ezkutua

Bere identitatea mozerro baten atzean ezkututzen duen Tito Ramirez musikariak 2016. urteko azaroan kaleratu zuen lehen lana, binilo formatuan argia ikusi zuen *Lonely man* singlea.

Datorren aстера begira

Uztailak 8. 20:00
Turistreatzen kale antzerkia eskainiko du Trapu Zaharrak Konpainiak, San Martin plazan.

Uztailak 10. 20:00
The BO Dereck's taldearen kontzertua Espoioian, Berumugaren baitan.

Ordutik hona, latindar rock-and-roll, boogaloo, shake eta soul estiloekin igotzen da taula gainera, sei musikariz osatutako *combo* batek lagunduta doinu dantzagarriak interpretatzeko.

Dantzatzeko musika

Hain zuzen, honela deskribatzen ditu bere doinuak Martinezek: "Dantzatzeko musika". XX. mende erdialdeko erritmoak berreskuratu nahi izan ditu, musika anglosaxoikoak, baita herrialde hispano hiztunetakoak. Manbo estiloa da bere lehen ekoizpenean nagusi, baina soulak, txa-txa-txak eta rock-and-rollak pisu garrantzitsua dute.

Neurri bereziak hartuta

Espoioian 22:00etan eta doan egingo dituzte Berumuga ekimeneko ekitaldi guztiak. Edukiera mugatua izango dute eta ikusleek eserita egon beharko dute, distantzia mantenduz, aurrez antolatzaileek jarritako eserlekuetan.



Mikel Remak, Labegaraieta kiroldegiko horman mural bat egiten, iaz. BEART

Muralgintza ikastaroak harrera "oso ona" izan du aurten

Mikel Remak muralgile bergararrak eskainiko du ikastaroa, eta dagoeneko beteta daude leku guztiak

J.O. BERGARA

Aurretik egin bezala, mural ikastaroa egingo dute datorren astean Bergaran, Beart arte elkarteak antolatuta. Mikel Remak artista eta muralgile bergararra izango da irakaslea eta astebez muralgintzan trebatzeko aukera eskainiko du. Uztailaren 6an hasiko da, eta bost egunean eskainiko dute ikastaroa, uztailaren 10era arte, 10:00etatik 13:00etara, hain zuzen ere. Seguritasun neurriak direla eta, hamar lagunendako lekua izango du ikastaroak, dagoeneko beteta daudenak.

Gehiago egiteko prest

Bigarren aldia du ikastaroak, eta, BEARTetik adierazi dutenez, "pozik" daude harrerarekin. Lekuak bi egunetan bete dira, eta aurrerago halako ikastaro gehiago egiteko aukera aztertzen dabilzala adierazi dute.

Esperientzia handia

Mikel Remakek eskainiko du ikastaroa; 2000. urtean, Graffitiak margotzen hasi zen Bergarako kaleetan, Jokin Oregirekin batera. Gaur egun, horma-irudiak dira bere jardura artistiko nagusia.



IMANOL SORIANO

Bueltan da Bergarako banda

Alarma egoeraren osteko lehen emanaldi publikoa egin zuen Bergarako bandak joan den domekan, ekainak 28. Bidekurutzetatik irten ziren kalejiran eta hainbat geldialdi egin zituzten, ibilbidea ohi baino luzetxoagoa eginda; Fraiskozuri plazan eta Iargarai kalean ere geldialdiak egin zituzten.

Jar ezazu zure autoa puntu-puntu eta ondo pasa oporrak



**KARROZERIA
ZERBITZUA**
**MEKANIKA
OROKORRA**

Aingeru Guarda pasealekua z/g - 20540 Eskoriatza
943 71 42 94 - 650 634 434 - adei13@hotmail.com



ALMACENES LASCAR

a.laskar@laskar.es • www.laskar.es
Amillaga 32 • 943 76 10 38 / 943 76 19 11

GASOIL BANAKETA
OLIOAK (REPSOL)
OLIO ALDAKETAK
PNEUMATIKOAK ETA
GARBIKETAK

AUTOS RIBELOGA



Aukerako eta auto berrien
salmenta eta konponketa

Mekanika orokorra

Auto garbigailua

Karrozeria zerbitzua

Leihoen tindatzea

Torrebaso pasealekua - 20540 Eskoriatza
www.autos-ribeloga.com - Tel.: 943 71 00 95 / 943 71 0096



**BERGARA
PNEUMATIKOAK**

Pneumatikoak • Olio aldaketak • Mekanika azkarra

Leizeaga 1B BERGARA - Tel.: 943 76 36 27
bergarapneumatikoak@gmail.com | www.bergarapneumatikoak.com



**GALLASTEGI MOTORSPORT
APR / VAGSPEED GIPUZKOA**

Mekanika orokorra
Elektronikan adituak
Diagnosi zerbitzuak
Automozioko aholkularitza



Markulete industrialdea
Telleria 4, 5 pab. Arrasate
943 79 73 58 / 670 79 73 58

Reprogramazioko etxeen banatzaile ofiziala

ad Ibabe

G A R A J E A

TXAPA, PINTURA ETA MEKANIKA

Gesalibar auzoa 31 • Tel.: 943 79 99 61 • Faxe: 943 79 13 90



CITROËN

ION AUTOAK

Mekanika • Karrozeria • Pneumatikoak • Garabi zerbitzua

Amillaga 36, Bergara - Tel.: 943 76 47 49 - automovilesion@hotmail.com

MARKIEGI autoak



MARKIEGI AUTOAK
Mota guztietako autoen eta
autokarabanan konponketa
lanak egiten ditugu!

Leizeaga, 1 • 943 76 35 09
BERGARA

markiegiautoak@telefonica.net

Murillo Garajea



Leizeaga 4 • 943 76 13 84 • Bergara
www.eurotaller.com/taller/311/garaje-murillo

Bateria, argiztapena, aire
girotua, iragazkiak, balaztak,
pneumatikoak, olio nibelak...



Salmenta eta salmenta osteko zerbitzu osoa

Berezaio auzoa - Oñati - 943 71 80 85
Lizarragako hiribidea - Antzuola - 943 78 70 77

Ez ahaztu!

Deitu zure tailerrera eta
hitzordua eskatu!

AMG autoak

Torrebaso industrialdea 14-B • 20540 Eskoriatza
Telf.: 943 71 42 79



CITROËN Debagoieneko Citroën zerbitzu ofiziala



Kia zerbitzu tekniko ofiziala Arrasaten

30 urte baino
gehiagoko
esperientzia
**Abuztuan
golzez zabalik!**

San Andres auzoa 5
20500 ARRASATE - 943 79 45 22



CRISTALBOX



BERGARA
AUTOAREN KRISTALDEGIA / LAMINA BAIMENDUAREN INSTALAZIOA

943763609 / 674365742
desacristalbergara@gmail.com

www.desacristal.com

28 urte zuekin

GARAJE NORTE

OPEL zerbitzu ofiziala



Marka guztiak konpontzen ditugu

Autoaren zerbitzu osoa

BASABE POL. A 1-3. pab. - 20550 ARETXABALETA - 943 71 20 03

**GRUPO
EASO
MOTOR**

San Andres kalea 6,
20500 Arrasate
www.grupoeasomotor.com

HYUNDAI
Oarso Car

HYUNDAI 943 79 70 06

MUGARRI **Ford**

MUGARRI 943 79 07 44



Lagun Garajea

Santalaitz 3
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 76 11 20

Zure
zerbitzura!



KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

I.A.T. aurreko azterketa

Aingeru Guarda pasealekua 31. • ESKORIATZA
Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 40 10



San Andres 10 D • Tlf.: 943 77 30 10

Salmenta
Mekanika
Elektrizitatea
Pneumatikoak

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Salmenta eta salmenta osteko
zerbitzu osoa



Jose Mari Iparragirre eta Mila Etxezarreta batzordekideak Landatxopeko tabernan. MAIDER ARREGI

Elkarteko kideen zain ekintzak antolatzen

Astelehenean ireki ditu ateak berriro Landatxope elkarteak, hiru hilabete pasatxoren ostean. Elkarteko kideak, oso gutxika, tantaka, hasi dira elkarteaz gozatzeko. Batzordeak, babes neurri zorrotzak direla eta, bazkideei lasai joateko deia egin die

Maidar Arregi ANTZUOLA

Asteon ireki ditu ateak herriko Landatxope adinekoen elkarteak. Udalarekin adostuta, hamabost egunez batzordeko kideak arduratuko dira zerbitzua eskaintzeaz eta garbiketa lanak egiteaz. "Bina antolatzen gara eta egunero batzordeko kide bi egoten gara egoitzan bazkideei zerbitzua eskaintzeko", azaldu dute batzordeko kide Mila Etxezarretak eta Jose Mari Iparragirrek. Aitortu dute, baina, adinekoak oraindik beldur direla, batez ere, leku itxietan egoteko.

Osasun berme guztiak

Osasun neurri guztiak bermatzea dela lehentasuna azpimarratu dute bai Udalak eta baita ere Landatxopeko zuzendaritzako kideek. "Adinekoen osasuna zaintzea ezinbestekoa da. Horregatik, irekierarako neurri zehatzak hartu ditugu", jakinarazi dute Landatxopetik. Hala, egoitza astelehenean egubakoitzera egongo da irekita, 15:30etik

18:30era bitartean. Bazkideek terrazatik sartu beharko dute, Eguneko Zentroarekin konpartitzen diren eremuak ekiditeko. Tabernan juntako kideek zerbitzatuko dute, eta kontsumitzen dena ordaintzeko diru kopuru justua eramatea komeni da.

Garbitasun eta segurtasun neurriak betetzeko, eskuak gelarekin garbitu beharko dituzte sarreran eta irteeran. Maskara erabili beharko da, eta segurtasun-distantzia mantendu da barruan.

Podologia zerbitzua etxeko eskainiko da, alarma egoeran egin den bezala, eta batzordeko kide izango dira eguneko arduradunak. Beste edozein xehetasun egoitzan emango dela bertatik bertara azaldu dute.

LANDATXOPEREN ASMOA DA ASKOTARIKO JOKOAK ETA PELIKULEN EMANALDIK EGITEA

Ekintzak, prest

COVID-19ari aurre egiteko hartu duten osasun neurrien ondorioz, ezin da kartetan egin. Baina batzordetik aurreratu dute bestelako ekintzak eta jokoak egiteko asmoa badutela, eta bazkideak animatu gura dituzte guztien artean ekintzak antolatzen. "Badira elkartera jokoan egitera etortzeko ohitura dutenak. Orain ezin denez, ez dira etortzen. Hala ere, batzordetik esan nahi diegu guzti-guztiei hainbat ekintza egin gura ditugula. Denon artean erabaki dezakegu zer egin; izan ere, aukerak asko dira. Horretarako, ordea, elkartera etorri behar dute bazkideek, eta denen artean erabaki. Guk jada baditugu proposamenak, eta denbora-pasak prest ditugu. Gainera, erabileraren inguruan kartoiekin bingoa egin dezakegun aztertzen dihardugu. Zinema emanaldirako proiektorea ere prest daukagu", diote batzordeko kide Etxezarretak eta Iparragirrek.



Trenbide zaharreko bide berdeko tuneletako bat argirik gabe. M. B.

Trenbide zaharreko bide zatiak itxita jarraitzen du, oraingoz

Otsaileko lur-jausi baten ondorioz, tuneletako batek kalteak ditu eta COVID-19ak konponketa atzeratu du

Maidar Arregi ANTZUOLA

Joan den otsailetik trenbide zaharreko tuneletako bat eta inguruko errepide zati bat itxita daude. Izan ere, lur-jausi batek sarrerako arkuan kalteak eragin zituzten tunelari. Gipuzkoako Diputazioaren ardurak trenbide zaharreko bide berdea, eta teknikariak gaur dira erabakitzen zein lan egingo dituzten.

"Lur-jausiak Antzuolatik Bergara arteko noranzkoko tuneletako baten sarrerako arkua hondatu zuen. Horregatik da arriskutsua, eta itxita dago oinezkoendako. Lur-jausiak,aldi

berean, hainbat tuneletan automatikoki pizten diren argiak ere izorratu ditu", dio alkateak.

Hiru hilabetez geld

"Konfinamendu aurretik adostu genuen Diputazioarekin lanok egitea, baina hasierako kontratistarekin arazoak medio, eta ondoren alarma egoerak eraginda, lanak gelditu egon dira. Diputazioari bi teknikariek trenbidean dauden lur-jausiak ikusi ditugu jada, eta ingurua aztertu. Gaur dira teknikariak adostekoak eta jakinaraztekoak zehazki zein lan egingo diren bertan".

GORA ETA BEHERA



Galartzako bidea ez da zabartegia!

Galartzako bizilagun batek berriro obrako materialez betetako zabor poltsak azaldu direla salatu du. Udalak salaketa jarri du eta Ertzaintza ikertzen ari da, egilea harrapatzeko.



Arrolako mendizaleak, joan den asteburuan egin zuten irteeran. ARROLA TALDEA

Naturaz gozatzeko sasoia heldu da, azkenik

Arrola Mendizale Taldeak konfinamendu osteko lehen mendi irteera Aralarrera egin du. Herritar ugari, mendi gosez, irteeran parte hartzera animatu da. Arrolak, gainera, 2022an 50 urte beteko dituela-eta batzorde berezia antolatzeko asmoa dauka

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aralarko inguru ederretan barrera ibili dira Arrolako 19 mendizale eta *Kimu* txakurra. Izan ere, koronabirusak eragindako konfinamendu osteko lehen irteera arrakastatsua izan da. Amezketatik hasita, Arritzagara eta handik Pardelotusera eta Malloetara joan dira, 20 kilometro eginda. "Denetarik duen

irteera da, eta oso pedagogikoa: erliebearen plegamenduak, antzinako glaziarren bailara eta sedimentazioak, itsaso tropikalaren fosil desberdinak, artzaintzaren erabilera... Horren leku paregabeak ezagutzeak deskribatu ezin daitekeen emozioak azaleratzen dizkigu. Guztiok gonbidatuta zaudete hurrengo irteerarako!".

Arrolaren 50. urteurrena

2022an Arrola mendizale taldeak 50 urte beteko dituela-eta batzorde berezi bat antolatzeko asmoa dute. Horixe izan zuten, besteak beste, hizpide egin berri duten urteko batzarrean. Jada kide berriak ere hautatu dituzte: Jon Kortabarria, Ana Peñalba, Erlantz Iturbe eta Josune Iturbe, hain zuzen.



NIRE USTEZ

ALAITZ JAUREGI

Koronabirusaren alde onak

Gogorra izan da etapia, bai, batzuk kabidu ezinda, beste batzuk alkar zirikatzen, bakoitzak daki zein realidade bizi izen dabena. Baina nik beste gauza asko baloratu ditudut: jendiak euki daben sormena, pazientzia, hitz onak, ilusiñua, etab.

Pertsonalki sekulako sentimentu positibua jaso ditudut, ahaztuta geunzkan baloriak irten dabe berriz kanpora, eta hori danera transmititu da: bai musika konpartiu dabenak, laguntza eskaini dabenak, ekintzak antolatu ditudunak, arauak errespetatziaren alde egin dabenak lan, eta abar, eta abar.

Eskertzekua danei. Baina: txaluak umiendako, osasun zerbitzuendako, hirugarren adinekuendako... eta gaztiak zer? Ez dia existitu ala? Bi hilabete etxian gurasuei pegauta eta lan eta lan, horrek bai meritua galanta euki dabela! Eta ez jakue aipamenik be egin! Edade hortan dan zailakin!

Beraz, nere aldetik: zorionak gazte guzti-guztiori euki dozuen merituaittik!

Zuek bai ejenplua! Aupa zuek!



KALEBARRENGO JAI BATZORDEA

Jendea ibili da Kalebarrenen

Kalebarrengo jaietan jendea ibili da, eta "ondo" joan direla diote batzordetik. "Egubakoitzean herritar dezente ibili zen, eta zapatuan, marrazkien murala egin genuen lehen aldiz; iluntzean, berriz, txarangaz gozatu genuen, neurriak eta distantziak mantenduz. Domekan, ordea, ez zen haur askorik animatu ipuin kontaketa saiora".

Ondarea eta natura


Arrolak bere irteeretan mendizaletasunaz gozatzeko hautuaz gain badu bestelako xederik. Hala, irteera guztietan, paisaietako ezaugarri naturalak, ondarea eta tokian tokiko historia dituzte ardatz. Argazkian ikus daiteke azken irteeran taldeak Arritzaga bailaran egin duen geldialdietako bat. 3.000 urte dituzten kobre meategien historia ezagutu dute.



Arritzaga bailarako kobre meategia. ARROLA

Begiralearekin eta txandekin

Martxa onean abiatu du ur-parkeak denboraldia. Egunean bi orduko txandak egiten dituzte erabiltzaileek. Distantziak lurtean markatuta daude eta begiralea arduratzen da, besteak beste, osasun neurriak berma daitezen ur-parkean. Komunak garbitzeaz ere begiralea arduratzen da. "Oraingoz, neurriak ondo betetzen dihardute neska-mutikoe", dio.



MAIDER ARREGI

Ohiko jairik ezean, keinu berezia Ferixa Nagusiari

Goienak Ferixa Nagusiari buruz egindako saio berezian, jaietan protagonista izaten diren pertsonen testigantzak eta esperientziak jaso dira, elkarrizketen eta erreportajeen bitartez. Saioa girotzeko, gainera, musika doinuak ere izan dira

Maialen Regueiro ELGETA

Egoera arruntean, atzo emango zitzaien hasiera Ferixa Nagusiko jaiiei, baina koronabirusak eragindako egoerak ez du jairik ospatzea ahalbidetu, eta Udalak, gainera, ez du inolako ekitaldirik antolatu egun hauetarako. Iraitz Lazkano alkateak ohartarazi duenez, "elkar zaintzeko momentua da".

Kontuak kontu, Goienak Ferixa Nagusien inguruko saio berezia eskaini zuen atzo, non jaietan protagonista izaten diren hainbat pertsonaren bizipenak eta esperientziak ezagutu ahal izan ziren. Eta ohiko jaietako ohitura mantentzeko helburuarekin, Beñat Egidazu alkate txikia izan zen, eta honela zuzendu zitzaien herritarrei saioari hasiera emateko: "Umeen konfinamenduko jarrera oso ona izan da eta jaietarako aurreztutako diruarekin sorpresa bat jasotzea gustatuko litzaiguke".

Alkatea, ganaduzalea eta beste

Iraitz Lazkano alkatea eta Ane Bilbao zinegotzia aurtengo jaiak bertan behera uzteari buruz mintzatu ziren, besteak beste. Udalarentzat ez da erabaki erraza izan, eta, azken asteetan hainbat herritarren aldetik proposamenak jaso badituzte ere,

lehentasuna osasuna dela berretsi zuten.

Agustin Beretxinaga saioko beste protagonistetako bat izan zen, eta ganaduzale elgetarrak Ferixa Nagusiko azokaren inguruan hitz egin zuen. Horrez gain, ganaduzaleek gaur egun bizi duten egoera azaldu zuen; izan ere, Beretxinagaren esanetan, pandemia iritsi ezean, zaila zatekeen azoka antolatzea, horri ganaduen osasun legearen afera gehitu behar zaiolako.

Jaietako ohiko ekintza izaten da herri bazkaria, eta bertan jaten den paella prestatzen aritzen den Emilio Quintanak ere tarte bat hartu zuen saioan parte hartzeko. Gauza bera egin



Beñat Egidazu alkate txikia. NEKANE MUÑOZ

zuen Sevillan bizi den baina aurtengo jaietako kartel lehia-keta irabazi duen Juan Antonio Aguilarrek.

Eskuz egindako produktuak

Elgetarrek jaiiei eta herriko bitxikeriei buruz zenbat dakiten argi geratu zen atzoko saioan, herritarrek zirikatzen aritu zuten eta Aitor Agiriano.

Horrekin batera, jaietako azokan produktuak saltzen dituzten artisau zein ekoizleek beraien esperientziaren berri hitz egiteko aukera izan zuten. Pili Arinek, adibidez, Elgetako azokan soilik saltzen ditu berak eskuz egindako produktuak. Aurten, gainera, amets-harrapakariak eginda zituen nobedade gisa, baina egoerak behartuta lagunartean eta familiar banatu ditu. Juan Mari Arantzeta, berriz, ezta saltzeko postua jartzeko du azokan, eta aurten faltan igarriko du, egun berezia izaten da eta.

Musika doinuak

Ferixa Nagusiko jaiiei keinu egiteko, musikak ere izan zuen tokia. Ainhoa Sanchezek eta Aitor Sarasuak trikiti eta pandero doinuak eskaini zituzten eta Ustekabe txarangakoek ere jai ukitua eman zioten saioari.



Pili Arin, berak egindako eskulanekin. LARRAITZ ZEBERIO



Juan Mari Arantzeta ezti saltzailea. LARRAITZ ZEBERIO



Goiena telebistak eskainitako saioaren une bat. NEKANE MUÑOZ

Hamabost gazte arituko dira uztaileko zaintza zerbitzuan

Zaintza zerbitzua uztailearen 6tik 31ra bitartean izango da eta gaztetxoekin hiru hezitzaile arituko dira

M.R. ELGETA

2001etik 2008ra bitartean jaiotako hamabost neska-mutikok Udalak eskainitako zaintza zerbitzuaz gozatu ahal izango dute uztailearen 6tik 31ra bitartean, eta, Iraitz Lazkanok adierazi

duenez, gainera, Udalak ezarritako edukiera ez da gainditu eta ez da gaztetxorik kanpoan geratuko.

Hamabost gaztetxoekin batera hiru hezitzaile arituko dira eta gurasoek dagoeneko izan dute

hezitzaileekin bilera, zerbitzua- ren nondik norakoak ezagutzeko asmoz.

Nerea Villa izango da uztaileko zerbitzuan arituko den hezitzaileetako bat, eta aurreratu du aurtengo elkargunea eskola izango dela eta umeei sarreraren oinetakoak desinfektatuko zaizkiela. Lehenengo egunean, esate baterako, koronabirusaren inguruko jarduerak egingo dituzte eta altxorraren bila edota ur-jolasak izango dira bestelako jarduerak batzuk.

Bihar Eibarren egingo den mobilizaziorako autobusa egingo da

Bihar, zapatua, manifestazioa egingo du Zaldibar Argituk Eibarren, bost hilabete igaro ostean, erantzukizunak eskatzeko asmoz. Irteera 17:00etan izango da, Untzagatik, eta Elgetatik autobusa egingo da mobilizaziora joan ahal izateko. Horretarako, izena eman behar da Haizea tabernan. Eibarrera joateko autobusa 16:15ean abiatuko da Elgetatik

eta buelta, berriz, 19:30ean izango da.

Horrez gain, Zaldibar Argitu plataformak egindako zozketaren zenbaki saritua 20a izan dela jakinarazi du. Ordezkoa, berriz, 145a da. Hala, irabazleak 15 eguneko epea izango du saria jasotzeko.

Zaldibar Argitu plataformak, gainera, txapak sortu ditu eta hainbat herritako tabernetan daude eskuragarri. Elgetan, esate baterako, Haizea tabernan eros daitezke, euro baten truke.

Aurtengoa amaituta, ikasturte berrirako prest

Eskolako ikasle zein ikasleek modu ezberdinean eman diote amaiera aurtengo ikasturteari, egoerak hala behartuta. Eskolak aurreikusten du irailaren 7an ikasleak klase presentzialetara itzuliko direla, neurriak hartu beharko badituzte ere

Maialen Regueiro ELGETA

Hiruhileko bat baino gehiago etxean igaro ostean, aurtengo ikasturteari amaiera eman dio eskolak, agurra Meet aplikazioa erabilita egin badute ere. Libe Iñurriarrok eskolako zuzendariak adierazi duenez, eskolaren nahia ikasturtea beste modu batera amaitzea zen, baina osasun krisiak ez du hori ahalbidetu. Horrekin batera, Iñurriarrok esan du ikasle guztien familiei eskertza ohar bana bidali zaiela egoera honetan egin duten "ahalegina" eta seme-alaben ikasketa prozesuaren jarraipenean hartutako "konpromisoa" eskertzeko asmoz. Mezuan aipatzen da, baita ere, uda ostean eskolak ikasgela fisikoetara itzultzea espero duela.

Irailaren 7a

Iñurriarrok jakinarazi duenez, datorren ikasturtean 127 ikasle arituko dira eskolan: "Kurtso hasierako ebazpena eta protokolo bat jaso dugu Hezkuntza Saitetik, non hiru agertoki aukera proposatzen diren. Guk kurtsoa hasteko data irailaren 7an ezarri dugu eta hala jakinarazi diegu 127 ikasleen gurasoei, baina ez dakigu zein egoeratan egongo garen. Dagoeneko irailerako prestakuntza lanetan hasi gara, baina udan koronabirusaren eragina nolakoa den ere ikusi beharko dugu".

Bilera Guraso Elkartearekin

Guraso elkarteak asteon izan du bilera eskolako zuzendari-tzarekin eta Ainara Iribar elkartearen kideak adierazi du bileraren hasierako gaia ikasturte amaiera izan bada ere, fokua datorren ikasturtean jarri dutela. Hala, eskolak Hezkuntza Sailak proposatutako hiru agertokien xehetasunak eman ditu aditzera, eta, Iribarrek aitortu bezala, eskola lehen agertokiko baldintzak beteko direlakoan



Herri eskolaren eraikinaren kanpoaldea. MIREIA LARRAÑAGA

DATORREN IRAILAREN 7AN HASIKO DUTE IKASTURTE BERRIA 127 GAZTETXO ELGETARREK

dago; ikasleak klase presentzialak jasotzeko moduan egongo direlakoan, alegia. Espazioari dagokionez, Guraso Elkarteko kideak azaldu du hori ez dela arazo izango: "Eskolako eraikina nahiko handia da eta geletan ikasleen arteko metro eta erdiko distantzia bermatzeko ez da arazorik egongo". Horren harira, eskolak dagoeneko aurreratu ahal izan die Guraso Elkarteko kideei zeintzuk izango diren ikasturtea hastearekin batera hartu beharreko neurriak: ikasleen sarrera mailaka egitea, Haur Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetakoei maskara ez erabiltzea -hirugarren mailatik aurrera maskara eraman beharko dute-, jolastorduak txandatan egitea eta ikasgeletan metro eta erdiko distantzia mantentzea. Bigarren agertokia ere hizpide izan da bileran, Iribarrek

azaldu duenez: "Agertoki hau ez da hain positiboa. Batzuek klase presentzialak izango litzukete eta beste batzuk etxetik arituko lirateke, nahiz eta eskolak aukera hau baztertu egin duen, momentuz".

Jangelaren egoera

Iribarrek azaldukoaren arabera, Hezkuntza Sailak eskolari proposatutako hiru agertokiez gain, ez du jangelari buruzko inongo proposamenik egin, eta horrek kezka eragin du Guraso Elkarteko kideen artean: "Ez dakigu jangelarekiko zer erabaki hartuko diren, protokoloetan eta proposamenetan ez delako gai horri buruzko ezer aipatzen. Gure kasuan, metro eta erdiko distantzia mantendu beharko balitz, esate baterako, arazoak izango genituzke".

Eskolaz kanpoko jarduerak

Iribarrek adierazi duenez, ingeleseko klaseak urrian hasiko lirateke: "Akademiatik adierazi digute saiakera egingo dutela". Taldeko gutxienez zazpi ikasle egon behar dute, eta gurasoei irailaren emango zaie jarduera honi buruzko informazioa.



MIREIA LARRAÑAGA

Desinfekzio lanak haur parkeetan

Alarma egoera amaitzearekin batera, herriko haur parkeak erabilgarri daude berriro eta brigadako langileek desinfekzio lanak egiten dituzte egunero, protokoloaren agindua betez.

Udalak, gainera, oharrak jarri ditu parkeetan. Izan ere, lau metro koadrotan pertsona bakarra aritu daiteke.

Liburutegiak udako ordutegia izango du irailaren 6ra arte

Liburutegiak ekainaren lehen ireki zituen berriro atea eta ekainaren 22tik irailaren 6ra bitartean udako ordutegia izango du: astelehenetan 14:30etik 20:00etara eta martitzenetik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara bitartean.

Aurrerantzean, gainera, ez da txandarik hartu beharko liburutegira joan ahal izateko. Hala

ere, liburutegiko arduradunek gogorarazi dute ezinbestekoa dela zehaztutako erabilera eta segurtasun neurriak errespetatzea; besteak beste, noranzkoak betetzea eta segurtasun neurriak aintzat hartzea.

Bestalde, *Artista liburuak* sormen lehiaketara aurkezteko azken eguna ekainaren 18a izan zen, eta lau lan aurkeztu dituzte. Orain, sari banaketa egitea egokitzen da, baina berau atzeratu egin dute eta data zehazteko dago oraindik.

GORA ETA BEHERA



KOMUNITATETIK

Zaborra lurrean utzi du herritarren batek

Domingo Iturbe kalean dagoen hondakinen gunean edukiontzira sartu gabeko zabor poltsa bat utzi zuen herritarren batek igaro den astean, eta poltsa, gainera, apurtuta zegoen.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Oñatiko Euskaraldia batzordeko kideak. EUSKARALDIA OÑATI

Herriko entitateak hasi dira Euskaraldira batzen

Dagoeneko herriko hamabost enpresa, erakunde eta elkartek agertu dute Euskaraldian parte hartzeko asmoa; seitan identifikatuta dituzte ariguneak. Herriko eragileei eta komertzioei ere gauza bera egiteko eskatuko die herriko batzordeak

Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko Euskaraldia batzordea ari da lanean herriko entitateak egitasmoa batzeko. Dagoeneko herriko hamabost enpresa, erakunde eta elkartek agertu dute Euskaraldian parte hartzeko asmoa. Baina gehiago ere izan daitezke, batzordeko kideek jarraitzen dutelako Euskaraldian zabalkundea egiten.

Irailaren 27ra arte

"Euren atxikimendua eman duten entitate horietako seik dagoeneko identifikatu dituzte ariguneak, euskaraz aritzeko espazioak. Bestek konpromisoa erakutsi dute eta gune horien identifikazio lanetan ari dira orain", adierazi du Oñatiko Euskaraldia batzordeko kide Xabier Zabaletak. COVID-19a dela-eta irailaren 27ra arte luzatu da entitateen izen-ematea, eta batzordeak gutunak prestatu ditu herriko eragileen, erakundeen, enpresen edo bestelako talde eta negozioen artean banatzeko.

Ahalik eta zabalkunde handiena egingo dutela adierazi du Zabaletak, eta eurekin harremanetan jartzeko bidea ere eskaini du: onati@euskaraldia.eus. "Informazioa eskatzeko zein batzordeko kide izateko ere erabil daitezke".

Pandemiaren eragina

COVID-19 birusak izan du eragina Euskaraldian ere. Batzordeak lanean jarraitu duen arren, ez dituzte pentsatutako gauza guztiak egin ahal izan. "Bagenuen asmoa, adibidez, aurrez aurreko aurkezpenak egiteko herriko enpresa edo bestelako erakundeen aurrean, baina ezin izan ditugu egin. Agerraldi ireki bat egitea ere pentsatuta genuen,

ARGAZKIAK
ATERATZEN DABILTZA
ETA BIZPAHIRU ASTE
BARRU MUNTAIA BAT
EGINGO DUTE

baina hori ere ez da posible izan", dio Xabier Zabaletak.

Hala ere, batzordeak lanean jarraitzen du modu batera egin ezin dituen horiek beste modu batera egiteko edo beste zerbait antolatzeko. Orain, esaterako, herriko zerbitzuekin egon gura dute, dendak, tabernak eta bestelako negozioak Euskaraldira atxikitzeko eskatzeko. "Egoera delikatua da, eta, agian, kosta egingo da dendak eta negozioak aktibatzea, baina orain artekoa ondo joan da, ondo erantzun digute egon garen komertzioetan, eta horrela jarraituko duen esperantza dugu". Bizpahiru aste barru argazki sortekin muntaia bat egiteko asmoa ere badute.

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo da aurten Euskaraldia ariketa. Orain, entitateen izen-ematea egingo da, eta gero etorriko da norbanakoen, herritarren, txanda. Urrietik aurrera herritarrek esango dute *ahobizi* edo *belarriprest* izango diren.



Zinegotziak, musukoekin eta ezohiko eserlekuetan, ekaineko osoko bilkuran. O.E.

D2030 egitasmoan lankidetzaz hitzarmena sinatuko du Udalak

Azken hiru osoko bilkurak telematikoki egin ostean, osoko bilkuren aretoan egin dute ekainekoa

O.E. OÑATI

Debagoiena 2030 egitasmoa sustatzeko lankidetzaz hitzarmena onartu du, aho batez, Oñatiko udalbatzak. "Berdintasuna, hizkuntza, klima aldaketa... bezalako oinarriak ditu egitasmoak. Eragile asko daude sartuta eta erronkei erantzuna emateko proiektu txikiak egingo dituzte eta Debagoienean txertatu gero", azaldu zuen alkateak, Izaro Elorzak. Oposizioak ere alde bozkatu zuen. "Etorkizuneko erronkei aurre egiteko garrantzitsuak ikusten ditugu plataforma ireki honetan aurrera eramango diren egitasmoak", adierazi zuen Ainhoa Galdosek, EAJren udal bozeramaileak.

Bestalde, LGTBI egitasmoaren gaineko mozio bateratua aurkeztu zuten alderdi biek ekaineko osoko bilkuran: "Eta Udal honek LGTBI pertsonen esku-bideekin urteko egun guztietan

duen konpromiso politikoa berretsi".

Langilearen egoerak, onera

Bestalde, udalbatzako alderdi biek adierazi zioten euren babesa duela aste pare bat Zubikoako obretan lan istripua izan zuen langileari. Zubikoako kiroldegiko eraberritze lanak egiten ari den enpresa bateko langilea lan eremutik kanpo dagoen tenis pistetako harmailetatik behera erori zen. Gasteizko ospitalera eraman zuten eta bere egoerak onera egin duela aipatu zuen alkateak. "Pauso faltsu bat eman zuen atzeraka, eta harmailetatik behera erori zen. Apurte batzuk izan ditu, baina hobera egin du, hobeto dago. Momentuko erantzuna izan zen espazio hori ixtea, eta orain, aztertzen ari dira benetan arriskua egon daitekeen edo ez toki horretan", zehaztu zuen alkateak.

Euskarazko C1 maila prestatzeko ikastaroa egongo da irailan

Irailaren 1etik 25era egingo dute Bedita Larrakoetxea udal eskolaren euskarazko C1 maila prestatzeko ikastaroa. Goizetan izango dira eskolak, 08:30etik 13:15era; 80 ordu, guztira. Ikastaro horretako matrikulazioa, baina, orain egin behar da, uztailaren 15a da egiteko azken eguna. Eta ikastaroaren prezioa 117,30 euro da.

30 minutuko txandak egongo dira ur txorrotan parkean

Ur-uhinen parkearen erabilera ezberdina da aurten. Hesia dago jarrita inguruan eta 22 ume sartu ahal izango dira aldiro. 30 minutuko txandak izango dira eta aurrez hartu beharko dira: gunean egongo diren zaintzaileei eskatuta edo hona deituta: 698 93 38 74. 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etik 20:00etara egongo da zabalik.

Birusak baldintzatutako ekintzak udako zaintzan

Taldeak ez gurutzatzeko moduan dituzte antolatuta ekintza guztiak udako zaintza hezitzailean, eta herriko hainbat puntutan elkartzen dira taldetxoak; nagusienak Bidaurretatik gora eta txikiak, handik behera. Temperatura hartuz hasten dute goiza

Oihana Elortza OÑATI

Aurreko urteetako udalekuetan, ekintzak, batez ere uretakoak, egunez aldatu izan dituzte eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta. Aurten, baina, Usakora joateko eguna heltzen denean euria egiten badu, talde hori Usakora joan gabe geldituko da, adibidez. "Ekintzak ditugu prestatuta taldeak ez daitezela elkar edo gurutzatu, COVID-19aren ondorengo neurriak kontuan hartuta. Beraz, pena da, baina horrelako aldaketak ezingo ditugu egin", dio begiraleetako batek, Leire Zelaia.



Gaztetxo talde bat Bidaurretan, udako zaintza hezitzaileko lehen egunean. O.E.

226 neska-mutiko

Hamahiru gaztetxo daude Leire Zelaia eta Aitana Gereta begiraleen taldean. "Ume nagusien begiraleok Eltzian dugu materiala eta Bidaurretatik gorako hainbat puntutan ditugu topalekuak eginda eurekin elkartzeko. Txikienekin daudenak, berriz, gaztelekuan", dio Geretak.

Koronabirusak eragindako ondorioengatik, material asko ezin dute elkarbanatu, eta bestelako ekintzak antolatu dituzte aurten. Handienekin, esaterako, ibilaldiak egingo dituzte herrian eta landa auzoetan barrena; He-

rribus erabiliko dute hainbatetan. Eguraldia txarra denean, Eltziako geletan elkartuko dira batzuk, adibidez. 09:00etan elkartzen dira eta temperatura hartuta eta eskuak garbituta hasten dute goiza.

Martitzenean da jai batzordearen bigarren bilera irekia

Herriko jaiak zelan ospatu adosteko bilera izango da norbanako zein eragileekin, kultura etxean, 18:00etan

O.E. OÑATI

Irailaren amaieran eta urriaren hasieran izango diren herriko jai nagusiak zelan ospatu ari da adosten Udaleko Kultura Departamentua jaietan parte hartzen duten eragile zuzenekin. Joan den astean egin zuten lehen bilera, eta bigarrena martitzenean, uztailak 7, izango da, kultura etxean, 18:00etan Bilera irekia izango da eta norbanakoak zein eragileak joan daitezke.

Lehen bileran, esaterako, danborradetako parte-hartzaileak, Herri Eguna antolatzen ibiltzen

den Nekazarien Elkarteko ordezkariak, margo taldekoak, txosna batzordekoak, talogileak eta Artzain Txakur Txapelketa prestatzen ibiltzen direnak egon ziren. Baita Udaleko Kultura eta Gazteria batzordean dauden zinegotziak ere. Bakoitzak bere kezka azaldu zituen, bere galderak egin, baina ez zen ezer argitu. Ordutik hona, jaiak ospatzeko Eusko Jaurlaritzak zehaztu duen dekretua lantzen ibili dira, eta martitzeneko bileran ideia eta galdera gehiago elkartrukatu dituzte.

Itxita ohiko pasealekua

Paseoa egiteko ohiko bidea izaten da herritar askorendako Murgia eta Olabarrieta artekoa, baina hil honen lehen egunetik itxita egongo da Asentziotik Aiastuirako bide zatia, obrak egin behar dituztelako. Arretxe baserri pareko errepidean egingo dituzte. Baserritarrekin adostuta, urak bideratu eta harri-lubeta berria egingo dute. Hilabete inguru iraungo dute lanek.




O.E.

Zer egingo duzu udako zaintza hezitzailean?




IRAIA ARREGI
LH-6

"Elkarren ondoan egoteko musukoak, maskarak, jantzi behar ditugu, eta hori da traba handiena egiten didana. Lehenengo egunean, elkar ezagutzeko jolasak egin ditugu. Hurrengo egunetan mendi irteera txikiak egingo ditugula esan digute, eta, agian, Herribusean ibiliko garela".



ETZAHUN LIZARRALDE
LH-6

"Aurten 09:00etan hasten dira, baina ez dit askorik axola, goiz jaikitzen naiz eta. Guretako prestatutako ekintzen egitaraua eginda dutela esan digute begiraleek goizean. Usakora, adibidez, hiru aldiz joango garela uste dut eta euria egiten duen egunetan kiroldegian egingo gara".



MILENA ACOSTA
LH-4

"Duela bi urte etorri nintzen Oñatira Paragaitik, eta, harrezkero, urtero eman dut izena udalekuetan. Beste neska-mutiko batzuk ezagutzen ditut hemen eta lagunak egiten ditut; gero, kalean ikusten ditut asko. Bezperan prestatzen ditut arropa eta motxila hona etortzeko".



NIRE USTEZ

XABIER GESALAGA

Kandelak

Eta... plaf!! Dena ilun, bare.

30en bat urte atzera, neguan, etxeak, denbora batez argi gabe gelditzea ohikoa zen. Kandela zuri luzeen momentua iristen zen.

Gozo argizatzen zuten sukaldeko mahai ingurua. Ez telebistatik, ez eta bestelakorik, kito etxeke erosotasunak. Aitak anaiari eta bioi bere haurtzaroko pasarteak kontatzen zizkigun, amak kanpin-gasarekin kozinatzen zuen bitartean. Iluntasunaren beldur ginen, baina magia gozo batek betetzen zuen etxea, kandelen argi eta usain gozoaren babespean. Eta hoge minutuko tartean, han kanpoan, mundua aldatuko zen fantasia ezia senti nezakeen.

Bat-batean... plas! Plastada batek itsutzen gintuen! Argi guztiak piztuta, baita telebista ere, eta labadora! Magia di-da batean galtzen zen! Kaka! Azken 3 hilabete hauetan bizi izan dugun egoera zoro honek argia joaten zeneko pasarte haiek ekarri dizkit gogora... Etxean, babesaren eta beldurraren arteko borroka eta mundua alda zitekeen fantasia ezia. Baina, antzina bezala, magia di-da batean galdu da! Kaka!

"Ilusio berezia egiten dit Debagoienera itzultzeak"

ESTITXU PINATXO ABESLARIA

Mikel Santxezekin batera Dama Beltzak proiektuan murgilduta dago Estitxu Pinatxo. Uztailaren 8an, Lazarragako lorategian arituko dira. Sarrerak aurrez hartu behar dira

Maialen Santos OÑATI

Bost urtez Debagoienean –Arrasaten– bizi izan den arren, azken bi urteak jaioterrian, Beran (Nafarroa), eman ditu Estitxu Pinatxok. Bost emakume beltzi omenaldia egiten dion Dama Beltzak proiektuarekin izango da Oñatin datorren eguaztenean. Lazarragako lorategian eskainiko du emanaldia, 19:00etan. **Zein proiektu dituzu esku artean?** Une honetan, bi ezberdinekin ari naiz. Alde batetik, azaroan atera nuen lehen disko propioaren –*Haize gorri batek*– bueltako emanaldiekin nabil. Eta bestetik, Dama Beltzak proiektuarekin. Elkarren artean independenteak dira; eta azken honekin izango naiz Oñatin.

Zertan datza proiektua?

Dama Beltzak Mikel Santxezek eta biok elkarrekin sortutako proiektua da. Aspaldi geneukan elkarrekin zerbaite egiteko gogoia, eta halaxe jaio zen, elkarlanetik. Santxez batera-jolea da, berez; baina baziren urteak gitarra ikasteko gogoia piztu zitzaioela. Ni neu pianoa ikasten hasi nintzen. Eta, bi instrumentu horiek oinarri hartuta, erronka modura sortu genuen proiektua, ilusio handiz.

Musika beltza egiten duzuela diozu...

Musika propioa egiteko orduan, musika beltzaren ukitua nabarmentzen da, zeharo. Abeslari naizenez gero, betidanik joan izan zait belarria ahots horietara; are gehiago, esan dezaket ahotsik onenak musika beltzean topatu ditudala.

Bost emakume beltz omendu gura dituzue...

Halaxe da. Esan daiteke musika beltza egiten aritu ziren bost emakumeri omenaldia dela Dama Beltzak. Oso hutsune garrantzitsua bete zuten, esaterako, blue-sean. Emakumeek komertzializatu zuten musika mota hori. Baina atzean geratu dela uste



Estitxu Pinatxo kontzertua eskaintzen. ESTITXU PINATXO

"MUSIKA BELTZA EGIN ZUTEN EMAKUMEAK OMENDU GURA DITUGU GURE PROIEKTUAREN BITARTEZ"

ditu, eta, nolabait, ikusarazi egin gura genuen.

Zeintzuk dira emakume horiek?

Ella Fitzgerald, Nina Simone, Roberta Flack, Etta James eta Aretha Franklin. Ikurretako batzuk dira, baina gehiago ere badaude, jakina.

Nola omentzen dituzue, zehazki?

Ordubete inguru irautean du gure emanaldiak, baina ez dugu musika bakarrik egiten. Emakume bakoitzaren esperientzia eta istorioa kontatzen ditugu, eta jarraian, beren kantarik esanguratsuenak interpretatzen ditugu. Pianoa eta gitarra lagun izaten ditugu, beti.

Lehen aldiz eskainiko duzue kontzertua Oñatin?

Oñatin bai. Baina Debagoienean askotan egon naiz. Are gehiago, Arrasaten bizi izan naiz bost urtez, Bergaran lan egiten nuelako. Aitortu beharra daukat

ilusio berezia egiten didala Debagoienera itzultzeak.

Elgetan ere izango zara laster, gainera...

Bai, uztailaren 24an. Eta neguan ere izan naiz Arrasaten eta Bergaran, emanaldi banatan.

Ibilbide luzea egin duzu musikan...

Egia esatearren, oso gazte hasi nintzen. Kantu txapelketetan estreinatu nintzen, eta horri esker deitu ninduten Egan erromeria taldetik, 15 urte soilik nituela. Josetxo Goia-Aribek ere deitu ninduen, berarekin jazzaren inguruko disko bat grabatzeko. Gerora, beste lan batzuk ere egin ditut, eta musika egin ahalaz bat estilo ezberdinak probatuz joan naiz.

Telebistan ere aritu izan zara...

Bai. Batzuetan, abeslari. Eta beste batzuetan, ostera, epaile. Gainera, horren ostean etorri ziren bestelako batzuk; besteak beste, *Egunsentiaren kantak* proiektua.

Bidea egiteak zauden tokian egoten lagundu dizu?

Zalantzarik gabe. Poliki-poliki joan naiz jendea ezagutzen; tartean, musikari ezberdinak, eta horren harira iritsi naiz gaur egungo egoerara.



Erregional Preferentekoak UDaren aurkako partidu batean, Azkoagainen. GOIENA

Aloña Mendiko futbol sailaren batzar orokorra gaur izango da

Aktaren onarpena, kirol balantzea, balantze ekonomikoa eta klubeko bazkideen kuotak izango dituzte berbagai

M.S. OÑATI

Kirol elkartearen egoitzan bilduko dira, 19:30ean, urteko ohiko batzarra egiteko. Hasteko, aurreko akta irakurri eta onartuko dute. Gero, denboraldi honetako kirol balantzea egingo dute. Horren harira, Jabi Agirre futbol saileko komunikazio arduradunak aurreratu du balantzea "positiboa" dela, talde nagusia mailaz igo delako: Erregional Preferentetik, Ohorezko Erregionalera. "Pandemiaren eraginez ez genekien Federazioak zein erabaki hartuko zuen; eta, beraz, pozik gaude emaitzarekin". Gainontzeko taldeek ere "lan ona" egin dutela nabarmendu gura izan du Agirrek.

Kirol balantzea ez ezik, ekonomikoa ere "positiboa" dela adierazi du; 1.500 euroko superabitarekin amaituko dute denboraldia, eta babesleen ekarpena "eskertu" gura dute. Aurrera

begira, taldea mailaz igotzeak "aldaketa esanguratsurik" ez duela eragingo uste du.

Halere, azaldu du datorren denboraldian bazkideen kuota-ekin nola jokatu ere izango dutela berbagai batzarrean. Hain justu, aitortu du bailarako beste talde batzuekin harremanetan jarri direla, euren jokatzeko modua ezagutu eta datorren urteko bazkide kuotan "murrizketaren bat" aplikatzeko aukerarik ba ote dagoen jakiteko.

Obrak, hastear

Denboraldia irailen edo, beranduenez, urrian hastea espero du arduradunak; eta ordurako Azkoagaingo obrak amaituta egotea gurako lukete. Zehazki, azaldu du zelai inguruko sarea eta argiteria aldatu berri dutela, baina datozen asteetan hasiko direla aldagela zaharrak eraitsi eta berriak egiteko lanetan.

80.000 euro banatuko ditu Udalak, kultura arloro bideratuta

Udaleko Kultura Departamentuaren dirulaguntzen deialdian bi laguntza lerro biltzen dira: batetik, kultur proiektuak eta programak gauzatzeko 66.000 euroko diru poltsa; eta bestetik, Oñatin, irabazi asmorik gabeko taldeek garatuko dituzten kultur sormen lanak egiteko 14.000 euroko beste poltsa bat. Lehenengorako dirulaguntzak kultur

arloro ekintza bat edo programazio oso bat antolatzen duten talde eta erakundeek eskatu ditzakete –betiere, proiektua Oñatin gauzatzen bada–. Bigarren lerrokoak, aldiz, Oñatiko sortzaileei zuzenduta daude, talde eskatzailearen erdiak edo banakako eskatzaileak Oñatin errolatuta egon beharko baitute. Musikagileen maketen grabazio eta ediziora, komiki eta fanzineen ediziora... bideratuta daude. Horiek eskatzeko epea uztailaren 27an amaituko da.

Udazabal 2020



Uztailak 03
20:00
Jokin Zategi

TIO TERONEN SEMEAK
"FESTAMENTUA"

Uztailak 08
19:30
Uztarbe

XABI SOLANO MAIZA & DANTZARIAK
+IDOIA ASURMENDI

Uztailak 10
20:00
Jokin Zategi

HUTSUN +ORTZI
"URBASA"

Uztailak 15
19:30
Aldai

KEU AGIRRETxea & PABLO NOVOA
+LEIRE ETXEZARRETA

Uztailak 17
20:00
Zaldibar

OSA +MUJIKA
"EXPECTATIONS WILL NOT KILL YOU"

LASALA
"FIGHT"

Uztailak 22
19:30
Ombak y Oso

LA FURIA +DUPLA

Uztailak 24
20:00
Seber Altube

TRAPU ZAHARRA
"TURISTREANDO"

Uztailak 25
19:30
Monterron

KAMERATA EUSKDIVARIUS
BEETHOVENEN 6. SINFONIA "PASTORALA"

Uztailak 28
19:30
Santa Teresa

SWINGTRONICS
+NHIL

Uztailak 29
19:30
Monterron

GARI & +SERGE
MALDANBERA

Uztailak 30
22:30
Zaldibar

MARKELIÑE
"PSIKE"

GAUEKO ANTZERKIA



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



OSAKUTZA
KULTURA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTUEN KULTURAREN
POLITIKA ERATZEA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Jaso zure sarrera Amaia antzokiko leihatilan
uztailak 1etik 9ra astelehenetik ostegunera
18:00etatik 20etara

Edukiera: 250 aulki



Exkerretik hasita, Ruben Viso, Igarki Paskual eta Joseba Azkarate. IMANOL BELOKI

"Gogoa izanez gero, gutako edonork egin dezake edozer"

JOSEBA AZKARATE, IGARKI PASCUAL ETA RUBEN VISO ANTIXINTXIKAKO KIDEAK LANA Antxintxika izena du Debagoieneko triatloi taldeko sail berriak, eta, oraingoz, hiru kide izango ditu; astean egin dute aurkezpen ekitaldia, Oñatin

Xabier Urzelai ARRASATE

Pandemia egoera dela eta, lasterketak itzultzen direnean Joseba Azkaratek, Igarki Pacualek eta Ruben Visok defendatuko dute Antxintxikako kirol egokituko saileko elastikoa. Ilusio galantarekin daude.

Zelan iritsi zarete proiektu honetara?

Joseba Azkarate: Betidanik izan naiz kirolzalea, eta errepidean zoritxarreko istripua izan eta gero, Antxintxikako kide Aitor Rementeriarekin berba eginda

bizikleta erosteko proiektua abiarazi genuen, dirua lortzeko zozketak saltzen hasi ginen, eta horri esker erosi ahal izan genuen kirol egokitan parte hartu ahal izateko *handbike*-a. Poliki-poliki, egitasmo hura han-

"BAILARA MAILAN PROIEKTU HAU JENDEA KONTZIENTZIATZEKO DA LAGUNGARRI"

ditzen joan da, jendea batu da proiektura, eta gaur [astelehena] aurkeztu dugu saila bera modu ofizialean.

Igarki Paskual: Urteak daramatzat Gasteizen saskibaloian jokutzen. Gaztea nintzela, bizkar arazo batzuk tarteko ebakuntza egin behar izan zidaten, eta ordutik, kirola oso lagungarria izan da niretako. Baina, azkenaldian, saskibaloiaz gain, beste kirol jarduera batzuk probatzeko beharra neukan. Hala, Josebaren bitartez izan genuen Antxintxi-



LANA Antxintxika kirol egokituko sailaren aurkezpena. IMANOL BELOKI

LANA Antxintxika, kirol egokitura

Poliki-poliki egosten joan den proiektuak argia ikusi zuen astelehenean, Oñatin –bertakoa da Joseba Azkarate–. *Handbike* bizikletak erakutsi zituzten eta adierazi zuten pandemiagatik bertan behera geratu ez den azken proba egiten saiatuko direla.

karen proiektuaren berri, eta birritan pentsatu barik animatu gara. Lehenengoz triatloi bat egitea da asmoa.

Ruben Viso: Gaztetan traktore batekin istripua izanda geratu nintzen elbarri, eta futbola alde batera utzi eta saskibaloia heldu nion. Egokitu egin behar duzu egoera berrira. Hala, Josebak Zuzenak taldean errugbian ere egiten du, eta hark kontatu zigun triatloi taldean zegoela, eta ordurako gu ere kirol jarduera hori probatzeko gogoz geunden.

Joseba, zer dakar Antxintxikak pauso hau eman izanak?

J.A.: Batez ere, bailara mailan aurrerapauso handia da, jendea kontzientziatzeko lagungarria delako. Hiriburuetan errazago ikusten dira halako kasuak, hau da, desgaitasunen bat duten lagunek ere kirol jarduerak egin ditzaketela, baina hemen ez da halakorik ikusten. Hau da, proposatuz gero edonork edozer egin dezakeela erakustera gatzoz. **Zure kasuan, kirola egiteak ze onura ekarri dizkizu?**

J.A.: Onura mordo, eta egunerokotasunean ikusten ditugunak, gainera. Gorpil aulkian ibiltzeko egonkortasun handiagoa,

"KIROLAK EZ DIGU ONURA FISIKOA BAKARRIK EKARTZEN, HOR DAGO ONURA PSIKOLOGIKOA ERE"

indarra beso eta eskuetan, konfiantza... Ez dira onura fisikoak bakarrik, psikologikoak ere hor daude: beste gauza batzuetaz arduratzen zara, motibazioa...

Eta Antxintxika moduko talde batean egoteak ze onura dakartza?

J.A.: Triatloia bakarkako kirol jarduera bat da, baina elkar babesten dugu. Gainera, laguntasuna behar izaten dugu materiala prestatzeko, hemendik hara joateko...

I.P.: Antxintxikaren proiektuaren berri izan aurretik ere triatloietan parte hartzeko asmoz geunden. Gure gaitasunen arabera ahalik eta lasterketarik egokiekin aurkitzen saiatu, eta iristen ginen lekuraino iritsi. Orain, berriz, proben gaineko informazio zehatzagoa izango dugu, baliabide hobeak; izan ere, behar dugun materiala garestia da.

R.V.: Ze lasterketatara joan gaitzkeen, nora ez... Halako informazioa izango dugu, Antxintxikako antolatzaileekin egongo direlako proben ezaugarriak aurrez jakiteko. Eta, noski, taldearen babesa izatea ere gauza handia da.

2020rako baduzue erronkarik?

J.A.: Oraingoz nire erronka *handbike*-an dago, hor nabil burubelarri. Baina etorkizunera begira triatloi bat egin ahal izatea dut buruan, eta badakit egingo dudala.

R.V.: 2020ra begira geneukan erronka zen pare bat triatloi egitea, poliki-poliki kirol hau ezagutu eta hobetzen joateko.

"Duskok dena posible dela sinestarazi die"

SASKIBALOA Ointxe!-ko kirol zuzendari ohi Josu Larreategi ondo ezagutzen du Montenegroko entrenatzailea, 2001ean tandem osatu zuten eta Baskoniaren gidaritzan: "Hogei urte hauetan ez da batere aldatu, eta dagoeneko ez da aldatuko"



Liga garaipenaren ondorengo ospakizun momentuak. BASKONIA

Xabier Urzelai ARRASATE 2000. urtean iritsi zen Dusko Ivanovic (Montenegro, 1957) Gasteizera, eta urtebetez Josu Larreategi bertatik bertara egin ahal izan zuen lan Gasteizera horrenbeste poztasun eraman dituen entrenatzailearekin. "Pentsa, Baskoniak lau liga irabazi ditu bere historian, eta horietako hiru Dusko Ivanovic aulkian zela izan dira", dio eskoriatzarrak.

Atzera begiratua egiten hasita, Larreategi eta Ivanovicek elkarrekin lan egin zuten urte hartan Tau Baskonia Euroligako txapeldunordea izan zen: "Kinder Boloniaren kontra galdu genuen finala (3-2). Sasoi hartan pentsaezina zen guk European halakorik egitea".

Formatura bikain egokituta

Gaur egunera etorrita, berriz, inork gutxi uste zuen duela hilabete batzuk Ivanovicen etorrerak horrenbeste aldatuko zuenik Gabonetan horren desi-

txuratua zegoen Baskonia: "Baina urte hauetan ez da batere aldatu. Jokalariengan sinisten zuela esanez etorri zen, sekulako intentsitatea eskatzen die jokalariei, eta sinistu arazten die dena dela posible. Hala, jokalariek pentsatzen du 100 metroak 8 segundotan egin ditza keela, nahiz eta esprinter azkarenek ere ez duten hori egiten.



Josu Larreategi. GOIENA

Hori da Dusko, eta daukan adinarekin dagoeneko ez da aldatuko. Alde horretatik, uste dut pandemia egoera dela-eta liga amaitzeko aukeratu duten formatuak on egin diela, Errege Koparen formatua beharrean liga erregularreko formatua izango balu Baskoniak ez zukeen liga hau irabaziko. Baina, urte batzuk barru inor ez da horretaz akordatu, gogoan geratuko den gauza bakarra da Baskoniak 2020an liga irabazi zuela".

Lana eta intentsitatea

Hori da Ivanovicen errezeta: "Jokalaria moduan ere halakoxea zen, eta entrenatzaile moduan ere filosofia berberarekin egiten du lan. Defentsa gogorrean sinisten du, eta kontraerasoan azkar jokatzea gustatzen zaio, horretarako jokalariek ditu. Gero, batzuek aurpegiatzen diote ez duela estrategia horrenbeste lantzen. Baina, kantxan jartzen duen intentsitatea sekulakoa da".

Aloñako Igoerak ere 2021era itxaron beharko du

MENDI LASTERKETAK Astean iragarri dute bertan behera uzten dutela irailean egitekoak ziren lasterketa

X.U. ARRASATE

"Lasterketa normaltasun berri- ra egokitze ideia ezberdinak lantzen aritu gara azken aste hauetan eta egoerak hobera egin duen arren, irailera begira ez dago ziurtasunik lasterketa modu egoki batean ospatu daitekeenik. Lasterkari, bolondres, ikusle eta lasterketaren inguruan batzen diren pertsona guztien osasuna lehenetsi behar dugu. Beraz, datorren urtera begira jarriko ditugu gure ilusio eta gogo guztiak", adierazi dute aste barruan antolatzaileek.

Lasterketa apirilean egin behar zuten, urtero moduan, baina pandemia egoeratik irailaren 12ra atzeratu zuten proba, baina ez zen behin betiko erabakia.

Aukera ezberdinak korrikalariei

Izena emana duten lasterkariek bi aukera izango dituzte, dor-



Deabrua irteeran, iaz. GOIENA

tsalaren dirua bere osotasunean bueltatzea edo dortsala datorren urterako gordetzea. Antolatzaileek e-posta bidez jakinaraziko diete lasterkariei zeintzuk izango diren eman beharreko pausoak. Bestetik, ez dute baztertzen kilometro bertikala antolatzea.

ZIKLISMOA Euskaltel-Euskadik 2020ko egutegia aurkeztu du

Pandemiak eraginda hankaz gora geratu da 2020ko ziklismo denboraldia. Hala, Portugalen, Joaquim Agostinho Sarian, hasiko dute denboraldia uztailaren 18an. Eta etxean egongo diren lasterketen artean Getxoko zirkuituan –abuztuak 2– eta denboraldiko azken proba izango duten Ordiziako Klasikoan egongo dira –azaroak 12–.

ZIKLISMOA Amateur mailako lasterketak zehaztu dituzte

Zehaztuta geratu da amateur mailako txirrindularitzako denboraldia. Hainbat lasterketa bertan behera utzi dituzte, tartean udaberriaren egin behar zuten Gorlako Igoera. Baina, egutegian jarraitzen dute abuztuaren 16an Aretxabaletan eta irailaren 19an Oñatin egitekoak ziren lasterketak. Iturmendin egingo dute lehena, hilaren 16an.

PARAPENTEAK Euskal Herriko III. Oinez eta hegan proba

Euskal Herriko III. Oinez eta Hegan txapelketa antolatu du Euskal Aire Kirol Federazioak uztailaren 18rako, Kurtzebarrin. Azken egunotan lagun asko dabilta inguruotan hegan, bat baino gehiago entrenatzen dabilen seinale. Pilotuek proba Aretxabaletan abiatuko dute, eta amaitu ere herrian bertan egingo dute.

SASKIBALOA Ointxe!-k haserrea erakutsi du denbora faltagatik

Ointxe!-k ekainaren 30ean adierazi behar zion federazioari zilarrezko LEB mailara igoko diren ala ez. Hala, berri ona ofizialki jakin zutenetik moreek astebete baino ez dute izan erabakia hartzeko, eta arrasatearren ustetan ez da nahikoa. Hain zuzen, hori jakinarazi diote Espainiako Federazioari, eta euren erantzunaren zain daude.



Iñaki Zabala Anboto mendiari ateratako argazkia da erakutsiko duten bilduman jasotako bat. BERGARAKO UDALA

Herriko argazkilarien erakusketa kolektiboa

Arizondo Argazkizale Elkarteko hamahiru kidek 'Begiradak-Miradas' erakusketa zabalduko dute uztailaren 10ean Aroztegi aretoan; 39 argazkitan askotarikoak daude jasota: paisaiak, erretratuak, eraikinak... horiek guztiak, koloretan eta zuri-beltzean

Aitziber Aranburuzabala BERGARA Urtero gonbidatzen du Udalak Arizondo Argazkizale Elkarteko kideren bat Aroztegi aretoan erakusketa jartzeko. Aurten ere elkarteko argazki bilduma da, baina bakarka beharrean taldean osatutako bilduma erakutsiko dutela dio Joseba Leturia elkarteko kideak: "Ez zeukan astirik berak bakarrik egiteko, eta elkarrekin egitea proposatu genion aurten, eta datorren urtean, ahal bada, berak egingo du; Udalari ondo iruditu zitzaion. Ohiko segurtasun neurriez gainera, ez dugu besterik hartuko. Ia prest genuen guztia, baina zain egon gara aretoen arautegia atera arte, eta orduan egin ditugu

azken lanak. Pozik gaude zabalteko aukera dugulako".

Bi astez izango da *Begiradak-Miradas* ikusgai, uztailaren 10etik 26ra: asteartetik ostiralera 18:00etatik 20:30era; larunbatean, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta igandeean eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Hamahiru begirada

28 dira elkartean eta kide guztiei proposatu zieten erakusketan parte hartzea, eta hamahiruk eman zuten baiezkua. Argazki digitala lantzen dute guztiek, baina bakoitzak bere estilora, Leturiaren esanetan: "Bakoitzak bere begirada du. 39 argazki

horiek desberdinak dira. Norberaren begirada ezagutzera ematea eta bata bestearen ondoan jarrira erakustea da gure helburua. Hiru argazki ditu bakoitzak -60x40 neurrikoak-; baldintza bakarra, hiruren artean lotura izatea".

Tradizio handiko elkarte

Orain dela 30 urte elkartu ziren, Pol Pol argazki taldea izenarekin orduan, eta Arizondo Argazkizale Elkarte izena hartu zuten geroago. Zabalotegi kalean dute lokala, eta astelehenero elkartzen dira. "Batak besteari argazkiak eta halakoak erakusten sekulako tertuliak egiten ditugu 19:30etik 21:30era".

'Begiradak' erakusketako argazkilaria

Arizondo Argazkizale Elkarteko hamahiru kidek elkarlanean osatu dute uztailaren 10etik 26ra Aroztegi aretoan ikusgai izango den bilduma. Egile bakoitzak hiruna jarriko ditu, elkarrekin ikuspegi zabalak eskainiz horrela.

- **Alex Molano** Erretratuak.
- **Benito Cantero** Italiako Dolomitako paisaiak.
- **Eduardo Rodriguez** Berlingo eraikinak.
- **Felix Idigoras** Hegazti harrapakariak.
- **Imanol Mondragon** Pirinioetako mendiak.
- **Iñaki Zabala** Euskal Herriko paisaiak.
- **Jose Agustin Gurrutxaga** Erretratuak eta paisaia.
- **Jose Luis Feo** Erretratuak.
- **Jose Luis Irazabal** Errioxako paisaiak.
- **Joseba T. Leturia** New Yorkeko eraikinak.
- **Joxean Robledo** Errekak eta ur-jausiak.
- **Juan Antonio Unzurrunzaga** Donostiako paisaiak.
- **Juan Jose Lopez Azurmendi** Pakistango mendietako paisaiak.

'Biblioporrak' gida kalean da, proposamen berriekin

Biblioteketan eskuragarri dago paperezkoa eta PDF formatuan nahi duenak liburutegien atarietan du

A. A. BERGARA

Aretxabaletako, Arrasateko, Aramaioko, Eskoriatzako, Legazpiko, Oñatiko eta Bergarako bibliotekak elkarlanean bi gida argitaratzen dituzte: neguan bat eta udan bestea. Iaz, 25 urte bete zituen gidak, eta urteurrena ospatzeko zenbaki berezia atera zuten; argitaratu berriak ohiko egitura eta ezaugarriak dituela azaldu du koordinatzaile lanetan jardun duen Bergarako bibliotekari Mila Agirrezabalek: "Literatura arloan, adinaren arabera banatuta, bost atal daude, eta, liburuez gainera, diskoen eta filmen gomendioak daude".

Aurten argitaratutakoak

Aurreko aldietan moduan, euskarazko eta gaztelarazko lanak batu dituzte. "Denetariakoak daude, lan berriak dira guztiak; aurten argitaratutakoak gehienak, eta iazko urte bukaeran gainontzekoak. Helduentzako eta gazteentzako askotariko generoetakoak daude; esaterako: Kirmen Uriberen *17 segundo* poesia liburua, Karnele Jaioaren *Aitaren etxea* eleberria, Zigor Aldamaren *Adios a Mongolia* bidaia liburua... Haurrentzako ikaragarriak daude, gero eta politagoak argitaratzen dituzte".



MAIDER UNDA: BRONTZEZKO EMAKUMEA

'GOIENA: 20 URTE, 20 ALBISTE' ERREPORTAJE-SORTA
GOIENA TELEBISTA
UZTAILAREN 3AN, EGUBAKOITZEAN, 23:00ETAN

goiena
20 URTE ZUEKIN.





Travellin' Brothers taldea uztailaren 18an izango da Herriko Plazan. T. B.

Kale giroa pizteko blues musika jaialdia uztailan

Bigarren Arrasate Blues jaialdia egingo du Ibai-arte merkatarik elkarteari Udalarekin elkarlanean; uztailaren 17an eta 18an, sei kontzertu egingo dituzte herriko gune ezberdinetan. Horiek guztiak doan dira, baina edukiera mugatuarekin

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Dendak eta tabernak zabalik dauden arren, Ibai-arte merkatarik elkarteko Jon Apraizen esanetan gorabehera handiak dituzte: "Etxean kontsumitzera ohitu da jendea eta ez dabil horrenbeste tabernetan, eta bestelako negoziotetan ere antzera ari gara. Hasieran, jendea zebilen eta erosketa bonuek ere lagundu dute, baina orain, motel samar; Arrasate Blues-ek giroa pizten lagunduko duela uste dugu".

Aurten, bigarren aldia da. "Hiru eguneko egin genuen iaz, eta laukoa egitea zen aurten asmoa, baina bi eguneko izango da. Tabernarekin, musikarekin, soinu, argi eta bestelako teknikarekin aurrez hartutako konpromisoak bete nahi ditugu, baina ezingo dugu guztiekin; izan ere, hainbat baldintza bete behar ditu kontzertu-guneak, eta horregatik ezin dugu toki guztietan egin, baina datorren urtean, aurrez pentsatutako toki eta moduan egiten saiatuko gara".

Egitaraua

Kontzertuak doan dira, baina edukiera mugatua dute, eta aurrez hartutako gonbidapenak beharko dira. Datozen egunotan azalduko dute txartelen banaketa egiteko modua.

Uztailak 17

- **The Song** Euskal Herria plazan, 19:00etan.
- **Serious Business** Herriko Plazan, 22:00etan.

Uztailak 18

- **Patakbra** Izozkitegi inguruan, 13:00etan.
- **Broken Brothers Brass Band** Kaleetan zehar, 19:30ean hasita.
- **Niko Waynetoussaint Quarter Band** Herriko Plazan, 20:00etan.
- **Travelin' Brothers** Herriko Plazan, 22:30ean.

Euskal Herriko taldeak

